

# •eus Jakin 2009

herria kultura hizkuntza uztaila-abuztua  
2015

## Gatazka ezpalak

Gatazka, eta gatazkak. Errelatua, eta errelatuak.  
Borroka horretan sartu eta borroka horren ezpalak  
islatu dituzte arteak, musikak, literaturak, zinemak,  
feminismoak eta akademiak.

XABIER GANTZARAIN  
NORA AURREKOETXEA  
LAURA RUIZ  
JOSU LARRINAGA

IBON EGAÑA  
JOSU MARTINEZ  
ZURIÑE RODRIGUEZ  
IMANOL MURUA URÍA

### EGUNEN GURPILEAN

NAGORE AMONDARAIN · HENRIKE GALARZA  
TXERRA RODRIGUEZ · GORKA JULIO

**Jakin**<sup>•eus</sup>**209**  
herria kultura hizkuntza    uztaila-abuztua  
2015



JAKINEko idazlanez inon baliatzerakoan  
aipa bedi, mesedez, iturria



aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez  
idazleen iritziekin bat

#### LEHENDAKARIA

Joan Mari Torrealdai

#### OHOREZKO KIDEAK

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

#### ZUZENDARIA

Lorea Agirre

#### ERREDAKZIO BURUA

Xabier Eizagirre

#### KONTSEILU EDITORIALA

Lorea Agirre, Haizea Barcenilla, Harkaitz Cano, Xabier Eizagirre,  
Idurre Eskisabel, Patxi Juaristi, Joanmari Larrarte, Maialen Lujanbio,  
Imanol Murua, Andoni Olariaga, Olatz Osa, Gexan Sors,  
Joan Mari Torrealdai, Eguzki Urteaga

#### IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia

Tel. 943 21 80 92

[jakin@jakin.eus](mailto:jakin@jakin.eus)

[www.jakin.eus](http://www.jakin.eus)



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen  
Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*



*Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*

## SUMMARY

### 5

## ZUZENDARIAREN HITZAK

### 7

## GAI NAGUSIA Gatazka ezpalak

### 11 Gatazka irudikatzearen gatazka Xabier Gantzarain

ETAren jardun armatuaren amaiera irudikatzeko Gara egunkariak erabili zuen azaletik abiatuta, euskal gatazkek artean aurkitu dituen bi ikurrik aipagarrien azterketa eta erkaketa egiten da, sinboloen garrantzia nabarmenduz, eta aldi berean gatazka izendatzeko eta irudikatzeko ezinak agerian utziz.

### 25 Noiz arte jarraituko du dantzak? Nora Aurrekoetxea • Laura Ruiz

Artxibo polizial eta hedabide hegemonikoetako argazkiekin gatazkaren gaineko iruditegi eta iruditeria jakin bat eraiki da azken urteetan. Artistaren eginbehar urgentea estetika propioa duen narrazio hori zalantzan jartzea eta, galdera berriak plazaratuz, diskurto eraldatzaile eta eraikitzaileak egitea dela aldeztzen da.

### 35 Musikak gatazka islatu edota performatu, gatazkek musika ito Josu Larrinaga

Euskal pop musikak eta euskal gatazkek izan duten erlazioa aztertzen da. Euskal pop musikak islatu soilik ez, aurreikusi, performatu edo bideratu ere egin du azken urteotan euskal kultura eta identitatearen eboluzioa, eta, zentzu horretan, baita identitate horren berreraikitzean protagonismo handia izan duen gatazka armatua ere.

### 53 Ihesaren fantasia

Azkenaldiko euskal nobela eta indarkeria politikoa

#### Ibon Egaña

ETAren eta estatuaren indarkeriari azken urteetako euskal nobelak nola begiratu dion aztertzen da. Biktimak erdigunean jarriz eta familia barruko harremanen kontakizunaz baliatuz, euskal nobelak jasotako herentzia politikotik ihes egin nahi eta ezinaren lekukotza ematen duela argudiatzen da.

**69** Ispilu hautsiaren memoria

Josu Martinez

Franco hil ondorengo lehen film laburretatik gaur eguneraino, ETaren eta estatuaren biolentzia tratatu duten film esanguratsuenen panoramika bat egiten da, ikuspegi historiko batetik. Gizarztearen ispilu den heinean, zinema garaian garaiko egoeraren oihartzun gisa garatu dela agertzen da.

**83** Gatazka, normalizazioa eta feminismoa

Zuriñe Rodriguez

Euskal Herriko gatazkaren berrikuste feminista bat proposatzen da. Izan ere, gatazka eta bakea patriarkatutik definitu diren kontzeptuak izanik, orain arteko irakurketetan ikuspegi jakin batzuk pribilegiatu dira (gizonenak) eta beste batzuk itzalpean utzi dira (emakumeenak).

**101** The End of ETA: errelatuaren borroka akademian

Imanol Murua Uria

ETAren jardun armatuaren bukaeraren gainean ikerlari akademikoek argitaratu dituzten liburu eta artikuluei buruzko ikuspegi orokor eta kritikoa eskaintzen da, ingelesez plazaratutakoari arreta berezia jarrita.

**EGUNEN GURPILEAN**

**119** Kultura

Nagore Amondarain

**125** Ekonomia

Henrike Galarza

**132** Soziolinguistika

Txerra Rodriguez

**138** Telepolis

Gorka Julio

**KONTRAZALA** Unai Iturriaga

## READING INTO THE CONFLICT

### Conflict in depicting the conflict

Starting with the cover published by the daily Gara to depict the announcement of the end of armed activity by ETA, Xabier Gantzarain, coordinator of the Kalostra art school, analyses and compares the two most prominent symbols of the Basque conflict in art. In so doing, he refers to the importance of these symbols and the difficulties faced when giving a name to and depicting the conflict. [Xabier Gantzarain](#)

### Up to where will dance continue?

A set of images and a collective imagery have been gathered in recent years based on photos from police archives and the predominant media. The artists Nora Aurrekoetxea and Laura Ruiz maintain that the most urgent task for the artist involves questioning such a narration with their own aesthetics and building transforming and constructive discourse from new questions. [Nora Aurrekoetxea](#) • [Laura Ruiz](#)

### Music reflects and performs the conflict, conflict stifles music

Josu Larrinaga, a lecturer in Social Anthropology, analyses the relationship existing between Basque pop music and the Basque conflict. According to the author, Basque pop music has in recent years not only reflected but also envisaged, preformed and guided the evolution of Basque culture and identity, and in this sense, also the armed struggle that has played such a major role in the reconstruction of that identity. [Josu Larrinaga](#)

### The fantasy of evasion. Recent narrative in the Basque language and political violence

The lecturer and literary critic Ibon Egaña analyses the treatment provided by narrative in the Basque language over the past fifteen years of ETA and State-sponsored violence. The author argues that such narrative, which has tended to place the victims at the heart of things and has involved talking about close family relations, bears witness to the fruitless attempts to escape from the political inheritance that has been passed down. [Ibon Egaña](#)

### The memory of the broken mirror

The film maker Josu Martinez provides an overview of the films that have dealt with ETA and State-sponsored violence, from the time of the first short film following the death of Franco to the present time. The author postulates that film reflects the social situation of the times in which it is made. [Josu Martinez](#)

### Conflict, normalisation and feminism

Zuriñe Rodriguez, a graduate in Human Science and Communication, proposes a feminist review of the Basque conflict. In fact, bearing in mind that conflict and peace are concepts defined by a patriarchal standpoint, texts about the subject have thus far tended to favour male perspectives and left female views to one side. [Zuriñe Rodriguez](#)

### The End of ETA: the struggle to write about it in learned society

Imanol Murua Uria, journalist and member of the Jakin Editorial Board, offers a critical overview of books and articles published by academic researchers about the end of armed activity by ETA, especially highlighting publications written in English. [Imanol Murua Uria](#)

### NEWS TODAY

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, economic, sociolinguistic and communication matters. This section draws on various specialists: Nagore Amondarain, Henrike Galarza, Txerra Rodriguez and Gorka Julio. [Various authors](#)

Lehen borroka zena orain gatazka da. Izendatzeko moduak ez dira ausaz aldatzen, sinonimia ez da existitzen. Hitzek berez esan esaten dute, baina nork esan eta non esan, hor jokutzen da esan nahi dena. Eta hitzen, adieren eta izendapenen bilakaerak eman dezake posizio ideologiko eta kulturalen aldaketen berri. Eta baita kontakizunen arteko talkaren berri ere. Horrek guztiak, izan ere, harreman zuzena du 'zer da gatazka?' galderarekin. Alegia, zertaz ari gara gatazkaz ari garenean? Zertaz ari garen, kontakizunaren zentzua zein den, nondik abiatzen den eta zer xede duen.

Lehen kontakizuna zena orain errelatua da. Errelatuak dira izan, eta borrokan daude. Errelatuaren borroka eremu askotan gertatzen ari da. Jakinek sei eremu aukeratu ditu: artea, musika, literatura, zinema, feminismoa eta akademia. Eta horien gaineko azterketa egiteko proposatu die sei ikerlari eta artistari. Gatazkatik zer edan den, nola irakurri den, eta, bereziki, nola islatu den.

Ondorio orokor samar bat emate aldera, hauxe: gatazkaren eta kultur diziplinen arteko elkar eragina, trukea eta, are performazioa, ezinbestean gertatzen dela. Musikak, esate batera –Josu Larrinagak argi arrazoitzen du–, gurean gertatu diren zenbait aldaketa sozial islatu ez ezik, erraztu eta bideratu egin dituela.

Are, gertatua historia edo egiaren parametrotan kokatu beharrean errelatuarenean kokatu izanak fikzioa eta errealtatea hurbilarazi ditu, eta diziplina kulturei, literaturari bereziki, errelatua osatzeko autoritatea aitortu zaie. Horrela idatzi du Ibon Egañak. Josu Martinezek, ildo beretik, jokoan dagoena errelatua dela iritzi dio, eta momentuz errelatuak dauzkagula. Eta joko, borroka, horretan, garrantzi handiko joko zelai sinbolikoa dela zinema.

Nolabait esatearren, politikak lortu ezin duena kultur sormenak ekar lezakeela. Horrek, urrats ausart bat aurrera eginez, pare bat burutazio ekar ditzake: kulturak politikak baino sinesgarritasun gehiago ote duen, eta *egiak* kontatzeko eta zauriak sendatzeko tresna egokiagoa ote den.

Zer den gatazka galdetu dugu lehen lerroetan. Xabier Gantzarainek bere artikuluan honela erantzuten du: «gatazka zer den jakin nahi baduzu, galdetu jendeari, irakurri literatura, entzun musi-



ka, ikusi pelikulak, joan erakusketetan galtzera». Horra, kulturaren erantzuna. Kulturaren balioa.

Izan ere, kulturak aurrez galdera bat egiten dio bere buruari: nola berrerabil ditzake artistak, demagun, komunikabide hegemonikoek erabilitako irudi, estetika eta narrazioa beste diskurtso bat garatzeko? Hondakinetatik ongarria ateratzeko? Horri erantzuten diote Nora Aurrekoetxea eta Laura Ruiz artistek euren artikuluan.

Lehen gatazka zena orain gatazkak dira. Gatazka politikoa, borroka armatua, gatazka bakar gisa agertu da, hegemonikoa izan da, hainbeste ezen beti singularrean jokatu dugula. Orain pluralen jokatzea ekidinezina da. Gatazka nagusiaren azpitik gatazkak agertzen hasi dira.

Lau urte bete dira ETak jarduera armatua uztea erabaki zuenetik. Ez da gatazka bukatu halere, ez gatazkak gainditu. Gatazkak hain zuzen orain datoz ur azalera.

«Gatazkaz hitz egitea baino, gatazkei buruz hitz egin behar dugu. Hau da, gatazka bakoitza ezaugarritu (armatua, lan eremukoa, emakumeen kontrakoa, ekonomikoa...) eta denei izaera politikoa eman». Zuriñe Rodriguezek feminismoaren talaiatik begirada kritikoa bota dio gatazkari; haren hitzetan, gatazka(k) parametro patriarkalean irakurtzeari utzi behar zaio: «Gatazka gizonena izan bada *bakearen* negoziazioa euren soilik izateko arriskua dagoela plazaratzen du kritika feministak. Beraz, bakea ez da izango soilik desarmaea, presoan hurbilketa eta abar; bakea generoen arteko harremanen birnegotziazioarekin etorriko da soilik».

Eta gure mugetatik kanpo zer errelatu egiten da? Akademiak eta iritzi egileek zer diote? Zer errelatu da nagusi beste hizkuntzetan? Imanol Muruak akademian zer esan den aztertu du. Ondorioak argigarriak dira: gaztelerazkoa da produkzio ugariena, eta horietan gehienak arazoaren sustrai politikoa ukatu edo desitxuratzen dutenak. Egañak euskal literaturan ETaren zein estatuaren biktimak irudikatze joera bat nabarmentzen ari dela sumatzen duen bezala, espainolezko lan akademikoek indarkeria guztien biktima guztiak aintzat hartzea ETaren biktimei irain egitea dela argudiatzen dute. Ingelesezko azterketa lanak urriagoak dira, baina ahalegin berezia nabari da ezker abertzalearen ikuspegia ulertzen duten lanak munduko ikerlarien eskura jartzeko.

Errelatu borroka. Inork esan zuen: gatazka orain hasten da. Gatazkak orain hasten dira, esan beharko dugu, nahiz gatazka zaharra den, eta gatazkaren irakurketaren borroka ere bai, Unai Iturriagak bere artikulua grafikoan gogorarazten digunez.

## GATAZKA EZPALAK

- 11** Gatazka irudikatzearen gatazka  
Xabier Gantzarain
- 25** Noiz arte jarraituko du dantzak?  
Nora Aurrekoetxea • Laura Ruiz
- 35** Musikak gatazka islatu edota  
performatu, gatazkek musika ito  
Josu Larrinaga
- 53** Ihesaren fantasia  
Azkenaldiko euskal nobela eta  
indarkeria politikoa  
Ibon Egaña
- 69** Ispilu hautsiaren memoria  
Josu Martínez
- 83** Gatazka, normalizazioa eta feminismoa  
Zuriñe Rodríguez
- 101** The End of ETA: errelatuaren borroka  
akademian  
Imanol Murua Uria

# Gatazka irudikatzearen gatazka

Xabier Gantzarain

*Kalostra arte eskolako koordinatzailea*

## Gatazka zati bat

Google jainkoak segituan aterako dizu: 321.000 emaitza inguru (0,45 segundo). Baina Boris Groys filosofo eta arte kritikariak ondo dioen bezala, erabiltzaileak ezin du Googlek erakusten ez dion beste ezer ikusi, eta, beraz, bilaketa horretan agertzen dena besterik ez da gatazka. Entziklopedia eta hiztegi modernoetatik oso bestela, zeinetan hitza erabilera, testuinguru eta arau batzuen arabera definitzen den, munduari galderak egiteko dugun modu nagusi honekin, Googlerekin, alegia, gatazka hitz solte bat da, hitzen lainoan dabilen beste milioika hitzetarik bat, eta hizkuntza (lengoaia) hitzetan desegin duenez, ez dago esanahi artikulatu bati edo gehiagori lotua, ez da azaltzen bere erdoka semantikoa, ez dago diskurtso baten baitan sartuta, hor dabil, airea da, gatazka.

Filosofiaz tutik ez dakit, baina arazo filosofiko potolo samarra izateko itxura guztia du horrek. Ez soilik gatazkari dagokiona, noski, baina baita gatazkari ere.

Izan ere, euskaldunak entzuten du gatazka eta badaki zer den, esplikatzeko asmatuko ez badu ere, seguruenera. Baina horretarako, agian, XX. mendean jaiotakoa izan behar da. Zer ulertzen du 14 urteko gazte euskaldun batek gatazka

entzunda? Zer gatazka bizi dute ETBko *Gu ta gutarrak* saio-ko gazteek? Eta hura ikusten dutenek? Zer ulertzen dute *Gu ta gutarrak* esamoldea entzunda?

Euskalbar da gure jainko partikularra, ia egunero joaten natzaio galdezka zalantza existentzial batekin –ez da txiste bat; gure existentzia kolektiboa hizkuntzaren iraupenarekin dago lotua erabat, baina baita gure existentzia intimoa ere: hiztegieta agertzen ez diren hitzak esaten ditut, eta horrek halako harrotasun bat ematen dit, eta aldi berean maila bereko arrotasun bat–, eta oraintxe bertan ere hala etorri natzaio, larri, galdezka: gatazka.

Elhuyarren arabera, espainolez «lucha, guerra; conflicto, contienda; disputa, riña» da, frantsesez «lutte, conflit, dispute, querelle, conflit», eta ingelesez «fight, struggle; conflict». Eta espainolezko itzulpenaren ondotik, lau adibide dakartza:

*gatazka luze batean sartu ziren bi gizonak*: se enzarzaron en una larga disputa  
*klase-gatazka*: lucha de clases  
*Ipar Irlandako gatazka*: el conflicto norirlandés  
*barne-gatazka*: conflicto interior

Euskalterm, berriz, poema dadaista bat idazteko primerako tresna da; hauxe da zerrenda, bakandua, 88 baitira guztira, eta ez dira denak sartzen:

Baliabide-gatazkaren abisua  
Bertsio-gatazka  
Gatazka-informazioa  
Hardware-gatazkak  
Kontaktu-informazio gatazkatsua  
Laneko Gatazkak Ebazteko Borondatezko Prozedurei buruzko  
Lanbide Arteko Akordioa  
Mezuko karaktere-jokoen gatazka  
[...]  
arraza-gatazka  
belaunaldien arteko gatazka  
bikote-gatazka  
eskubide-gatazka  
eskudantzia-gatazka

eskumen-gatazka  
eskumen-gatazka negatibo  
eskumen-gatazka positibo  
estatuarteko gatazka  
[...]  
gatazka armatu  
gatazka indibidual  
gatazka kolektibo  
gatazka nazional  
gatazka sozial  
gatazka zibil  
[...]  
gatazka-konponketa  
gizarte-gatazkak  
hizkuntza-gatazka  
interes-gatazka  
interpretazio-gatazka  
klase-gatazka  
lan-gatazka  
lan-gatazka kolektiko  
talde-gatazka

Ikusten denez, gatazka ugari dago euskaldunen artean, eta era guztietakoak. Baina nik gatazka hitza entzunda ulertzen dudanik ez. Eskerrak hor dugun *Ereduzko Prosa Gaur*. Emaitza orokorra:

*Emaitza:* 2.980 agerraldi / 2.923 esaldi  
*Liburuetan:* 305 esaldi / 92 liburu  
*Prentsan:* 2.618 esaldi / 1.481 artikulua

Liburuetan, lehen hiru postuetan, aldearekin:

*Historiaren azterketa II*, A.J. Toynbee / Iñaki Mendiguren  
*Arrazoimen hutsaren kritika*, Immanuel Kant / Ibon Urizarri  
*Lisboako Setioaren Historia*, José Saramago / Jon Alonso

Eta seigarren postuan:

*Itasoa euri*, Joxerra Garzia (Alberdania, 2003)

53. or.: Ez, ez naiz berriro ere gure arteko *gatazka* malapartatu horri buruz ari, hor ere ederki aplikatzekoa litzatekeen arren agure jakintsuaren esana.

61. or.: *Gatazka*

61. or.: '*Gatazka*' hitza gerora ikasi genuen.

61. or.: '*Gatazka*' esaten eta erabiltzen jakin aurretik ere bazen, noski, gatazkarik aski inguru gertuan zein urrutikoan, baina beste izenez adierazten genituen horrelakoak: ika-mika, istilu, iskanbila, zalaparta, matraka, borroka.

61. or.: Orain, berriz, dena da *gatazka*.

61. or.: Orain, esan bezala, *gatazka* dira horiek guztiak ere, eta nago ez ote diren pasatu konponezin txiki batzuk izatetik ezin konponduzko kontuak izatera.

61. or.: Ea izenarekin batera izana ere leuntzen diogun zoritxarreko *gatazka* horri.

61. or.: *Gatazka* zein istilu, egoera antzekoa izan ohi da beti.

61. or.: Norbaitek beste norbaiti min, gaitz edo kalte egin diolako sortu ohi dira orain *gatazka* deitzen ditugun gorabeherak.

62. or.: Giza miseria, ordea, harrigarria bada ere, hobeto ikusten da ika-mika txikietan, *gatazka* handietan baino.

87. or.: Berri-paperetan, berriz, honako izenburu hau irakurri dut: «Estatua interlokuzio gaitasun inoizko txikiena izaten ari da *gatazka* konpontzeko».

Gatazka zer den  
jakin nahi baduzu,  
galdetu jendeari,  
irakurri literatura,  
entzun musika,  
ikusi pelikulak, joan  
erakusketetan galtzera

Ez dakit nahikoa garbi geratu den nire tesia: gatazka zer den jakin nahi baduzu, ez galdetu jainkoei, galdetu jendeari, irakurri literatura, entzun musika, ikusi pelikulak, joan erakusketetan galtzera. Eta azken aukera gisa jainkoei galdetzea geratzen bazaizu, ez galdetu zuzenean, hobe duzu galdetzea ETA, eta are hobeto galdetzea Zumeta, Gernika.

## Orain hasten da gatazka

Albiste historiko batek hartzen zituen 2011ko urriaren 21eko *Gara* egunkariaren azala eta kontrazala, ETAREN jardun armatuaren amaierak. Albisteari laguntzeko bi irudi erabili zituzten. Batak, txikienak, hiru etakide erakusten zituen,

jardun armatuaren amaiera iragartzen zuen komunikatua irakurtzen (paperik gabe, kamerari). Kazetaritza ikuspegitik logikoa zen irudi hori sartzea. Bestea, azalaren eta kontrazalaren azpiko erdia edo hartzen zuena, Zumetaren *Gernika* koadroaren erreprodukzioa zen.

Mezua garbia zen: Espainiako Gerra Zibilean eta gerraosteko urte luzeetan Euskal Herriak pairatu behar izandako guztiaren ondorio izan da ETA, eta sufrimendu horren epitomea Gernikako bonbardaketa da. Ez da *Gara*-k asmatutako justifikazio aringarri bat, Joseba Zulaikak ere ETArek sorrerara Gernikari lotzen dio bere *Vieja Luna de Bilbao* liburuan:

60ko hamarkadako belaunaldia gertaera historikoa izan zen bai euskal gizartearentzat eta bai Bilborentzat. Politikaren, kulturen, jakintzaren eta maitasunaren berrasmatze erradikala bilatzen zuen subjektu kolektibo bilakatu zen. Bere sorrera ezin da ulertu Gernikaren trauma gabe eta diktaduraren iraunkortasunik gabe.

Aitaren porrotaren agertoki apokaliptikoa Gernika zen: 7.000 biztanleko herri bat, Bilbotik 30 kilometro eskasera. Bizkaiko Batzar Nagusien egoitza historikoa zen Gernika, bai eta Arbola zaharrarena ere, zeinak euskal herri-demokrazia sinbolizatzen zuen, Francok deuseztatua Hitlerren Kondor Legioaren laguntzaz. Aitaren ezintasunagatik mendeku hartzeko era bakarra ekintza eta subjektibitate modu berri bat zen. Aitarentzat, bere kontzientzia nazionalaren sorrera unea izan zen gerra; baina orain gerra egiteko modu berria behar zen, eta iraultza-estrategia modu berria.

Eta Gernikako traumaren neurria emateko, hauxe dio: «Euskaldunentzat, Gernika *historiaren amaiera* izan zen: apokalipsia».

Ez da bakarria, ez da gutxiagorako: euskal foruen sinboloa dagoen herrian zibilei egindako eraso azoka egun batean, hegazkinak bonbak botatzen, herria sutan, esne beltza, hegazkinak ihesi zihoan jendea metrailetaz errematatzen, haurrak negarrez, giza kea. Baina Gernika ez da Gernika bakarrik. Ignazio Aiestaranen *Walter Benjaminen aingerua Gernikako bonbardaketatik* liburu zoragarriko pasarte bat da hau:

... zer da esne beltza gure artean? Gernika adieraztea. Hitz bat baino ez da, baina Gernika aipatzean mundu oso bat dator burura. Gernika aipatzea, Otxandio, Durango eta Bilboko bonbardaketak gomutatzea da. Gernika aipatzea, Picassoren zaldia ikustea da. Gernika aipatzea, Auschwitz aurreikustea da. Gernika aipatzea, Tokio, Dresden eta Coventryko sufrimendua azpimarratzea da. Gernika aipatzea, Hiroshima eta Nagasakiko etorkizuna marraztea da. Gernika aipatzea, Lauaxeta gogora ekartzea da, baita Lorca eta Celan ere. Gernika aipatzea, Wagnerren su magikoa piztea da. Gernika aipatzea, Rif eta Abisinia oroitzea da. Gernika aipatzea, Portboun Walter Benjaminen aingerua da. Gernika aipatzea, Franco, Mussolini eta Hitlerren estrategia hiltzailea arbuiatzea da. Gernika aipatzea, gaztelu beltzaren azken harria da. Gernika aipatzea, iragana orainaldian etorkizun bihurtzea da. Gernika aipatzea, XX. mendean Espainiako errautsa da. Gernika aipatzea, Iparragirreraren arbola erreketen artean da. Gernika aipatzea, eliza katolikoaren kontraesanak baieztatzea da. Gernika aipatzea, liburu hau idaztea da, malkoz malko, kolpez kolpe. Gernika aipatzea, demokrazia amnesikoa esnatzea da. Gernika aipatzea, Euskal Herriko Unibertsitateak Ernst Jüngerri emandako honoris causa doktoretza ez ulertzea da. Gernika aipatzea, Gabriel Arestiren betaurrekoetatik munduari beha egitea da. Gernika aipatzea, tamalez biktima guztiak aipatzeke uztea da. Gernika aipatzea, isiltasunaren oihartzuna da. Gernika aipatzea, atzerrialdian haur baten margolana da. Gernika aipatzea, giza kea da.

### Gernika.

Gernika aipatzea Aurelio Arteta ikustea da, Mexiko Hiriko Coyoacanen, tranbia istripuan hila, erbestean, gobernu frankistak Julian Zugazagoitia fusilatu eta hurrengo egunean, 1940ko azaroaren 10ean.

Gernika aipatzea Zumetak 1967an pintatutako *Picassoren Guernicari omenaldia* koadroa imajinatzea da, gaur egun desagertua.

Gernika aipatzea *Gara* egunkariaren azala eta kontrazala hartzen dituen Zumetaren *Gernika* ikustea da, bete-betean.

Baina Gernika aipatzea arte historiako koadrorik ezagunenetako bat gogora etortzea ere bada, Picassoren *Guernica*, eta hala izanik, zergatik aukeratu zuen *Gara*-k Zumetarena bere azalerako, eta ez Picassorena?



Gure ikuspegi erromantikoa dezente narrastuko luketen arrazoi prosaikoagoak alde batera utzita –eskubideak eta diru kontuak, alegia–, egon behar du beste arrazoiren batek azalerako Zumetarena aukeratzeko. Batez ere, ETAk berak 2014ko otsailean armagabetez prozesuari hasiera emateko atzeko paretan Picassoren *Guernica*-ren erreproduktzio bat erakutsi zuenean. Nazioarteko Picasso, Euskal Herri-rako Zumeta? Errazegia.

Picassoren *Guernica* koadro oso ezaguna da eta ez naiz historia kontatzen hasiko, zirraragarria bada ere. Baina koadroaren historia alde batera utzita, begiratu koadroari berari, eta ikusiko duzue ez dela bonbardaketa baten errepresentazioa. Mina dago, sufrimendua dago, ilunpea dago, baina ez dago bonbarik, askozaz alegorikoagoa da, unibertsalagoa nahi bada (koadro bat unibertsal zerk egiten duen erabakitzeko beste eztabaida batean sartu beharko bagenu ere), eta ikonografia bera ere ez da Picassok beren-beregi koadro horretarako sortua, aurretik baitzekarren zezenak, zaldiak, beso hautsiak eta abarrak erabiltzeko joera.

Aldiz, Zumetaren *Gernika*-k erronka ugariri egiten die aurre. Alde batetik, bere orduko bidea alde batera utzi eta figuraziora itzuli zen artista koadro honetan. Neurritz eta formaz Picassoren koadroaren antzekoa da, lauki luze apaisatua, eta garbi dago zein duen erreferente zuzena. Baina ikonografia oso bestelakoa da Zumetarena, bai eta konposizioa ere. Picassoren koadroan hirukia baldin bada konposizioaren ardatza, Zumetarenean zerumuga irregular bat da koadroa bitan zatitzen duena, goi eta behe. Goian zerua ilun dago, ia beltz, eta batez ere sua dago, hegazkinetatik jaurtitakoa, bonbak, leherketak, etxeak sutan, kolore biziko suak, ia su artifizialak

Gernika aipatzea arte historiako koadrorik ezagunenetako bat gogora etortzea ere bada, Picassoren *Guernica*, eta hala izanik, zergatik aukeratu zuen *Gara*-k Zumetarena bere azalerako?

akordarazten dizkigutenak ezkerrean, eta forma sinbolikoe-  
tara gehiago hurbiltzen direnak eskuin aldean, tximista mar-  
dul edo geziak diruditenak; pixka bat behartuta, frankisten  
sinboloa izandako uztarria eta geziak hartako geziak direla  
esan daiteke, Gernika behin eta berriz zulatzen. Picassoren  
koadroan eskuak zabalik zerura begira baldin badago figura  
bat, Zumetarenean ukabila itxita ageri da pertsona bat jus-  
tu zerumugatik zerurantz egiten. Picassorenean zaldia bal-  
din bada lantza sartu diotena, Zumetarenean gizaki bat da,  
ahotik sartu eta eztarria zeharkatu dio lantzak. Badira ordea  
Picassorenean azaldu ere ez, eta Zumetarenean bitxiak iru-  
ditzen zaizkigun figurak. Bat, txakurra dirudiena, animalia  
grotesko samar bat. Bestea, esbastika baten antz handiegia  
duten hankek sortzen dutena. Bestea, haserre dagoela diru-  
dien baserri gorri bat. Eta laugarrena, eta nire ustez koadro  
honetako gauzarik bitxiena, erdialdean behe-behean azaltzen  
diren bi oinazpiak, txuri gorri berdez pintatuak.

Garbi gera dadin nahi dut: hau ez da inon irakurria ez  
inork esana, ez eta artistarekin elkarrizketa batean ateratako  
kontua ere, espekulazio hutsa da, eta ardura guztia nire gain  
hartzen dut, baina esan beharra daukat.

Oinazpi horiek Joxe Arregiren oinazpi erreak dira.

Igandea zen, seguru nago, akordatu egiten naiz, *Berria*  
egunkariak *Igandea* izeneko gehigarria ekartzen zuen garai  
hartan. Barrenak irauli zizkidan goiburu batek jo zuen ene  
begietan: ‘Hilobitik atera genuen argazkiak egiteko’. Amagoia  
Ibanek Juan Kruz Unzurrunzagari egindako elkarrizketa zen,  
hil hurren zegoen, kontatu egin nahi zuen egia. Eta holaxe  
jarraitzen zuen goiburuaren azpian:

Asteartea zen, 1981eko otsailak 16 zituen. Juan Kruz Unzurrunzaga  
Zizurkilera joan zen, Joxe Arregiren omenaldian parte hartzera.  
Han bururatu zitzaion egun hartan bertan gorpua hilobitik ate-  
ratzea eta argazkiak egitea, bertsio ofiziala erabat indargabetze-  
arren. «Bixente Ameztairi esan nion». Laguna zuen artista, izan  
ere. Horrela hasi zen torturak gurean utzitako argazki lagzarrie-  
netako batzuen historia.

Elkarrizketa osorik irakurtzekoa da, ikaragarria, baina osorik ekartzea ezinezkoa zaidanez, zatirik esanguratsuenak ekartzen saiatuko naiz, elkarrizketako ordena errespetatu gabe.

«Niri eman zidan amorrua, Donostiatik Zizurkilerako bidean –Arregiren omenaldira nentorren autoz– albistegi guztietan ‘arnasa eta bihotza gelditu izanaren ondorioz hil zela baieztatzen da’ entzun behar hark! Denok hiltzen gara arnasa eta bihotza geldituta, aizu, baina Joxe Arregi torturagatik hil zen, eta ofizialki betiko geratuko zen bestea!».

«Haserre nengoen oso. Eta herrira heldu nintzenean, senideak erabat beldurtuta zeudela ikusi nuen. Hura ezkutuan pasatzen uztea izugarria iruditzen zitzaidan».

«Burutzioa izan zen, izan ere, hilkutxa ateratzea eta argazkiak egitea».

Lagun bati esan zion, Bixente Ameztouri. Hark etxea zeukan Villabonan, Zizurkil ondoan, ezagutzen zituen ingurua eta ingurukoak. Omenaldiko argazkiak ateratzera joan zen argazkilari batekin egin zuten tratua, gauean hilerrian elkartzeko. Ameztorein Villabonako etxera joan eta denbora egin zuten bertan, iluna heldu artean. «Jende gehienak artista gisa ezagutzen du Bixente. Normala, XX. mendean Euskal Herriak eman zuen artista handiena baitzen, Balerdirekin batera. Txoriburutzat ere izango dute batzuek, drogarekin arazoak izan zituelako eta. Pertsona osoa zen, bada, eta oso azkarra. Isilean eta ezeren truke lan asko egingako ezkertiarra eta abertzalea. Hau zuei kontatzeko arrazoi nagusia, hain zuzen ere, horixe da: hari omenaldia egitea. Hura hil zen, eta neu ere laster hilko naiz, gaitz larria daukadalako».

«Gorpua kutxatik errespetu handiz atera eta erantzi egin genuen argazkietarako. Jo eta ma geratu ginen han agertu zena ikusita koan. Beltzune haiek, hanka azpi haiek haragi bizitan! Lehertuta zegoen erabat. Aurpegiak ematen zuen ikara gutxien. Argazkiek ez dute erakusten izugarrikeria haren laurdena ere».

Izugarrikeria hura akordura ekarri, eta zer aipatuko Juan Kruz Unzurrunzagak, eta hanka azpiak, haragi bizitan. Bitxia. Ez ote da ikusten duenak inoiz ez ahazteko moduko irudi bat? Eta tartean Bixente Ameztoi zebilela jakinda, pentsatzekoa ote da beharbada Zumeta bera ere han izango zela? Eta bertan izan ez bazen, lehen eskuko informazioa izango zuela Bixente eta Juan Kruzen eskutik?

Zumetaren *Gernika*-ko oin azpi horiek Joxe Arregiren oin azpi erreak dira.

Gernika aipatzea, Joxe Arregiren oin azpi erreak ikustea da, eta entzutea hil aurretik lagunei esaten: «Oso latza izan da».

## Gernika, gatazkaren mina

Nazioarteko Egiaztatze Batzordeko bi kiderekin armagabetez prozesuari hasiera eman diola erakusteko argazkia atera behar badu, ulertzekoa da ETAk Picassoren *Guernica* aukeratu izana atzeko paretan jartzeko, nazioartean lortu nahi

duen oihartzunagatik, eta bere kausa Gernikarekin lotu nahi duelako. Baina koadroen esanahia ere aldatuz joaten denez, eta berez bonbardaketaren irudikapenik ez dagoenez koadroan bertan, beste hainbat kausaren ikur bilakatu da orduetik hona, eta aspaldi utzi zion gurea izateari. Beharbada, 1968an Carrero Blancoren aginduz New Yorketik

Zumetaren *Gernika*-ko  
oin azpi horiek  
Joxe Arregiren  
oin azpi erreak dira.  
Gernika aipatzea  
Joxe Arregiren oin azpi  
erreak aipatzea da

Espainiara eramaten saiatu zirenean, nahiz eta ordukoan Picassok ezetza eman. 1981eko irailean jaitsi zuten hegazkinetik, isilean, Pradora eramateko. Gauzak zer diren, Picassoren *Guernica* Espainiako trantsizioaren ikur bilakatu zen, «Azken erbesteratua» deitu zion prentsak, bukatu da trantsizioa, Espainia demokratikoaren ikur bilakatu zen, izen osoa esaten ausartzen ez garen Madrileko Reina Sofia Museo Nazionalean dago, hitzak ez dira xaloak, hitzak ez dira alferrik, Picassoren *Guernica*-k aspaldi utzi zion gurea izateari, osorik irakurri beharrekoa da Koldo Izagirreraren artikulu hau (*Argia*, 1997-06-15):

*Gernikaren zinezko suntsimendua*

Arbola zutik geratu zen. Ez zuten arbola suntsitu, inguru guztia suntsitu zuten haiek. Eta mundu zintzoak errazago irents ze-

zan arbolatarrak berak izan zirela suntsitzaille, arbolaren ondo-ko Junta Etxea ere zutik utzi zuten, eskuliburu eta entziklopedia guztietan euskal herritarrontzat sakratua omen zen hura, libreak omen gineneko tenplo zibila.

Mapa onak zeuzkaten Heinkel 111 eta Junker 52ko pilotuek. Euskaldunek nahi zuten askatasunaren ikurra salbatu zen hondamenditik. Faxismoari aurka egiten zion herriaren ikurra errespetatu zuen faxismoak. Espainia beltzenari gorrotagarriena zitzaion huraxe utzi zuten bizirik. Ez zen halabeharra, Gernikaren bonbaketa era planifikatuan egin zen: familia faxisten etxeekin batera, egun hartan itzal ematen ahal zuten paretak Junta Etxearenak ziren. Ez zioten su eman Arbolari. Ez zuten suntsitu, beste suntsimendu baterako behar zutelako. Espainiak behar gintuen.

Zinez suntsitu, berreraiki zigutenean suntsitu zuten Gernika: ez gintuzten utzi geure hondakin ketuen artean erdi hilik, ezin izan genuen zerotik berriro hasi, hegazkinen hondotik harginak igorri zizkiguten. Etsaiak hondatua, etsaiak jaso zigun. Erraustu zutena berriro ziguten ostera, erraustu gabe utzi zigutenarekin batera.

Gerraondo bat inposatu zitzaigun, beren legera baketu gintuzten, gure ikur nagusia eta guzti jaso ziguten ostera Gernika, amets egin ez genezan inoiz libre izan ginela, han bertan baikeneukan askatasunaren landarea. Arbola Santua eta guzti egin zigutenez, perbersoa izan zen berreraikuntza. Arbola hura ez zen jadanik sakratua. Arbola barkatua zen. Gure mitoa errespetatuz, mitorik gabe utzi gintuzten. Heriotzaren zigorraren duin ez litzatekeen kriminal mesprezatuaren antzera, gure mito apalak ez zuten behar adina indar izan etsaiak erraustu behar izan zezan.

Eta gure derrotaren protagonista gu ez ginela ohar gintezen baino lehen, koadro bat egin zuen hogeigarren mendeak eman duen artistarik iraultzaileenak. Man Rayk bere filmeari bezala, euskarazko izena ezarri zion, eta euskaldunok uste izan genuen gutaz ari zela. Man Rayk surrealismoa egin zuen sagarrekin, torlojuekin eta gure hizkuntzarekin. Picassok espainiartasuna egin zuen postkubismoz jantzitako gure suntsimenduarekin. Koadro hartan Espainiari berreskuratu zion Euskal Herria, koadro hark bilakatzen zuen gure hondamena Espainiaren patrimonio. Guk, ordea, buruz ikasi genuen, paretetan kopiatu, klandestinitatean inprimatu, marko garestitan ezarri, bulegotan eskegi, omenalditan oparitu, pirograbatuan errepikatu, harrian zizelkatu, paper matxen moldatu...

Francoren oposizioak esaten zigun nolakoa izan behar zuen gure arteak, eta guk sinetsi egin genuen unibertsaltasuna ematen

zigula: koloreztatu genion txori bat orratz moduan erabiltzeko, kendu genion zaldi burua irrintzi egin zezan, literaturaren iduri egin genuen paper bildua eusten duen eskua... eta oraindik orain kriseilua ezarri dugu gure presoen senideen erakundearen ikusgarri. Guk geuk ikonografia bat sortu izan ez bagenu bezala, edo gure artistek sortutakoa aintzakotzat hartzekoa ez balitz bezala. Harginen ondotik artistak eskaini dizkigu Espainiak. Heinkel 111 eta Junker 52en lanaren ondoren Heinkel 51ek metrailatu gintuzten ihes gindoazenok.

Esaten ahal dugu gure historia hurbilaren une larrietan batean gurea izan zela Picassoren koadroa. New Yorken zegoelarik, sobera unibertsalak zelarik, sartzen ahal ginen geu ere haren jabeen artean. Gure patrimonio moralaren zatia zen, nolabait ere. Baina Espainiak demokratikotasunaren estatusa lortu duen heinean gero eta ez-gureagoa bilakatu da. Espainiako espainiarrek Picasso maitatzeko eskubidea eskuratu dute.

Espanian daude espainiar guztiak egun, Espainiak ez du exiliorik. Berea dute oso orain inoiz apur bat gurea izan zen irudia. Eta menturaz utziko digute Bilbon erakuts dezagun aldi batez. Nora ez dakizunean, izuak zoratu zaituenean, bonbek eginiko zuloetan egiten duzu jauzi ustez eta babestuko zaituzten. Iduri luke Guernica ez dela Picassok Francori eginiko opari bat besterik.

Horrela jarraitzen du gure suntsimenduak.

Gehiegizkoa iruditzen zaizue? Datu xume bat, detaile txiki bat: Verak eta Barrionuevok Picassoren *Guernica*-ren erreplika bat margotu zuten Guadalajarako kartzelako patioan.

Irudiek ez dute berez ezer esaten, guk nahi duguna besterik.

Horregatik jarri zuen *Gara* egunkariak Zumetaren *Gernika* 2011ko urriaren 21eko azalean, 'Un nuevo tiempo para Euskal Herria' goiburuen azpian. Baina zer gertatuko zen, zer emango ziguten aditzera, zer ulertuko genuen, Zumetaren *Gernika* koadroaren ordeztu Ibon Aranberriren *Nova era* lana jarri izan balute? Edo gaiz eta irudiz batere aldatu gabe, Frankfurtoko Manifestarako egin zuen *G-Pabilioia* lanaren argazki bat jarri balute azalean?


2002koa da *G-Pabilioia*; irakurria ote zuen Ibon Aranberririk Koldo Izagirrearen artikulua?

*No Trees Damaged* katalogoan testu labur hau dator, artistak berak idatzia:

*G-Pabilioia*. Joan den mendeko nazioarteko erakusketa handietan herrialde aurreratuek norbere pabiloia izaten zuten. Nabarmen gelditzen zen bakoitzaren jatorria eta berezko nortasuna zein zen. Hortik dator eraikuntza honen asmoa, agerpen postmoderno batetan lekua markatzearen huskeriaz. Azaleko egitura bat indargabetutako margo batentzat, tamainu naturalean, modernitate zaharkituaren estiloan. Behin Mies van der Rohe arkitektoak Guernicaren kromoa erabili zuen bere ereduaren zirriborroak girotzeko. Guk uste genuen Guernica herri-folkloretik zetorrela, aldarrikapen ikur bat besterik ez zela etxeko sarreraren dekorazio bihurtua. Kaleko hormetan ere margotzen zen, esloganen ondoan. Gero garbitu egin zituzten hormak. Baina atzerrian beste modu batean da ezaguna, historiaren garrantzitik begiratzen zaio.

Katalogo berean, Lars Bang Larsen arte teoriko eta komisarioak hauxe dio (nahi duenak errepara dezala itzulpenaren kaxkarrean):

Picassoren *Guernicarekin* ez da jolasten. Euskal Herrian bereziki. Egin-eginean, hemen, faxista altxatuek hiria 1937an hondatzea ez da Errepublikarekiko erasoaren une jakin bat bezala bakarrik ikusten, baita, batzuetan, euskal herriaren gaineko zapalkuntza zentralistaren beste adibide bat bezala ere. Mundu ia guztiarentzat bakezaletasuna adierazten duen koadroa euskal abertzaletzat protesta-ikonoa da, kaleko pintadetan eta egongeletan kopiatuta agertu ahal dena. Manifesta bienalaren 2002ko ediziorako, Aranberrik Frankfurtoko egoitza-zonan nazioarteko estiloa pabiloia eragin zuen. Bertan Guernica hogeigarren mendeko munduko erakusketa bateko pieza balitz bezala aurkeztu zen. Lana, G-Pavilion, beltz koloreko metalezko egitura sinplea zen, Mies van der Roheren erako aire razionalistakoa, zenbait diseinatzailerik erraztua zuten Guernicaren bertsio 'remixed' bat gehiago. Pabiloia laster sartu zen Alemaniako udako hiri-inguru atseginetan, eta egoiliarrek aldia emateko leku itzalez estaliaren modura erabili zuten azkenean, hondoan Espainiako gerra zibileko izugarrikeriak dituen leku bezala.

Indargabetutako margo bat, armagabetze prozesu baten hondoan. 

# Noiz arte jarraituko du dantzak?

Nora Aurrekoetxea

Laura Ruiz

*Artistak*

## Play

Gitarra hotsa, saxo suabe bat, bateria lausoa, eta, gizon baten ahotsaz lagundurik, *noiz arte jarraituko du dantzak?* galdetzen zuen Hertzainak taldearen *Si vis pacem para bellum* abesti mitikoak. «Si vis pacem para bellum, noiz arte jarraituko du dantzak? Si vis pacem...». Sarri entzuten genuen taldea, eta, musikaren eskutik, munduaz eztabaidatzen genuen. Luzaroan pentsatu beharrekoa: bakea nahi baduzu, presta ezazu guda.

Egunero erositako egunkariko azalean azaltzen zen argazkian, baserria zuri beltzean ageri zen. Harrizko eraikin handi hura, mendi eta landa zabalaren artean. Atarian pare bat 4x4, eta, txiki-txikian, antzematen ziren beltzez jantzitako lauz-pabost pertsona.

Gure herri tradizioaren ikur, sinbolo eta totem den baserria irudi bukolikotzat hartu genuen titularra irakurri aurretik: «ETAk 850 kilo lehergai gordeak zituen Legorretako baserri batean» (*Diario de Navarra*, 2011-04-14).

Horrelako irudien errepresentazioak ohikoak izan dira, urtetan, komunikabideetan.

Artxibo polizial eta periodistikoetatik eratorritako irudi horiek egia borobil gisa agertu zaizkigu. Estetika jakin bati



Noiz arte jarraituko du dantzak?

jarraiki, irudien narrazio bat eraiki zaigu gure barnean. Baina irudiek, bere hutsean, esanahi asko bil ditzakete, eta hainbat interpretaziori zabalik daude. Hori ekiditeko, irudiei itsatsita, titularra datorrigu: goiburuak irudien interpretazioak mugatu eta murrizten dituzten tresnak dira.

Egunkariko argazki bat, goiburu barik, bere kontestutik kanpo geratzen da, eta esanahi zehatza galtzen du. Argazkia biluzik, argazkia huts, edozein esanahi berri jasotzeko aske gelditzen da.

Nola berrerabil ditzakegu, eremu artistikotik, komunikabideek erabilitako estrategia, irudi, estetika, narrazio eta tresnak beste diskurtso bat garatzeko?

Horixe aztertzen hasi ginen *Be.arr* proiektua abiarazi genuenean. Euskal Herriko gatazka politikoaren iruditegian sakondu nahi genuen. Horretarako lurralde-paisaia abiapuntutzat hartu genuen, eta konkretuki mugarri eta totem bihurtutako zuloak, pentsatzen genuelako beroriek izan zitezkeela 'errealitatearen' diskurtso hegemonikoa kolokan jar zezaketenak. *Zulo*. Zuloa. *Zuloa* gatazkak nazioartera esportaturiko hitz eta konstrukto ezagun eta eraginkorrena izango da, ziurrenik, komunikabideek literarioki zein grafikoki bortxaturiko objektua.

Bere garaian diskurtso politiko, polizial eta periodistikoaren egunkarien azaletan agertutako eszenatokiak ahazturiko leku bihurtzen dira berehala. Edozein toki izan zitezkeen, edozein, edo bat bera ere ez. Zuloak lurralde-paisaia dauden akzidente geografikoak dira, edo propio hustutako hutsuneak, denboraren poderioz estaliz, itxiz, desagertuz doazenak, zauri baten gisara. Gatazka politikoak utzitako arrastoak dira, aztarnak, zauriak. Ahantzuraren geratutako eszenatoki horietan kokatu genuen gure proiektua, memoria historikoaren eszenatoki eta erreferentetzat hartu ditugulako. Komunikabideetan agertutako informazioa jaso eta zulo horien bila aritu ginen Euskal Herriko bazterretan, eszenatoki horien argazki sail bat osatuz.

2013an, Getxoarte topaketan, proiektua lehen aldiz erakusteko aukera izan genuen, eta, behin eta berriz, galdera bera

errepikatzen ziguten: «Baina... benetakoak al dira?». Alegia, guk argazkitan hartutako zulo horiek egunkarietako azaletan agertutako zulo berak al ziren. Errealak ote ziren.

Orduan jakin genuen: garaipen bat izan zen. Zuloaren argazkia kontestutik ateratzea lortzen zen, diskurtso fotografikoa bera kolokan jarritz. Zalantzak zera uzten du argitan: begiradak eta kontestu eraikiak zulo bera esanahi desberdinez janzten duela.

Badirudi gatazken argazkiek 'errealistak' izan behar dutela, dokumentalak, errealitateari fidelak, eta, arte mundura pasatuz gero, manipulazioa agerian geratzen dela. Baina ez al da argazkia bera manipulazio bat? Irudia = Egia?

Irudi fotografikoa, arrasto bat den heinean (eta ez hainbat arrasto fotografikorekin egindako eraikuntza bat), ezin da gertatutakoaren transparentzia hutsa izan. Beti da inork aukeratu zuen irudia; argazkia ateratzea enkoadratzea da, eta enkoadratzea kanpoan uztea. Gainera, argazkiaren manipulazioa aro digitala eta photoshoparen trikimailuak iritsi baino lehenagokoa da: beti izan da posible argazki batek gauzak desitxuratzea. [...]

[...] Suposatzen da argazki batek ez duela iradokitzen, agertu baizik (Susan Sontag: *Regarding the Pain of Others*, 2003).

Gatazkaren inguruan sorturiko irudiak sekuentzia gisa josiz joan dira denboran zehar, horrek iruditegi propio bat, eta, horrenbestez, iruditegi kolektibo bat sortuz. Erantzun zaila izan arren, halabeharrez, gure buruari galdetu beharrekoa: iruditeria kolektiboak subjektuak eraikitzen baldin baditu, identitateak zizelkatu...

Nola irudikatua izan da euskal gatazka? Zer eragin izan du urteetan sorturiko eta heredaturiko iruditegi kolektibo horrek euskal subjektuetan?

Iruditeria kolektiboa Edgar Morin soziologoak, 60ko hamarkadan, sortu eta finkatutako kontzeptua da. Iruditeria kolektiboa jendarteak duen 'buru' konpartitu bezala funtzionatzen duten mito, tipo, arrazoi eta sinbolo multzoa da. 'Buru' kolektibo hori, bai bere dimentsio errealean, eta baita bere irudimenezko dimentsioan ere, modu ia erlijiosoan sartzen

Noiz arte jarraituko du dantzak?

da norbanakoarengan, zalantza izpirik gabe onartzen da, amen eginez. 'Buru' hori komunikabideez, kontsumo produktuez eta pertsona mediatikoen hitz eta pentsamenduez elikatzen da, eta, arketipo modura, maitasuna, denbora, gazteria, heriotza eta gisako gai unibertsalak esanahiz janzen ditu.

Iruditeria kolektiboari jarraikiz, euskal gatazkaren inguruan sortutako iruditegi eta iruditeria horretan zentratuz, berori elikatu duten hainbat elementu-instituzio topa ditza-kegu, horietariko bakoitza estetika, ideologia eta helburu zehatz bati loturik daudenak, hain zuzen ere: artxibo polizial eta periodistikoak, komunikabide mota guztiak, mugimendu sozialak, alderdi politikoak, mugimendu kulturalak eta bes-telakoak ditugu, nor bere iruditegia eta iruditeria elikatzen.

Esaterako, hortxe dugu euskal preso politikoaren errepre-sentaziorako erabilitako irudien auzia. Kameraren botoia sa-

katu duenaren arabera, pertsona beraren irudi guztiz ezberdinak aurki ditzakegu, eta ondorioz narrazio ezberdinak. Pentsa dezagun presoaren kolektiboan, seni-tartekoek edo artxibo polizialek erabiltzen dituzten argazkien estetikan: ama batek mesanotxean duen alabaren irudia, Herriko Tabernako auzokidearen argazkia eta egunkarietan agertutako atxilotutakoaren argazki poliziala. Pertsona bera, irudi desberdina, eta esanahi desberdina, eta

Artxibo polizial  
eta periodistikoak,  
komunikabideak,  
mugimendu sozialak,  
alderdi politikoak,  
mugimendu  
kulturalak... ditugu,  
nor bere iruditegia eta  
iruditeria elikatzen

narrazio, eta estetika, eta iruditegi, eta iruditeria kolektibo... desberdinak.

Castoriadis filosofoaren arabera, iruditegi hori guztia subjektuengana oinordetzan iristen da, heredatu egiten da, eta pentsamendu modura funtzionatzen du. Pentsamendu horrek jendartean egitura tinkoak sortzen ditu, aldaezinak ia, emanak baitatoz, geneak bailiran, inkontzientean gorderik,

eta, ondorioz, ezbaian jarri ezinezkoak bihurtzen dira. Egitura hori interpelatzen edo zalantzan jartzen duen edozer edo edonor norbanakoaren eta jendartearen identitatea arriskuan jar dezakeen mehatxu gisa ulertzen da.

Castoriadis-en aburuz, iruditeria kolektiboa existitzen den modu berean –ezarritakoa–, iruditeria soziala ere existitzen da, eta hori ezartzailea da.

Iruditeria soziala norbanakoak eta jendarteak errealitatea irakurtzeko, interpretatzeko eta eraikitzeko duen ahalmenaz ari da, alegia, oinordetzan jasotako pentsamendua eta iruditeria kolektiboa kolokan jar dezakeenaz. Jendartean murgildutako subjektu bakoitzaren etengabeko sortze lana da, askatasunez eraldatzen dena eta inguratzen duen munda eralda dezakeena.

Har ditzagun adibide gisa XX. mendean zehar emakumeek egindako errebindikazioak: sufragista ingelesen borroka, edo berdintasun laborala lortzeko borroka, besteak beste. Horiek guztiek eragin zuzena izan zuten familia eremuan, hezkuntzan eta politikan, gizon zein emakumeen egunerokotasuneko bizitzan, eta iruditeria kolektiboa eta soziala aldatu zuten.

### **‘Kon-post-a’**

Subjektuak bere ingurua eraldatzeko eta, ondorioz, bere errealitatea ulertzeko bestelako erak sortu ahal baldin baditu, gaur eta hemen, bizi dugun egoera honetan, zer gertatzen da? Zer gerta liteke?

Euskal Herriko gatazka ez da iraganeko kontua. Urtetan izandako jazarpen etengabeak euskal subjektuengan eragin zuzena izan du, bai identitateen eraikuntzan, bai mundu ikuskeran, eta baita sorturiko iruditerian ere. Erakunde armatuaren behin-behineko su etenaren ondoren, ordea, ez dira garai beltzak zurira etorri, iluntasunetik ez da argira pasa.

Hala ere, gertaera horrek hainbat belaunalditan, ‘pre’ eta ‘post’, muga argi bat markatu du, eta euskal identitateetan krisi sakona eragin du. Urtetan ezarritako moldeak zentzua

Noiz arte jarraituko du dantzak?

galtzen ari ote dira? Baliagarriak al dira jada? Zeri eutsi? Zer kolore du iraultzak, erresistentziak, paradigma aldaketa bat gertatzen denean? Edo, hobe esanda, gertatu ez denean?

Mundu zaharra hiltzen ari da, berria ezin da jaio, eta ilunbe horretan munstroak sortzen dira (Antonio Gramsci).

Lurralde eta iruditegi lokal batetik abiatzen baldin bagara, su etenaren osteko Euskal Herriko kontestutik hain zuzen ere, edozein lurraldetako gatazka politiko globaletan baliagarriak izan daitezkeen elementuak aurki ditzakegu, tokian tokiko berezitasunekin beti ere. Gatazka gune horietan sortzen diren borroka-erresistentzia molde sozialak aztertzen baditugu, ekintzetatik eratorritako gorputz mugimenduak, objektuak, leloak, egoerak... totem eta sinbolo bilakatu direla ondoriozta daiteke, arrasto, aztarna, hondakin tratamendua emanez.

Artxibo polizial eta periodistikoetatik eta mugimendu sozialetatik sorturiko iruditegia abiapuntutzat hartzen badugu, kartelgintza, pegatinak, pintadak, egunkarietako irudiak..., alegia, guztion iruditegiaren parte diren irudiak aztertu eta berrinterpretatuz, elkarren artean komunikazioa duten elementuak sortuz, kolokan jarriko ditugu, eta eztabaidarako gune bat eskaini daiteke, gatazken inguruko iruditegia eta iruditeria zabaltzeko, Castoriadis-en iruditeria soziala sortu ahal izateko.

Iraganeko garai bati lotutako iruditegia izanda ere, gaurko elementuekin elkarbizitzan daude. Hortxe ditugu, esaterako, garai bateko paisaia urbanoan integratuta geratu diren paretetako margoketa eta pintaden arrastoak.

Zer gertatzen da iraganean baliagarriak eta legitimatuak ziren elementu solido horiek trantsizio eta prozesu garaietan desagertu, deseraiki edo gaur egungo garai likidoetan urtu direnean?

Zygmunt Bauman soziologoaren ustetan, garai likidoak bizi ditugu, arintasuna, bat-batekotasuna, etengabeko aldaketa, osatu gabeko ideiak, izaera ezegonkorrak, egoera aldakorrak

eta ziurgabetasuna dira ezaugarri nagusi. Eta horiek erreferente finkoak eta egitura sozial solidoak desegin dituzte. Ezerk ez du irauten, ezer ez da errotzen. Ia-ia konturatu barik, hainbat galera izan ditugu, pentsamenduari eta memoriari errenuntzia egin dio-gu. Ahazte hutsa garaipenaren ordaingarri gisa agertzen da.

Aldaketa-galera horiek oso nabariak dira borroka armatuaren etenaren ondorioz euskal jendartean sorturiko noraezean. Pre eta Post baten aurrean al gaude? Euskal Herri likidoa al da gurea? Edo bi munduren, solido eta likidoaren arteko elkarbizitzari buruz ari gara?

Gramscik esan bezala, mundu zaharra desagerturik edo desagertzeko dagoenean, eta berria heltzear dagoenean, baina oraindik iritsi ez denean, munstroak ageri dira. Gris ilunez paradigma aldaketa bat gertatzen da, nahastura, eboluzio, mestizaje, eraldaketa eta mutazio ikusezinak.

Testuinguru honetan, memoriaren gotortasunaren eta uneak duen hauskortasunaren arteko elkarrizketa bat dago. Ikusi ezin edo ikusi nahi ez dena erakustean datza gako, begiratu eta enfokatu nahi dugun horretan dago auzia. Ausentziaren presentziaz ari gara. Ez erantzunak bilatzeko, galdera berriekin topo egiteko baizik. Gure ekite artistikoan ez ditugu erantzunak topatzen, ez gara antropologoak, ez filosofoak, ez politikariak. Gure zeregina iruditeria sozialaren garapenean kokatzen dugu, galderak eginez, interpelatu, irudimenari erremintak emanaz.

Konpostaren prozesuan gertatzen den bezala, zaborretik, arrastotik, hondakinetik ongarria lortzen da, lurraren zauriak sendatzeko osagaia.

Memoriaren  
gotortasunaren eta uneak  
duen hauskortasunaren  
arteko elkarrizketa bat  
dago. Ikusi ezin edo ikusi  
nahi ez dena erakustean  
datza gako, begiratu  
eta enfokatu nahi dugun  
horretan dago auzia

Noiz arte jarraituko du dantzak?

## «Artista tranpatia da, tranpa egilea» (J. Oteiza)

Sorkuntzari funtsezko zaiona ez da 'aurkikuntza', berriaren eraketa baizik, arteak ez du aurkitzen, eratu egiten du; eta 'errealarekin' eratzen duen erlazioa, egiaztapen erlazioa. Eta hemen gure interes nagusia den gizarte esparruan, erakunde berri eta bizimolde berrien agerpena ere ez da 'aurkikuntza' bat, eraketa aktibo bat da (Cornelius Castoriadis: *L'institution imaginaire de la société*, 1975).

Ezarritako jendarte baten aurrean, sormenak bestelako jendarte bat ezartzeko ahalmena duela pentsa daiteke, alegia, ezarritako egituretatik at beste norbanako batzuk, beste ideia edo beste zerbait sor ditzakeela. Txomin Badiolak dio arteak funtzio sozial urgentea duela, eta funtzio hori errealitateari adi eta esna dauden herritarrak sortzea dela. Arteak galderak egitea eskatzen du, errealitatea beste modu batean ikusten laguntzen gaitu, errealitateari buruz susmatzera behartuz.

Horregatik, errealitatearen irakurketa bat baino gehiago onartzen ez diren egoeretan, euskal gatazkaren gaineko informazio bisualaren kasuan, esaterako, arteak bide berriak zabaltzen ditu, diskurtso fotografiko hegemonikoa, iruditegia eta iruditeria bera zalantzan jar ditzakeelako.

Xedea hauxe da, publikoak itxaroten duena haustea eta onartutako konbentzioak birplanteatzera behartzea. Ondorio dekonstruktibo bat bilatzen dute.

Ikus-entzunezko ekoizpenez betetako mundu honetan, beharrezkoak dira ezarritako kodeak gaindituko dituzten eta abordatze berriak ahalbidetuko dituzten piezak. Obraren anbiguitasunean, bere esanahi-aniztasunerako ahalmenean datza bere askatasun gonbitak (Txomin Badiola Jon Mikel Eubarekin elkarriketan, in Askoren artean: *Cruce de caminos. Sobre el arte y la fotografía*, 2006).

Objektu edo akzio estetiko-formalen sortzaile hutsak izatetik haratago doa artistaren zeregina. Sormen kolektiboa eta truke kulturala garapen eta eraldaketaren oinarri bihurtzeko artistek, akzio-erreflexio guneak sortuz, eta ikerketa, dokumentazio eta interbentzioen arteko nahasketa hori prozesu sortzaileen laborategia bihurtzen baita.

Artista herritarra da, eta gatazketan parte hartze zuzena du; beraz, eraldatze-erakitze prozesuan zeresana eta zeregina duela esan dezakegu. Jarrera politikoa izango luke, hortaz, baldin eta politikotzat hartzen badugu artistaren ikuspegi kontestu sozial eta historikoak lekuko gisa plazaratzea. Horrela, elkarrizketarako bide ezberdinak zabaltzen dira, hausnarketarako, kritikarako, eraikitzeko eta deseraikitzeko.

Artistak zalantzak mahai gaineratzen ditu, galderak, esanahi itxietatik alde egiten du eta, gurean, gatazkaren inguruko bestelako eszenatokiak agerrarazten ditu.

Txomin Badiolak Gure Artea saria jaso ostean egindako elkarrizketa batean honako hau aipatzen zuen:

Artelan bat amaitu gabeko zerbait baldin bada, horrek esanahi bati loturik ez dagoela adierazten du, beraz, ez dago ezer ulertu beharrik. Artelanak bizirik daude eta interpelatzen zaituzte. Gure garaiko artistek kontu honetan dimentsio politiko bat badagoela errebindikatzen dugu; ikusleari jarrera aktibo bat eskatzen zaio eta jasotako esperientzia hori baliagarria izan daiteke bere eguneroko bizitzan. Nahiz eta politika bezain zuzena ez izan, bestelako interbentzio batez gabiltza. Artean mikroaldaketak bilatzen dira; horregatik esaten da pertsona bat aldatzen denean bere ingurukoa ere aldatzen dela. Beraz, arteak ulergarria izan behar duelako planteamendua okerra da. Artearen funtzioa ez baita informatzea, ez behintzat eginkizun nagusi gisa, komunikatzea baizik, bi ente edo gehiago kontaktuan jarritz. Artea ez dago informazioaren menpean, norbaitek informatzen zaituztenean aginduak ematen ari baita, eta artearen zeregina agintzetik urrun kokatzen da. Komunikazioa bilatzeko ez dugu esanahien beharrik. Komunikatzeak duen onuretariko bat gaizki ulertzeetan oinarriturik dagoela baita; nik diodana ez baita esan nahi dudanaren fragmentu bat besterik, eta besteak nik esandako portzio hori interpretatzen du bere ikuspegitik, gaizki ulertzeak sortuz.

Komunikabideetan ez bezala, komunikazio-inkomunikazio horretan datza artistaren autonomia eta ikuslearen jarrera aktiboa. Instituzio hegemonikoetatik haratago, mundu ikuskerak independente bat sor daiteke, errepresentazio berriak sortzeko gaitasunari eusteko edota, Oteizak zioen moduan, tranpak egiten jarraitzeko.



Noiz arte jarraituko du dantzak?

Agian dantzak noiz arte iraungo duen ez du horrenbesteko garrantzirik, abestia alda daitekeen bitartean galdera berrien bila jarraituko dugu-eta. 🐼.

# Musikak gatazka islatu edota performatu, gatazkak musika ito

Josu Larrinaga

*UPV/EHUko Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia saileko irakaslea*

**Musika popularra inoiz ez da egon, ezta egongo ere, gatazka sozialen erdigunean. Soilik aurreikusi egiten ditu, edo horien isla izaten da. Eragin politiko txikia, edo ezdeusa, dauka.**

Víctor Lenore musika-kritikari madrildarrak idatzi ziotuen hitz horiek, 2012an argitaratu zen liburu batean.

Gure ustez, ostera ere, euskal pop musikak gure lurraldean gertatu diren zenbait aldaketa sozial batzuetan islatu eta beste batzuetan performatu, aurreikusi, erraztu, bideratu, moldatu egin ditu: hori bai –Lenorek asmatzen du horretan ere–, beti kontu txiki eta azalekotzat joa izan da, bakarrik gaztetxo eta ez hain gaztetxo kaskarinen arreta merezi izan du. Horregatik, zuzenak izate aldera, onartu behar da aldizkari honek eskatutakoa, ‘gatazka armatua’ deritzoguna eta euskal pop musika –hau da, musika modernoa, ezin gara hemen definiziotan luzatu– uztartuz gure analisia plazaratzea, ausarta dela. Ea ba.

Nolanahi ere, kontu horri arreta jartzen diogunok pentsatzen dugu fenomeno horrek gure historia hurbila kontatzeko, azaltzeko eta ulertzeko balio dezakeela, beste horrenbeste fenomenok eta gertaerak bezala; eta, azken finean, gaur egun, hemen aztergai dugun aroaren inguruko kontakizuna egin

behar dela aldarrikatzen denean –nork berea eraiki eta, kasu askotan, ezarri nahi duela–, zilegi izan beharko luke honako kontu azaleko eta txikiei erreparatzen diegun kaskarinok gure bertsioa eskaintzea, ez soilik horrenbeste sufrikario eta minen artean ondo pasatzeko eta kultura berria sortzeko ahalegin zintzo eta apalak egon direlako, fenomeno horretan inplikata egon direnek ere mina eta nekea ezagutu dutelako baizik.

Gure hipotesi nagusia zera da: kontrakulturala den (edo izan den) musika mota berri bat txertatzen dela Euskal Herrian euskal kultura tradizionala –eta une historiko horretan oso egoera subordinatuan, menperatuan– berrosatzen ari den fase historiko batean; abertzaletasun berriak, momentu horretan sortzen ari dena, kontrakultura global horren osagai asko hartzen duela, eta musikan euskal kantagintza berriarekin hasi eta euskal punkarekin jarraitzen duen aldaketa prozesu oso interesgarria gertatzen dela, azken urteotan, nolabait, kemena eta bultzada galtzen duen arte. Prozesu konplexu horri guk etnogenesi kontrakulturala deitu diogu –eta beste idazki batean luze eta zabal azaldu, hemen laburpena egingo dugu–, eta horren erdian ere kokatzen da gatazka armatuaren kontua. Eta, noski, bat gatoz Juan Aranzadi antropologo santurtziarrarekin: zerbaiten alde edo kontra, pertsonak hiltzen direnean edo dituztenean, beste guztia bigarren mailan geratzen da.

Gure ustez, euskal pop musika eta euskal gatazka armatua etnogenesi kontrakultural horren ardatzak edota erpinak dira, bakoitza bere mailan, bere eskalan eta berezko ikuspegitik aztertuak izan behar dutela; ez gaude fribolizatzeke tenorean, ez. Baina erpin edo prozesu horiek elkarren arteko eztabaidan jartzen baditugu –hemen egin nahi duguna horixe da–, ondorio interesgarriak kausitzen dira.

## **Etnogenesi kontrakulturala**

Etnogenesi kontzeptua erabiltzen da zientzia sozialetan etnizitate, identitate etniko edota nazional baten sorrera edo

birsorrera, birdefinizioa azkenean, azaltzeko. Kontrakultura, berriz, kontzeptu eztabaidatua da egun, baina ezaguna egin zen Theodore Roszak historialari iparramerikarrak 1969an *The Making of a Counter Culture* liburua argitaratu zue-

netik, horrako izena merezi zuen mugimendu baten partaidearen ikuspegitik idatzia; liburuak, aldi berean, fenomeno horren jaiotza zertifikatzen du eta bere ildo nagusiak markatzen ditu, beti ere idazlearen ikuspuntutik. Arrighi, Hopkins eta Wallerstein soziologoek azpimarratzen du-

te mugimendu hori izan zela aldi berean kapitalismoaren kontrako eta ezker tradizionalak –bai sozialdemokraziak, bai komunismoak– lorturikoaren aurkako iraultza, autoritarismoaren eta hierarkiaren kontrako errebelioa; bestalde, Bourdieu-ren estela intelektualean, Boltanski eta Chiapello soziologo frantziarrek planteatzen dute 1960ko hamarkadako mugimendua kapitalismoak eragiten duen gizarte-alienazioaren kontrako kritika dela –eurek «artista-kritika» deritzotena, «langile-kritika» deritzotenari kontrajartzeko; azken horrek batez ere produkzioaren baldintza fisiko eta ekonomikoak edukiko lituzke helburutzat–, eta azken hamarkadetan gure gizarteek izandako aldaketa handien iturritzat hartzen dute.

Fenomeno historiko moduan, 1960ko hamarkadatik aurrera kontrakultura existitu zela ez du ia inork eztabaidatzen. Batzuentzat, hamar urteko fenomeno izan da, kontsumismoa eta orduko masa kultura, gaur pop kultura esaten dioguna bilakatuta, finkatu duen gertaera epidermikoak; beste batzuentzat, berriz, kultur aldaketa handia izan da –batez ere harreman sexu-afektiboen definizioan, naturarekiko begiradan, estatuaren autoritatearen aurreko jarreretan–, mentalitate kolektiboak aldatu dituen. Kultur errepresentazio publikoen eta norberaren barnekoen etengabeko fluxuetan

Fenomeno historiko moduan, 1960ko hamarkadatik aurrera kontrakultura existitu zela ez du ia inork eztabaidatzen

txertatu den elementua, bai, behintzat, eragin handia eduki duena. Beste ikuspegi batetik –nazionalismoen ikerketa alderatua–, Anthony D. Smith-ek planteatzen duenak ere balio du momentu hori azaltzeko: etnizitateen berragerpen oro-kortua gertatzen da Mendebalde osoan: Quebec, Flandria, Okzitania, Eskozia, Katalunia... eta Euskal Herria. Beraz, Euskal Herrian 1960ko hamarkadatik aurrera gertatzen den etnogenesia kontrakulturala da, kontrakultura globalaren olatua surfeatzen du, euskal erara, agudo esatearren.

1968 izan zen aldaketa kontrakulturalaren epizentroa. Autoritate oro kolokan jartzea –estatuarena, alderdiarena, patriarkarena, maisuarena...–, horixe da, zalantzarik gabe, mugimendu kontrakulturalaren ezaugarri nagusia. Eta zein da hori aldarrikatzen duen agente politikoa? Gazteria da garai horretan agertzen den fenomeno berria, eta laster bilakatzen da agente politiko. Alde batetik, demografia kontu hutsa izan daiteke: *baby boom* aroa da eta gazte asko dago. Baina, horretaz gain, gazte izatea gero eta gehiago iraungo duen estatusa bilakatzen da: «gazte gera gazte, ta ez gaude conforme», Lourdes Iriondok kantatu zuenez. Argi dago 1960ko hamarkadako kontrakulturak bere baitan sustatu zituela bortxa iraultzailea defendatzen zuten taldeak. Eta hori dena 1968an fokalizatu daiteke, hortxe dugu etnogenesi kontrakulturala, gori-gorian.

1968an Euskal Herriko idazle eta intelektual gazteek euskararen batasunari ekiten diote, baina gertaera bortitzek markatuko dituzte hori eta hurrengo urteak. Sekuentzia ezaguna da, ekainean Txabi Etxebarrietak Pardines guardia zibila hiltzen du errepide kontrol batean eta ordu batzuk beranduago guardia zibilek hiltzen dute Etxebarrieta, abuztuan ETAko komando batek Melitón Manzanos polizia hiltzen du Irunen, halako ekintzak egiteko deliberoan abiatu ondoren. ETaren bigarren belaunaldia da, eta, bi urte beranduago, 1970ean, atxilotuak izan eta gero, aktibista horien kontrako epaiketa militarrek, Burgosen, markatuko du Euskal Herriaren historia hurbila eta neurri handi batean European eta munduan horri guztiari buruz egonkortzen den ikuspegia.

Epaiketa gertatu bitartean Euskal Herrian zabaltzen den mobilizazio oldeak eta Europan zehar osatzen den elkartasunak markatu dute, esan bezala, nazionalismo berriaren agerpena eta, neurri batean, bere presentzia hegemonikoa, nahiz eta klandestinoan izan, euskal gizartean barna.

## **Etnogenesi kontrakulturalaren musika**

Irrintzi bat entzun dugu / ezpataren aurrean / oskorria zabaltzen da / euskaldunen lurreen. // Zeru horren pean jaso / behar dugu herria, / begien aurrean baitu / etorkizun berria. / Hara bihoa fedean / eta borondatean / bertan irauan dezan beti / egiazko bakean.

Bertsoak Gabriel Aresti poeta bilbotarrak idatzi zituen eta Oskorri taldeak musikatu zituen. Kanta urte batzuk beranduago grabatu eta argitaratu zen, baina jadanik 1970-71n interpretatzen zuten Burgosko prozesuari buruzko antzerki-lan nahiko klandestinoan. Hasieran epaiketako azken egunean gertatutakotik –irrintzia ezpataren aurrean– Euskal Herri berriaren aldarrikapenera pasatzen bada, hurrengo ahapaldietan etnogenesiaren definizioaren balizko manifestua topa daiteke:

Bake hortan euskal haurrak / jaio behar dirade / etorkizunaren beldur / izan ditezen gabe. / Berdin izango dituzte / eskubide osoak, / kontuan eduki gabe / zein diren gurasoak. // Andre-gizonak elkarri / loturik dirauteke / haien artean bat ere / katerik egon gabe. / Lokarriak irauango du / maitasunak bezainbat / ezkontza ez da izango / ikusgarri ezain bat. // Ondasunak gertatzeko / tresnak ez dira jaunen / eskuetan gozatzeko / goxokiak izanen, / ondasunaren jabetza / izango da publiko / gizona ez da lan bila / eskean ibiliko. // Fabrikak izango dira / euskal langileenak / eta solo-pinudiak / nekazariarenak, / itsasontziak izango / dira marinelenak, / euskararen harmoniak / sozial poetenak. // Eta orduan / orain hasi den borroka luze honetan / nork bere lekua / kontzienteki eta erresponsableki / hartu ondoren, / oferta eta demandaren erreinua / abolituko dugunean, / gizonak ez dira / langosta plato batengatik / salduko / andreak ez dira / ez gau baterako eta ez gau guztietarako / erosiko. // Euskal Herrian ez da / klase sozialik / izango / eta euskaldunak / zoriontsuagoak / izango / gara.

Kanta luzea da, bi sekzio musikal diferente dauzka –lehenengo ereserki azeleratu samarra da eta *in crescendo* doa, eta bigarrena lasaiagoa eta deklaratioagoa da–, folk kanten estiloan konposatutakoa da eta letra erabat argia da. Baina, esan bezala, *Oskorri* kanta zati bat beranduago ezagutu zen –Bilboko giro jakin batzuetan ez bada, orduan ere ez luke aukera handirik zentsurak baimendua izateko–. Hala edo hola euskal musika kontrakulturalaren bidea Ez Dok Amairu taldearekin hasia zen 1966. urtearen bueltan (aurretik beste aitzindari batzuk daudela, Laberie eta beste). Baina Iriondok, Letek, Lertxundik, Laboak eta enparauek ez dute asko landuko gatazka armatuaren gaia euren kantuetan; orduan ezin, baina gero ere ez dute aipu zuzen/zehatz askorik egingo. Bai, ordea, horien itzalean Donostia aldean agertu den beste kantautore batek, Imanol Lartabalek. Imanolek –horixe izan zen bere izen artistikoa– bigarren EPA, jadanik bere aktibismoagatik Donostiatik alde eginda eta Bordelen errefuxiatuta zegoela, Parisen grabatu zuen Paco Ibañez orduan abeslari ezagunaren laguntzaz, eta autoeditatu zuen. Bertan, *Txabi Etxebarrieta* izeneko kanta, izen bereko ETAkideari eskainia, geroago oso

ezaguna eta kantatua bilakatuko zen abestia, martirioaren ideia-  
ren inguruan eraikia.

Pedro Alberdi idazle eibartarrak etnogenesiaren urte horietako euskal giro kulturala islatzeko idatzi duen saiakera narratibo gogoangarriaren izenburua, *Satorrak baino lurperago*, oso adierazgarria da, erakusten du zein zen orduko giroa eta nola sentitzen ziren protagonistak: oso lurpean zegoen errealitate isildua eta ukatua, garaiko giro kultural

eta politiko ofizialarekin inongo zerikusirik ez zuena, alegia. Baina hurrengo urteotan, etnogenesiaren ondorioz oso lurpe

Euskal musika  
kontrakulturala Ez Dok  
Amairurekin hasi zen  
1966aren bueltan.  
Baina Iriondok, Letek,  
Laboak, Lertxundik  
eta enparauek ez dute  
asko landuko gatazka  
armatuaren gaia

sakonetik agerira irten eta nolabaiteko hegemonia egoerara heltzen den kultura politiko berriaz, edo identitate politiko eta kultural berriaz, bere marko kognitiboak arrakasta handiz ezartzera ailegatzen den fenomeno poliedrikoaz, alegia, hitz egin behar dugu orain.

1975ean Franco diktadorea hiltzen da eta espainiar estatuan ia hamarkada osoa luzatuko den trantsizio politikoa abiatzen da, jende gazteaz osatuta dagoen langile mugimendu indartsua egonkortzen da eremu industrialetan, eta gatazkak dira eguneroko ogia, grebak daude motibo ekonomikoengatik eta enpresen barruko antolakuntzengatik eta grebak daude ere motibo politikoengatik. Hiri eta herri industrialetan, aurreko hamarkadan, eraiki diren auzuneetan –askotan inolako zerbitzurik ez eta azpiegitura minimoak dituztenak– auzo elkarteak fenomenoak sortzen da. Jadanik *zombie* moduan dabilen estatuaren erantzuna errepresio basa da, eta horrek dakar etnogenesi kontrakulturalaren muga sinbolikoetatik harago doan beste fenomeno baten agerpena: Letamendiak ‘komunitate antierrepresiboak’ deitzen dio horri, Aranzadik azpimarratzen du errepresioaren kontrako sentimendu horrek legitimazioa ematen diola ETaren jardunari, batez ere frankismoaren erantzuna erabat deslegitimatua dagoelako.

ETAk ere ekiten dio ofentsiba armatuari, eta bere ekin-tzarik enblematikoena lortzen du 1973an, Carrero Blanco almirantea –Francoren gobernuko presidentea zen orduan, eta erregimenaren jarraitutasuna ziurtatu behar zuen pertsona– hiltzen duenean, Madrilan, kotxez pasatzen zen kale baten azpian lehergailu potente bat eztanda eginaraziz. Eta estatu espainiarra erabat desegonkortuta dagoen momentu horretan, horren guztiaren ondorioa da *satorrak baino lurperago* daudenen agerpen politikoa eta euren nolabaiteko hegemonia politiko eta kulturala.

Sektore kontrakulturaletan, abertzale eta ezkerrekoetan batez ere, garaipen sentsazioa zabaltzen da, kaleetara ere kutsatzen dena. Eta, musikaren arloan, horrek esan nahi du kantaldiak, artisten emanaldiak, ugaltzen direla eta artistak



ere nonahi agertzen hasten direla: ‘txanpinoien’ garaia da, Pako Aristik bataiatu zuenez:

Jaialdiak adierazpen politiko bihurtzen dira eta kanten letrak metaforikotasuna galtzen doaz, poetikotasuna reaktionarioa da, eta giroa irakiten dago, urak ontzian irakiten duen bezala. Jendeak esperantza dauka. Garai ilun eta triste bat amaitzear sentitzen du eta kantariak abestu dituzten egunsenti argitsuak, injustiziaren amaiera, herriaren askatasuna, esperantzari eskeinitako himno guztiak gauzatzeko, egiaztatzeko, realidade bihurtzeko sasoiaren zai dago, eta sasoi hori hurbil sentitzen da.

Etxamendi eta Larralde, Pantxoa eta Peio, Gontzal Mendibil eta Xeberri, Urko, Gorka Knörr, horiexek dira garaiko artistak, eta askotan grabatu eta kantatzen dituzte borroka kantak dei ditzakegunak: «ordun garailaren poza / edukiko dugu / edo hildakoaren bakea» (*Gure azken helburua*, Urko, Bitoriano Gandiagaren letrarekin), «gure herrien irudi zare / mutillak / gure ametsen ikurrin zare / mutillak / gure arduren iturri zare / mutillak» (*Gure mutillak*, Mendibil eta Xeberri Bittor Kapanagaren letrarekin), «In nomini patri et filii / gora jauzi eta duzu erori» (*Yup lala*, Etxamendi eta Larralderen kanta, Carrero Blancoren heriotzaren ingurukoa, sekulako *hit*-a bilakatu zen Hegoaldeko erromeria eta berbenetan)... Letra-egile –eta batzuetan musika-egile ere– bat azpimarratu behar dugu guztien gainera, Telesforo Monzon: guda-kantuak egiten ditu, dantzatzeko baino, agudo ibiltzeko, desfilatzeko, melodietan txertatutako letra testosteroniko eta epikoak: «Lepoan hartu eta segi aurrera».

Ordukoa da ere euskal musikan ziurrenik gehien saldu den diskoa, *Hemen gaude*, Urkok Donostiako Antzoki Zaharrean emandako kontzertuaren grabazioa (1976ko azaroaren 19an). Eta oso argigarria gero kantari horri gertatu zitzaiona. 1978an *Gure lagunei* argitaratu zuen, Txiki eta Otaegi fusilatuen omenez –eta disimulu handirik gabe gai bera jorratzen duen Lluís Llach katalanaren *Campanades a mort* diskoaren (1977) arrakasta artistiko eta komertziala bilatuz–, orkestra-konponketekin eta zati batzuk gaztelera abestuta:

ez zuen arrakastarik lortu. Monzonen kanta bat bazegoen disko horretan: «Irabazi, irabazi dugu, / odol eta malkoz / irabazi dugu. / Hi gudari, herriko zaindari...», triunfalismoz eta epikotasunez blai. Eta hauxe da paradoxikoena, agian orduko sentsazio kolektiboa ondo batzen zuela, baina arrakastarik ez. Uda honetan (2015) ezker abertzaleko giroetan hori kantatzen hasi direla ikusi dut, paradoxaren paradoxaz!

Izan ere, 1970 eta 1980ko hamarkaden bitarteko urteetan, beste musika batzuk hasi ziren entzuten, etnogenesi kontrakulturalaren baitan, are kontrakulturalagoak, nolabait esatearren; rocka eta folk-rocka izango dira orduko soinuak: lehenengo taldeek –Oskorri, Errobi, Koska– oraindik gai politiko-sozialak erabiliko dituzte euren letretan, baina segidan datozenek –Itoiz, Izukaitz, Haizea, Lisker, Sakre...– gai onirikoak, surrealistikak, eguneroko bizitzakoak gurago dituzte. Euskal Herrian nolabaiteko *summer love* delakoa, *hippy* eta *happy* unetxoa, bizi izaten da orduan: presoak irteten ari dira kartzeletatik, alderdi politikoak eta ikurrina legalizatzen, euskara hezkuntzan txertatzen, Autonomia Estatutua lortzen da... Ziurrenik Txomin Artolak 1978an grabatzen duen *Belar hostoak* diskoak laburbiltzen du orduko giroa: amerikar kutsuko folk-rock alegera Walt Whitman-en –demokrazia, natura eta amodioaren poeta, antonomasiar– letren zerbitzura.

## **Punk mutazioa**

Baina 1980ko hamarkadaren hasieran, gauzak jadanik ez dira *happy* Euskal Herrian: krisi industrialak eztanda egin du eta langabezia, batez ere gazteena, oso handia da. Jende asko geratzen ari da langabe oraindik jubilaziorako urte asko falta dituenean, eta lan egin izan duten enpresa erraldoiak –non langile askok ikusten zuen ez soilik bere geroa, seme-alabena ere– desagertzen ari dira. Bestalde, Emilio Lopez Adan *Beltza*-k azpimarratu bezala, etnogenesi kontrakulturalaren protagonista askoren artean uste sendoa da Euskal Herriak egoera aurre-iraultzailea bizi duela, eta borroka armatuaren gurrupila

1980ko hamarkadaren  
hasieran egoerak  
punk musika eta punk  
estetika, eta etika,  
eta politika, eskatzen  
zituen, eta hori etorri  
zen. Punk kultura  
kontrakulturaren  
mutazioa da

berriro jartzen da abian: urte horietan ETA-pm disolbatzen da, Komando Autonomoek gutxi iraungo dute, presio polizialak eta barne-kontraesanek itota, baina ETA-m, laster ETA

bakarra, sigla horiek Francoren kontrako borrokan eskuratu duten legitimazio handia ustiatzeko eta betikotzeko prest dago. Aparatu polizial postfrankistek errepresio basatia eta indiskriminatua praktikatzen dute –gogoratu behar da, adibidez, ZEN plan delakoan orduan nahiko arrunta zen estetika (praka bakeroak, jertse urdinak, ile luzea eta bizarra; oraindik mendiko arropa ez zegoen hain garatua!) edozein gazte susmagarritzat hartzeko go-

mendatzen zela-, GAL agertua zen... Durangaldeko fanzine batek, *Txistu y tamboril* izenekoak, portadan argitaratu zuen okurrentziak –«Euskadi, el país menos movido, el que no está parado, está detenido»– laburbiltzen du oso ondo garai hartan Euskal Herriko gazte askoren bizipena...

Egoerak punk musika eta punk estetika, eta etika, eta politika, eskatzen zituen, eta hori etorri zen. Punk kultura kontrakulturaren mutazioa da, 1960ko hamarkadako iraultzaileen egonkortze erosoaren kontra altxatzen dena, estetika loretsu eta maitekorra errefusatzeko duena, sisteman egokitze kontsumista salatzen duena; punka zakarra eta bortitza da, ukazioan oinarritzen da, nahiz eta alde positiboa adierazi *do it yourself* aldarrikapenaren eta espazio eta denbora autogestionatuen eraikitzearen bidez. Europako leku gutxitan eduki zuen punkak Euskal Herrian bizi izan zuen arrakasta: normalizatu behar zen etnogenesia berpiztu zen, sekulako bultzada eduki zuen.

Gasteizen finkatuta zegoen Hertzainak taldeak argitaratu zuen aurreneko diskoan (1984), ironia finez salatzen zituzten kontrol polizialak edo maniobra militarrik; baina Komando

Autonomoen ekintza batean hildako lagun bati egindako omenaldi-kantak –«nork ez du maite askatasuna / nahiz eta lehertu esku artean / Estatuari gerra / gerra beti! / pakean utzi arte!»– markatuko zuen orduko giro kulturala: kontuz! Kantaren konposizioan inplikaturata ibili ziren hildako gaztearen lagunek azpimarratzen dute traumaren ondoren euren hautua *gerra edo gerrilla kulturala* izan zela –orduan sortu ziren Hala Bedi Irratia, prozesio ateoak, Hertzainak beraiek edota Banda Municipal de Ska delakoa–; baina kantez autonomia hartzen dute eta inportanteena da publikoak nola hartzen dituen, zer ulertu nahi duten eta nolako portaerak abiatzen edo indartzen diren hortik aurrera...

Hertzainak ikonoklastia praktikatu zuen taldea izan zen, bere publikoaren erosokeriaren kontra aritu zen beti; baina beste talde batzuk beste modu batean txertatu ziren iraultza eta apurketa bilatzen zuen mugimendu politiko eta militarrean. Kortatu taldeak oraindik Urkok baina ale gehiago saldu zuen 1985ean argitaratu zuen lehenengo LParekin (baina kanta gehienak gaztelaniaz ziren eta horrek bere publiko potentziala zabaltzen zuen), eta hartako *hit* nagusia eta betikotu dena euskaraz kantatutako *Sarri Sarri* da: kanta jaizale eta dantzagarria Martuteneko kartzelatik ihes egindako bi etakideen *performance*-a txalotu eta ospatzeko –ezaguna da, Imanol kantariaren kontzertu baten ostean, Mikel Antza antolatzaileak prestatutako bi bafle faltsuetan ezkutaturik alde egin zutela.

Baina bai disko horretan bai eta hurrengo urtean argitaratutakoan, badaude ere etakideak eta euskal errefuxiatuak hilak suertatu ziren hainbat gertaeren kronika latzak. Kortatukoak Baiona Ttipitik ibiltzen ziren bertan GALEko komando batek Monbar Hotelean lau errefuxiatu hil zituenean, eta parte hartu ere egin zuten azkenean atxilotua izan zen mertzenario baten pertsekuzioan. Esperientzia horretatik sortu zen kantari amorrua eta inpotentzia zerion, orduan Euskal Herrian oso zabaldua zegoen sentimendua.

Lehenengo talde punkiak eta kultura horren inguruan sozializatzen hasi zen jende gaztea askotan ez ziren oso ondo

konpontzen paraleloan osatzen ari zen apurketaren aldeko blokearekin –ETA, Herri Batasuna, Amnistiaren aldeko Batzordeak, Jarrai gazte erakundea...; Nazio Askapenerako Euskal Mugimendua, NAEM, horrela autodefinitu ziren eta izen hori erabiliko dugu–, asko ziren desakordio kulturalak –drogen erabilpena, antiautoritarismoaren eta anarkismoaren zaletasuna leninismo hierarkiko eta militaristaren aurrean...– eta politikoak. Kasu argiena da punk mutazioarekin sortzen den intsumisioaren estrategia, Espainiako armadak mutilen inposatzen zien Derrigorrezko Zerbitzu Militarren kontrakoa: antimilitarismo argi batetik sortutako ekimena izan zen, eta denbora luzea kostatu zitzaion onartzea «la mili con los milis», «soldaduskara ikastera joan behar da» eta antzeko planteamenduak egiten zituen Jarrai erakundeari, soilik estratigiaren arrakasta erabatekoa izan zenean eman zuten pausoa; horrela, baina, antimilitarismoaren garra txingar bilakatu zen, luze baina apal segitu zuen sutan...

NAEMeko abertzaleek punkiak mespretxatzen zituzten, baina batzuek ikusi zuten belaunaldi berrikuntzarako leiho bat eta horrela antolatu zuen Herri Batasunak ‘Martxa eta borroka’ 1985ean: kontzertuak, mahai-inguruak... Helburua kontrakultura punkia NAEMen indarren metaketa estratigiaren zerbitzuan jartzea bazen, esan dezakegu epe motzera ondo atera zela. 1989an Aljerian ETA eta Espainiako gobernuaren arteko negoziazio siora arte indar metaketa hori era nabarmengarrian garatu zen, eta azpimarragarria da punk estetika jende gaztea erakartzeko eduki zuen indarra eta balioa: ziurrenik 1987an Gernikan Aste Santuan Aberri Egunaren eta bombardaketaren 50. urteurrenaren karian egin ziren jardunaldiek –eztabaidak, akanpada, kontzertuak...– ‘euskal Woodstock’ izendatzea mereziko lukete. Momentu horren berezitasuna ulertzeko, oso grafikoa izan daiteke RIP talde arrasatearrarekin gertatu zena: punk-punkiak ziren horiek eta sekulako kalapitak eduki omen zituzten euren herriko abertzaleekin, baina 1987an argitaraturiko diskoan Telesforo Monzonen *Lepoan hartu ta segi aurrera* kantaren bertsio azeleratua egin

zuten, nolabait gazte punkek eta NAEMeko abertzaleek zeukaten zoru komuna betiko komunitate antierpresiboarena zela zertifikatuz. Baina iragan diren hamarkaden distantziatik ikusita, esan beharko genuke NAEMek berak, edo, soziologikoki zabalago izan daitekeen kontzeptua erabiltzeko, ezker abertzaleak, erabat aldatuta bukatu zuela prozesu horretan, benetan punk mutazioa sufritu zuela, alegia.

## 18. urtea

Umberto Eco semiologo italiarrak '9. urteari' buruz hitz egin du bere herrian gertaturiko borroka armatuaren eta terrorismo fenomeno oso zabalduaren analisia egitean: hau da, horren eztanda 1977an izan zen, 1968 eta bederatzi urtera. Hemen, bederatzi bider bi, '18. urteaz' hitz egin beharko genuke. 1968an hasten den borroka armatu legitimatuaren zikloa erroitik aldatzen da 1986an: ETAk, Yoyes Gonzalez Katarain hiltzen duenean, bere jardueraren jite autoritario eta militarista ezartzen du, erakunde armatuak bakarrik erabaki dezake zer den zuzena eta zer okerra, zer ona eta zer txarra; eta etnogenesiaren abaroan sortutako gizarte mugimendu askotari-koari, men egitea edota traidore izatea baino ez zaio gelditzen.

Autoritate osoa bere eskuetan zegoela erakusteko hil zuen ETAk Yoyes Ordiziako plazan, bere seme txikiarekin zegoela, 1986ko udazkenean. Zirrara soziala nabarmena izan zen. ETAk, ekintza aldarrikatu eta azaldu zuen oharrean, esaten zuen Yoyes hil zutela bere burua traizionatu zuelako! Ezaguna da Yoyes erakunde armatuaren zuzendaritzan egon zela, baina gero erabaki zuela jardun hori uztea, Mexikon egon zela eta gero bere herrira bueltatu zela.

ETAk frankismoan zehar lortutako legitimazioa –Yoyesen kontrako ekintzarekin edota terrorismoaren moldean kokatzen diren Hipercor Bartzelonako hipermerkatuan gertaturiko hilketa masiboarekin– nola arrakalatzten den ikustea baino ez da faltako hortik aurrera. Dela urruntasun razionaletik, dela hurbiltasun sentikorretik, «nork bere burua

traizionatzeko» eskubidea ukatu eta, gainera, delitu horren zigortzat heriotza ezartzen duen portaera kolektiborako azalpenak topatzea beti da zaila. Zentzuzkoena, agian, Akaitzek, Yoyesen lau urtetako semeak, esan zuen: «Bakeroak etorri dira pistolekin eta ama hil egin dute».

Bakeroak, eta ez indiarrak. Nolako erreakzioak egon ziren antiautoritarismoa eta indiarren anarkia eta askatasun naturala aldarrikatzen zituen giro kontrakulturalean? Publikoki ezer gutxi, dena esan behar bada. Baina Imanol kantaria –bai, etnogenesiaren hasieran ETako militanteak gorai patuz single klandestinoak argitaratzen, trantsizio garaian maila handiko folk-rock LPak egiten, ‘Martxa eta borroka’ jaialdian abesten, edota Martuteneko ihesa ahalbidetu zuen kontzertuan, ezagutu dugun hori– izan zen lagun hurkoa zuen Yoyesen erailketa ozenki salatu zuen euskal kantari nabarmena.

Zantzu guztien arabera, horrek konplikatu zion bere ibilbidea kantari profesional moduan. Halarik ere, disko gehien eta jarraituen argitaratu duen kantarietako izanik, urte horietan ezartzen den gustu nagusia ez doa oso lotuta bere estiloarekin, eta, edozein produkzio artistikotan gertatzen den moduan, esan daiteke bere orduko diskoak ez direla bere historiako hoberenak. 1989an Imanolek salatzen du bere kontrako pintada batzuk daudela Donostiako Intxaurren auzoan, heriotza-mehatxuak dira eta ETak sinatuta daude. ‘Bildurraren kontra’ izeneko jaialdia antolatzen da Imanolekiko elkartasunez, baina, Urko izan ezik, parte hartzen duten kantariak ez dira euskaldunak. Egun horietan, euskal kantarien faltaz galdetuta, Imanolek «el miedo es libre» erantzungo du. Gero jakingo da Mikel Laboak, Ruper Ordorikak, Juan Carlos Perezek (Itoiz), Josu Zabalak (Hertzainak) eta M-ak, Zarama eta Oskorri taldeek gutun pertsonala bidali diotela Imanoli, baina ez dutela publiko egin nahi bertan esandakoa. Giro politiko berria agertzen ari da Euskal Herrian –hurrengo bi hamarkadetan zabalduko dena eta «demokratak versus biolentoak» esamoldearekin laburbil daitekeena–, eta kantari eta musikariek ere kontraesan askoren artean egin beharko

diote aurre euren lanak ematen dien pertsonaia publikoaren izaerari. Imanolek, bestalde, segitu zuen diskoak argitaratzen, 2000 urtean Euskal Herritik alde egitea erabaki zuen eta 2004an zendu zen Mediterraneo aldean. Urtero antolatzen da Donostian bere omenean jaialdia, baina oraindik esan daiteke euskal kantari eta musikarien parte hartzea ez da goela erabat normalizaturik.

Merezi du erreparatzea orain gutxi Joseba Zulaika antropologoak –jadanik post-ETA agertoki batean pentsatuz– Yoyesen figuraren inguruan berriki egin duen gogoetari: Yoyesek batez ere hausnarke-ta feministatik abiatuta eta bere amatasun kontsekuentea garatu nahian hartu zuela Euskal Herrira bueltatzeko erabakia, ETAREN iruditerian zegoen sakrifizioaren eredua batez ere maskulinoa dela agerian utzi zuela, bizitza eta askatasunaren aldeko apustua egin zuela... Eta baliteke, Zulaikak uste bezala, bere figura profetikoa ezkerreko abertzaletasunak eta euskal feminismoak berreskuratzea; agian, zantzu batzuk ikusten hasiak gara.

1986tik aurrera, borroka armatuan eta sasiko bizimoduan jarraitzen dutenek pentsatuko dute aurretik metatutako legitimazioa betiko dutela; *but to live outside the law, you must be honest* (baina legez kanpo aritzeko, zintzoa izan behar da), Bob Dylan-ek kantatzen duenez: legitimazioa galtzen da norberarekin lerratzen den jendea engainatu, manipulatu eta mespretxatzen denean, bakarrik ‘abangoardiaren’ edo gorale edo traidore izan daitekeenean, praktika armatuak terrorismorantz joaten direnean, etsaiak helburu taktiko bilakatzeko erraztasunaren arabera definitzen direnean... Horrela, komunitate antierpresiboa disolbatzen da eta estatua birlegitimatzen da.

Giro politiko berria agertzen ari da –«demokratak vs biolentoak»–, eta musikariek ere kontraesan askoren artean egin beharko diote aurre pertsonaia publikoaren izaerari



## **Eta borrokak ito...**

Azkarregi ote dugu hogeitaka urteetan luzatu den prozesua laburtu? Guk euskal musikari gertatzen zaionaz arduratu behar dugu, eta esan behar da kontu arraro samarra dela: hamarkada aldaketarekin, 1990etik aurrera egoera ekonomikoak oso agudo egiten du hobetze aldera eta aberastasun sententzio batean biziko gara harik eta 2007ko krisiak dena lehertu arte. Gainera, musikaren inguruan eta kulturaren arloan bereziki sortzen dira gazteentzako lanpostu askotxo... Jarduera poliziala asko fintzen da eta ez da hain indiskriminatua izango, askoz legitimatuago dagoen indar poliziala, Ertzaintza, agertzen da...

Baina euskal musikak borrokari oso loturik segituko du, hurrengo urteotan bidea markatuko duten talde handiak –Negu Gorriak, Su Ta Gar, geroxeago Berri Txarrak– kanta bikainak egingo dituzte presoenginguruan, hildakoen omenez, borroka segitu beharri buruzkoak. Euren emaitzak onak izan dira, eta zintzoak, baina euren atzetik beste ‘txanpinoi’ uzta erraldoia agertu da, taldeak eta taldeak beti tematika estu eta itxi bati lotuak, sonoritate zehatz batean finkaturik –punk, ska, metala, gitarra astunak...–, eszena egoteko eta jarduteko erritual errepikakor eta lehorrean harrapaturik: ikurrinak eta presoenginguan banderak astindu eta berbaldu sukoi bezain hutsalak errepikatu.

Hutsalak diogu, azken finean esan bezala azken hamarkadetan Mendebalde aberats osoan nozitzen den fenomenoak, gazteriaren despolitizazioa eta hedonizazioa, ederto asko instalatzen delako ere euskal lurraldeetan. Baina European *rave culture* delakoa hedatzen bada –musika elektronikoaren agerpena, dantzaldi erraldoiak, droga berrien eta zaharren kontsumo altua, modaren agintea: kotxeak, arropak...–, gurean esan dezakegu antzeko giroa sortzen dela, baina *txosna kulturaz* hitz egin beharko genuke: portaera eta balio antzekoak, baina borroka-musikaz alaturik. Eta, noski, gazte horietako minoria batek borroka armatuari engaiaturik segitu

du, gero eta gehiago azpikultura eta alienazio klabeetan iker-tu behar den fenomeno osatuz.

Euskal pop musikan, sortzaile askok, noski, bere zeregi-na ondo egin du, alegia, eskema estu horretatik alde egin eta, errealitatearekiko eta Euskal Herriarekiko konpromisoa areagotuz, azken hamarkadetako gertaera latzak ikuspegi per-tsonal eta kritikotik islatu. Jende asko identifikatu da Ruper Ordorikak *Euskaldunon Egunkaria* itxi zutenean egin zuen kantu gogoangarriarekin («Inork ez zidan esan / euskaldun izatea zein nekeza den. / Hobe nuela hautatzea / munduko hiritar izatea. // Kantu leunak / nahi nituzke jarri [...] Zaindu maite duzun hori. / Zaindu gorroto duzun hori. / Zaindu...»), eta egile horrek beste adibide asko laga du, beti bere lekuan baina iritzi propioa era sotil eta eraikikorrean landuz; hor-txe daude ere Anariren ironia mingotsak, Fermin Muguruza bezalako musikari-ekintzailearen jarrera irmo bezain pertso-nalki ausartak...

Baina pop musika, mundu osoan zehar, erretromanian har-rapaturik dago gaur egun –«pop musikaren adikzioa bere iraganarekiko», Simon Reynolds kritikariak dioenez–, eta Euskal Herrian erretromania hori 1980/1990 hamarkadetan egin zenari erabat kateaturik dago. Eta, horrela, badirudi ja-rrera *borroka* antzu horrek musikaren kreatibitatea agortu, idortu, ito egin duela. Urtero dozenaka taldek euskal presoen inguruko kantak egiten dituzte, baina batek ere ez du balio Hertzainak taldeak 1989an idatzi zuen kantutxo labur hark bezainbeste: «Batzuen ustez ordaintzen / dagokien zigorra / maite dutenentzat berriz / askatasun haizea / baina hori nork ulertarazi / etxean zai bakarrik denari / 564 taupada / gehia-go gure bihotzean».

Eta idortu egin al da etnogenesi kontrakulturala? Mundu osoan zehar historia da jadanik fenomeno hori; gurean bai-na, baliteke, Joseba Sarrionandiak izkiriatu bezala:

Nagusi diren eredu baztertzailak imitatu beharrean –behialako espainolaren *católica e imperial*, frantsesen *patriotisme républi-cain* edota britainiarren *my country right or wrong*–, euskaldunek

Musikak gatazka islatu edo performatu, gatazkak musika ito

askatasunaren eta erabakimenaren bidean bere burua ere eztabaidan izango lukeen nazio bat proposa dezakete. [...] Euskal nazioa euskaldunen askatasuna antolatzeke modua litzateke. Askatasun hori eratzea, dagoeneko, helburua hemen eta orain gauzatzea litzateke. [...] Miroslav Hrochek nabigaziorako arauak balira bezala definitu ditu naziogintzaren elementu estrategikoak: memoria historiko on bat etorkizunerantz proiektatua, hizkuntza eta kultura aldetik komunitate horren barruan komunikazioa dentsoa izatea, eta berdintasunaren eta elkartasunaren zentzua izatea.

Hroch-en parametro horien arabera, etnogenesi kontrakulturalaren balantzea ez da txarra, baina orain lehentasuna sortutako mina arintzean datza, zalantzarik gabe. Baina, horretan ere, euskaldunok zor diogu gure buruari gauzak argi eta garbi esatea. 🌊

# Ihesaren fantasia

## Azkenaldiko euskal nobela eta indarkeria politikoa

Ibon Egaña

*Literatur kritikaria eta UPV/EHUko Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika saileko irakaslea*

**B**adira hamar urte Udako Euskal Unibertsitatean 'Euskal gatazka euskal literaturan' goiburupeko ikastaroa antolatu genuela. 2005 honezkero urrun hartan lehenago ere izandako eztabaidak indar berria hartua zuen eta ozen entzuten ziren ordurako berriak ez ziren galderak: heldu ote dion euskarazko literaturak gatazka eta indarkeria politikoaren auziari eta idatzi dutenean nola irudikatu duten euskal idazleek ETAre eta estatuaren indarkeria.

Hamar urte beranduago, ez dirudi lehen galderak pertinentzia handirik duenik asmo ideologiko jakinetik ez bada,<sup>1</sup> 2000ko urteetatik hona atertu gabe eman baitira argitara gatazka politiko eta armatua hizpide duten literatur lanak. Era berean, ugalduz joan dira auziaren inguruko ikerketa eta irakurketa kritikoak ere, akaso, eztabaida polemikaren esparrutik harantzago heldu den seinale.<sup>2</sup> Bigarren galderari heldu eta 2000ko urteetatik gaur arte argitaratutako euskal nobelek auziari nondik eta nola heldu dioten aztertzeo ekarpena nahi luke izan, beraz, artikulua honek.

Argitaratu ez ezik, azken urteetan instituzio literarioek aintzat hartu, saritu eta kanonizatu ere egin dituzte gatazka hizpide duten eleberri eta ipuin-liburuak (Jokin Muñoz, Ramon

Saizarbitoria eta Harkaitz Canoren lanak, besteren artean), eta indarberritu egin dira 1990eko hamarkadan finkatutako euskal narratiba kanonikoaren habeak, zeinak *Hamaika pauso* (1995) eta *Gizona bere bakardadean* (1993) eleberriak baititu ikur: nazioaren irudikapen errealista maskulinoak jarraitzen du euskal literaturaren erdigunean eta gatazkaren inguruko narrazioa da irudikapen nazional horretarako bitarteko usue-na, alegoriak edo iruditeria fantastikoek behiala izandako lekua betez. Kanon horrek, gainera, izaera dinamikoa, eragilea du, zeren, indarkeria politikoaz klabe errealistan jarduten duten obrak literatura legitimo, jaso eta kalitatekoarekin identifikatzeak (beste literatura-joera batzuei legitimitate txikiagoa aitortuz: ni-aren literaturari, fantasiari, genero-eleberriei...) literatura horren ugaltzea ekarri duela pentsatzeak arrazoizkoa dirudi. 1990eko hamarraldiak euskal idazle ugari bestelako generoetatik nobela errealistara erakarri zituen gisan, akaso XXI. mende hasierak gatazkara erakarri ditu bestelako estetikak eta tematiketan trebatutako idazleak.

### **Fikzioa, errealitatea eta memoria**

Gatazkari heldu dioten liburuak ugaltzean izan du, jakina, eraginik 2011n ETak bere jarduera armatua behin betiko amaitzeko erabakia hartu izanak. Erabakiak zabalduetako aro berriak, gainera, gatazkari buruzko literaturaren harreran eta jendarteratzean ere arrastorik utzi duela ezin ukatuzkoa da. Besteak beste, borroka armatua amaitu ostean frankismo osteko 30 urteetako indarkeria politikoaren inguruko *errelatu* edo *kontakizunaren* auzia bihurtu da eragile politikoen artean eztabaidagai eta diskurtsoaren esparrura lerratu da lehia politikoaren parte bat. ETaren eta estatuaren indarkeriaren kontakizuna *egia* edo *historiaren* parametroetan barik *kontakizunarenean* kokatu izanak euskal literaturari esparru literario hutsa gainditzen duen lekua aitortzen diola dirudi, historia narraziotzat hartzeak fikzioa eta errealitatea elkarrengana hurbiltzen baititu ezinbestean. Ramon

Saizarbitoriak, *Martutene* (2012) obragatik Euskadi Saria jasotzean, obraren harreran izandako nolabaiteko kontsentsua errelatuaren inguruko kontsentsurako urrats gisa interpretatu izanak ematen du lausotze horren berri.<sup>3</sup> Halaber, *Twist* (2011) argitaratu ostean Harkaitz Canok Joxi Zabala zenaren arreba Piliberekin egindako jendaurreko ekitaldiek edo Carmen Gisasolak, *Nanclares bidearen* ikur, *Gaur zortzi* (2012) nobela Aintzane Ezenaroren laguntzaz aurkeztu izanak iradokitzen dute gatazkaren inguruko literaturak eta bere harrerak esparru literariotik harantzago ere posizio-hartzea badakartela. Azken urteetako fikziozko narrazioek historia hurbilaren kontakizunarengatik lehia politikoan lekuri badute, beraz, leku hori bigarren mailakoa izan arren.

Era berean, indarkeria politikoarekin lotutako historia garikideko zenbait une eta gertakari erreal fikziorako abiapuntutzat hartu dituzte idazle euskaldunek, hainbatetan gertaera bereziki traumatikoak eta imajinario eta memoria kolektiboan lekuri badutenak nobelara eramanez. Canoren *Twist* dateke adibiderik argiena, Lasa eta Zabalaren tortura eta hilketak baitaude eleberriaren abiapuntuan, baina, 2015ean argitaratutako Katixa Agirreren *Atertu arte itxaron* nobelak ere, esaterako, Madrilgo 2004ko martxoaren 11ko atentatuak

Azken urteetako fikziozko narrazioek historia hurbilaren kontakizunarengatik lehia politikoan lekuri badute, bigarren mailakoa izan arren

edo Gasteizko 1976ko martxoaren 3ko gertaerak fikziozko daramatza, bigarren plano batean. Ez dira, jakina, bakarrik: Xabier Montoiaren *Denboraren izerdia* (2003) eta *Azken afaria* (2013) edo Jokin Muñozen *Antzararen bidea* (2007) fikzioaren eta errealtatearen arteko permeabilitate horren adibide dira. Memoria partekatutako gertaera traumatikoetatik fikzioa sortzerakoan, sortzaileek euskal irakurleen memorian iltzatutako gertakari dei giten dietela dirudi, eta gertakari jakinen aipuak

berak sortzen duen zirraratik abiatu direla fikzioa egiteko. Ikusteke dago Gerra Zibilaren inguruko literaturan eta artean Gernikak memoria partekatu baten sinbolo izatea erdietsi duen gisan, euskal literaturak gatazkaren ondoriozko gertaera traumatiko zenbait (eman dezagun, Lasa eta Zabala-ren hilketak) sinbolo eta memoria partekatu bihurtzerakoan zeresanik ote duen.

## Errealismoaren exijentzia

Gatazkaren inguruko idazketa eta literatura errealista binomio banaezin gisa aurkeztu dira azken hamarkadetan, eta gatazkaren irudikapenaren inguruko eztabaidak errealismoarena berpiztu du. Ur Apalategik aztertu duenez,<sup>4</sup> 1980ko urteetan euskal literaturak nobela behar zuelako iritzia nobela errealistaren exijentziarekin estu lotua zen eta, orobat, nobela errealistak euskal errealitate soziopolitikoaren irudikatu beharrarekin. Bestela esanda, euskal letren inguruko diskurtso kritikoak zera eskatzen zuen: euskal literaturak nobela behar zuen, nobelak errealista behar zuen, eta nobela errealistak gatazka politikoa hartu behar zuen hizpide. Eskakizun horiek 1990eko hamarkadaren bigarren erdian ase zituen hein batean euskal nobelagintzak (Atxaga, Saizarbitoria edo Urretabizkaiaren lanak tarteko), baina hala ere gatazkari behar beste heldu ez diolako usteak XXI. mende hasieran ere iraun du.

Estetika errealistaren exijentziaren eta errealismoari uko egiten dioten idazleen arteko talka, beraz, ezinbestean kokatu behar da termino ideologikoetan. Eskematikoki esanda, ETaren eta abertzaletasunaren kritika fikzio errealistaren eskutik etorri da batez ere; aitzitik, nazio-borroka indartu nahi lukeen diskurtsoa parametro errealistetatik kanpo kokatu da, baita nobelatik kanpo ere. Borroka armatuaren subjektuarekiko enpatikoa eta nazio eraikuntzaren aldekoa den fikzio errealistak (eman dezagun, Txillardegiren *Exkixu* [1988], edo Karlos Gorrindoren *Ni naizen hori* [1992]) ez du lortu beste idazle errealista batzuek lortutako onepenik,

besteren artean ideologia fikzioaren gaintik jarri izana leporatu baitzaio. Postula liteke errealismoak ezinbestean dakarren razionaltasuna, izaera analitiko eta deseraikitzailea nekez ezkontzen dela iraultzari eta nazio-eraikuntzari ekarpena egin nahi dion literaturarekin.

Aitzitik, esparru politikoan nazioa eraikitzea xede duen literaturak alegoriara, sinboloak sortzera, makrometaforak elikatzea edo historiara jo du, hein horretan, indarkeria politikoaren irudikapen errealistari uko eginez. Bestalde, biolentzia erreal, behagarria barik (biolentzia *subjektiboa*, Žižek-en terminoetan), Euskal Herriarekiko indarkeria eta dominazio sinboliko eta politikoa (*biolentzia objektiboa*) errepresentatzeko ez dirudi errealismoa baliagarria denik. Hortaz, nazioarekiko biolentzia sinbolikoari aurre egin eta borrokaren subjektu den literatura nekez egin daiteke nobela errealistaren parametroetan, utopiaren formulazioak bestelako diskurtso-motak eskatzen baititu.

Kartzela eta erbestea izan dira, horren aurrean, literatura-eraman diren gatazkaren esperientziak, eskuarki nobela errealistaren formarik hartu gabe. Poesia izan du, izan ere, espresibide nagusi kartzelako literaturak, Joseba Sarrionandiaren *Kartzelako poemak* (1992) ikur duen tradizio oparobat, baina baita testigantza eta saiakera ere (Jokin Urainen lanak, Mikel Antzaren *Ospitalekoak* [2010]). Esperientzia pertsonalaz harantzago, dena den, kartzela nazioaren metafora nagusietakoa da, 'preso' dagoen herriaren metafora. Koldo Izagirrereren *Agirre zaharraren kartzelaldi berriak* (1999) eleberriak, adibidez, logika kartesiarrak iraultzen ditu karteletara atera ordez borondatez sartu egiten den Metxa Agirrereren ibileren bidez. Kartzelan ez egotearen erruak bizi duen pertsonaiak harako sartualdiekin 'kanpoan' dagoen herria eta kartzelakoa bakarrean biltzen ditu, errealismoari ihes egin eta subjektu zapaldua sinbolizatzen duen antiheroia sortuz.

Erbestea eta deserria, kartzela bezala, idazleek literatura-ra sarritan lehen pertsonan eraman duten bizi-esperientzia



ez ezik (hara hor autobiografiatik baduten Lander Garroren *Gerra txikia* [2014] edo Mikel Antzaren *Atzerri* [2012], berrienak aipatzearen), nazioaren irudikapenerako sinbolo emankorrenetakoa ere izan da azken urteetako literaturan. Estatuaren errepresioaren adierazpen gisa irakurri da erbeste, baina baita nazioaren metafora gisa ere: bertan egonik 'erbestean' dagoen subjektuaren irudikapenak 'beste' aberri baten utopiaren beharra espresatzen du. Joseba Sarrionandiak, poesia eta testu laburretan ertz ugaritatik erbesteaz jardun ondoren, 2001ean argitaratutako *Lagun izoztua* eleberrian indar berriz heldu zion gaiari. Eider Rodriguezek proposatutako irakurketari jarraituz, itsas iruditeriaz eta espazio imajinarioez baliatzen da Sarrionandia gatazkaren inguruko irakurketa alegorikoa egiteko.<sup>5</sup> Alegoriaren esparruan kokatu behar dugu, orobat, Joxe Austin Arrietaren *Terra sigillata* (2008) ere, zeinak

2000tik aurrera  
ugalduz joan den  
gatazkaren inguruko  
nobelagintzan fokua  
gudaritik biktimara  
joan dela dirudi,  
salbuespenak  
badiren arren

urpeko mundua eta urpekariak hartzen dituen metafora gisa isilarazitako ahotsen esperientzia eta ahotsak nobelara ekartzeko. Metafora eta alegoria, finean, errealismoa ez bezala, borrokaren subjektu kolektiboa eta utopia irudikatzeko bi-tartekoak dira.

### **Nobela errealista: gudaritik biktimara?**

1976an plazaratutako *Ehun metro*-n komando bateko kidea-ren azken metroak hartu zituen kontagai Saizarbitoriak, eta 1990eko urteetan ugaldutako nobela errealistak ere etakideengan ezarri zuen fokua, sarritan beste pertsonaia batek ispilu-lana egiten ziela, militanteen motibazioak, kezka eta bizipenak aletzeko. Bernardo Atxagaren *Gizona bere bakardadean* (1993) eta *Zeru horiek* (1995) zein Ramon

Saizarbitoriaren *Hamaika pauso* (1995) nobelak borroka armatuaren subjektura eginiko hurbilketak dira, eta orobat Arantxa Urretabizkaiaren *Koaderno gorria* (1998), non militantzia politikoagatik seme-alabengandik urrundu duten amaren ahotsa entzuten den.

Aitzitik, 2000ko urteetatik aurrera ugalduz joan den gatazkaren inguruko nobelagintzan fokua gudaritik biktimara aldatuz joan dela dirudi, salbuespenak badiren arren; hots, indarkeria politikoaren ondorioak zentzu zabalean jasaten dituzten pertsonaiak dira maiz nobeletako protagonistak. Eleberri horiek irudikatutako biktimak, gainera, ez dira indarkeriaren biktima zuzenak sarri, ezpada indarkeria-ekintza horien lekukoak, biktimen senideak, biolentziaren zipriztinak jasotzen dituztenak. Anjel Lertxundiren *Zorion perfektua* (2002) adierazgarria da, alde horretatik, droga-trafikatzaile baten hilketaren lekuko izandako neskato gaztearen trauma baitu kontagai. Esparru literarioaren eta gizarte-esparruaren artean homologia zuzena egiterik ez badago ere, badirudi, azken urteetako nobelagintzari erreparatuta, euskal subjektua hein batean ETArekiko identifikaziotik (identifikazio positibo nahiz negatibotik) urrunduz joan dela, eta ez duela bilatu borroka armatuaren motibazioak arakatzerik, ezpada indarkeria horrek sortutako ondorio askotarikoak irudikatzea.

Era berean, eleberri askotan gatazka politikoaren gaia bigarren edo hirugarren mailako plano narratiboan kokatu da, baita gatazkari buruzko literatur lan kanonikotzat hartu diren *Martutene* bezalako lanetan ere. Auziarekiko distantzia narratiboa hartzeko bitartekoa izan liteke indarkeria politikoa bigarren planoan irudikatzea, baina, paradoxikoa badirudi ere, esango nuke indarkeria politikoaz gehien idatzi den garaian literatura euskaldunaren parte batek bere burua gatazka horretatik kanpo kokatzeko nahia (fantasia?) ere adierazten duela, ez eragileen ez biktima zuzenen aldean ez kokatzekoa, iradokiz euskal subjektua ere hein batean gatazka horren erdigunetik kanpora desplazatu dela, nahiz eta ondorioek etengabe zipriztintzen duten. Hala interpreta liteke euskal

gatazka paisaia gisa, hondo gisa agertzea hainbat kontakizunetan. Areago, galde liteke zenbait eleberritan (*Martutene*-n, esaterako) borroka armatua ez ote den 'gu'-aren adierazpen izatetik 'beste'-aren irudikapen izateko urratsa egin, hots, zenbateraino ETAk eta borroka armatuak ez duten euskal literaturaren 'Beste'-aren funtzioa betetzen, zeinarekiko oposizioan subjektu euskaldun burgesak, demokraziak bezala, bere burua legitimatzen duen.

Izan ere, Joseba Zulaikak *ETAren hautsa* (2006) lanean proposatutako hipotesia, alegia, estatu zapaltzailea indarkeria iraultzailea justifikatuko lukeen Beste gisa desagertu egin dela, bere egin dute euskal nobela ugarik (Muñozen, Lertxundiren edo Saizarbitoriaren lanek, esaterako), eta, hala, ETAren indarkeria bere biluztasunean irudikatzen da. *Antzararen bidea*, *Martutene*, *Gaur zortzi* edo Anjel Lertxundiren *Etxeko hautsa* (2011) nobeletan aurrez aurre paratzen dena ez da ETA eta estatuaren arteko talka, ezpada ETAren indarkeriaren eta gatazkarekiko kezkarik ez duen XXI. mendeko euskal gizarte hedonistaren arteko kontrastea. Talka horrek zentzugabe eta anakroniko ikusarazten du ETAren jarduna, ezinbestez.

Horrekin batera, indarkeriaren irudikapen literarioak borroka armatua eta indarkeria esparru politikotik *kulturara* desplazatu dituela dirudi. Alegia, ETAren indarkeria edo kale borroka, gertaera politiko barik, kultura, giro eta esparru sozial jakin baten ondoriozko adierazpen gisa irudikatzen dira. Hein batean, beraz, biolentziaren kausa politiko absentearen eta haren ondorioen arteko desfasea irudikatzen jo du euskal narratibak, kausalitatearen narratiorik garatu gabe. Hala, altxamendu frankistaren ostean gertatutako krimenak eta ETArenak 'indarkeriaren' adierazpen gisa irakurtzeko aukera iradokitzen da *Antzararen bidea*-n, eta Euskal Herriko biolentzia politikoa mundu mailako indarkeria eta gerra-ekintza krudelenekin ondoz ondo irakurtzeko proposamena egiten du Unai Elorriagaren *Iazko hezurak* (2014) lanak, indarkeriaren errelatu globala osatu nahirik.

## ‘Gure’ biktimak

Indarkeria politikoaren irudikapena biktimen ikuspegitik egiten duen nobelagintzan, askotarikoak dira biktimak. Estatuaren eta talde parapolizialenak dira horietako batzuk (*Twist*, *Azken afaria*). ETA-ren indarkeriak eragindako sufrimendua adierazterakoan, aldiz, soziologikoki irakurle euskaldunarengandik hurbil leudekeen biktimengan jarri du arreta euskal literaturak (hildako komandokideengan, esaterako), horiekiko enpatiaz ETArekin indarkeriak euskaldunei dakarkien kaltea adierazi nahi balitz bezala. Haatik,

ETArekin osteko garaian, kontsentsua lortu nahi duen literatura euskaldunak ETArekin zein estatuaren biktimak irudikatzea ezinbesteko duela pentsatzeko arrazoiak badira

ETArekin indarkeriak eragindako bestelako biktimek, euskal irakurleen soziologiatik urrunagokoek, maiz bigarren mailako pertsonaien lekua dute eta, sarritan, biktima izan diren etakideen erruduntasuna ilustratzen dute. Esaterako, *Twist*-en, bahitu ostean tiroz hiltzen duten enpresaburuaren istorioa Lazkano, Soto eta Zeberioaren inozentzia konplexuagotzeko asmoari zor zaiola dirudi, eta baita, indarkeriaren errelatua osatu nahirik, ‘beste’ alderdia nobelan txertatzeko borondateari ere. ETArekin osteko garaian, izan ere, kontsentsua lortu nahi duen literatura euskaldunak ETArekin zein estatuaren biktimak irudikatzea ezinbesteko duela pentsatzeko arrazoiak badira azken urteetako narratibari begira. Orobat, *Antzararen bidea*-n, zinegotzi sozialista bat hil izanaren balizko errudun egiten da hildako etakidea, horrek semea galdu duen amari (eta beraz, irakurleari) harkikiko urruntasuna sorrarazteraino.

Zenbait nobelak, bestalde, ustezko enpatia falta hori esplizituki salatzen jo dute. *Martutene*-n, kasurako, Juliaren go-goeten bidez zuzenean egiten zaio erreferentzia hurbiltasun

faltari, eta eleberriak berak hutsune horri erantzun nahi diola dirudi, ETAk hildako militar baten alaba, Teresa Hoyos, bigarren mailako pertsonaia egin. Antzeko istorioa nobelaren barruko fikzio forman ematen du Martinek, *Bihotzean min dut* izenburupean, ETA salatzen duen eta bere biktimei elkartasuna adierazten dien euskal literaturaren apokrifiko fikzioan sortuz. Saizarbitoriarenean, ETAk hildako biktimekiko subjektu euskaldunak lukeen zorra eta erruduntasuna pertsonaiek eginiko hurbilketa-ahaleginen bidez konpontzen da; aitzitik, konpondu gabeko erruduntasun horrexek neurorira eta ikaskide ohiak hiltzera darama Uxue Apaolazaren *Mea culpa* (2011) nobelako Lur protagonista.

### **Aitaren herentzia eta ihesaren fantasia**

Gatazka politikoaren eta indarkeriaren irudikapenak familia barruko gatazken forma hartu du azken urteotako nobela ugaritan. Alde batetik, fokua esfera publikoan jarri ordez eremu pribatura daramate horrela eleberriek, indarkeriak familia barruko esparru intimo eta pribatua nola mikazten, garrazten duen irudikatze; baina, bestetik, familia barruko harremanen kontakizunak badu dimentsio politiko argia ere, horren bidez gatazka politikoaren belaunaldiz belaunaldiko transmisioa hartu dute-eta nobelok hizpide. Zehatzago esanda, batzuetan Gerra Zibiletik, bestetan frankismotik edo 1980ko hamarkadatik aitarengandik jasotako herentzia politikoaren transmisioa (ETAren indarkeriaren forma hartzen duena) eten egiten da Atxaga edo Saizarbitoriaren nobeletan, besteak beste.

Atxagaren *Soinujolearen semea* eleberrian, gurasoengandiko herentzia politikoak lotzen ditu Gerra Zibila eta ETA. Nobelaren azken atalak 1936ko altxamenduaren ostean Obaban fusilatutakoen berri jakin ondoren, Davidek, herriko soinujolearen semeak, 1970eko hamarkadan ETAn sartzea erabakitzen dueneko kontakizun bat du. Ordea, erbestean komandokideekin dagoela, militantzia politikoa utzi eta bere

kideak traizionatzea erabakitzen du. Traizioaren ondotik Estatu Batuetan, Stoneham-eko arrantxoan emango ditu azken urteak. Borrokara eramane zuen gurasoen herentziari traizio egiten dio, beraz, pertsonaiak, nazioa utzi eta AEBetan kokatuz, ‘paradisu’ gisa deskribatzen den Stoneham globalean.

*Martutene*-n, orobat, familia barruko transmisioaren parametroetan kokatzen da gatazka. Juliaren seme Zigorrek herentzian jaso ditu aita etakidearen gerra-izena eta baita aitona abertzalearen gerrako kontakizunak ere. Nazioaren subjektua aitona-aita-semea transmisioan ardatzen da, emakumei transmisio horren gordailu funtzioa esleituz; *Martutene*-n, ostera, eten egiten du Juliak transmisioa, Zigorren aitak hil aurretik semearentzat idatzitako gutuna hari ez ematea erabakita. Horren ordez, semeari Ameriketara goleta batean joateko gonbidapena ematen dio opari, sinbolismo argiko keinua eginez. Herentzia ideologikoaren ordez, bidaia, aisialdia, ihesa, Atlantikoaz bestaldera. Nobela berean, Pilar eta Abaituaren seme Loiola AEBetara eta Harriren alaba Ingalaterrara eramane dituzte gurasoek ikastera, Euskal Herriko gatazkatik urruntzeko asmoz. AEBek eta Ingalaterrak ordezkatzen duten mundu globala aurkezten da, beraz, nazioaren alternatiba gisa. Erabakimena, bestalde, gurasoengan dago; izan ere, Saizarbitoriaren nobelan, beste hainbatetan bezala, borroka armatua ez da termino politikoetan erabaki litekeen afera, seme-alabak haren aurrean babestu beharreko kultura edo arrisku bat baizik.

Juanjo Olasagarreren *T. Tragediaren poza* (2008) nobelan, orobat, Terese bere aitaren 1970etako iragan militantea eta ustez eginiko hilketaren herentzia patu gisa jasotzen duen subjektua da. Herentzia nazionalistatiko ihesa, nobela horretan, geografikoagoa bainoago katarsiaren bidezkoa da; tragediaren antzezpina, histrionismoa, hedonismoa, patu horri azken puntua jartzeko bitarteko bilakatzen dira. Baina euskal nobelagintzak naziotik ihes egitea eta herentziari uko egitea desio gisa adierazten badu ere, hein batean eten hori fantasia dela ere kontziente da, eta badira aitaren

herentziari ihes egin ezina espresatzen duten kontakizunak ere. Katixa Agirreren *Atertu arte itxaron* nobelan, esaterako, Ulia protagonistak Gustavo mutil-lagunari Euskal Herri turistikoa erakusteko abiatutako bidaian, kartzelan dagoen aitaren oihartzunak tartekatzen dira albisteen bidez, bikotea protagonista duen *road movie*-ari bikote-bidaia mendebalder estandarra izatea eragotziz.

Herentzia ideologikoari uko egiteak gurasoekiko etena dakarren bezala, ideologiaren euskarri den kolektibotik kanporatua izatea ere badakar. Hala, banakoaren eta kolektiboaren arteko talka eta apurketa traumatikoak zenbait nobelaren erdigunean daude. Uxue Apaolazaren *Mea culpa* nobelak ezker abertzaleko kide izanik ETAREN indarkeriaren eta harreko ezker abertzaleak duen konplizitatearen aurkako jarrerak bere kolektiboarekiko haustura traumatikora daraman

Banakoaren eta kolektiboaren arteko talka eta apurketa traumatikoak ere zenbait nobelaren erdigunean daude

neska gaztea du protagonista. Lurrengan gorpuzten den subjektu post-traumatikoak berak zuzenean egin ez dituen ekingiz eta hilketen errudun jotzen du bere burua eta apurketaren ondoko neurosi-egoeran. Juanjo Olasagarreren *Ezinezko maletak* (2004) nobelak, orobat, ezker abertzalearen inguruan batutako

lagun-taldearen eta Bazter protagonistaren arteko gatazka irudikatzen du, naziotasunaren eta gay identitatearen arteko gatazka gisa irudikatu ere. Pertsonaiak ihesaren bidea hautatzen du hemen ere, Londresko deserria, nazio-borrokatik kanpoko esparrua.

Egoera politikoarekin nazkaturik, Euskal Herritik ihes egitea erabakitzen duten protagonista bana dute, orobat, Iban Zalduaren *Euskaldun guztion aberria* (2008) eta Mikel Hernandez Abaituaren *Ohe bat ozeanoaren erdian* (2001) eleberriek. Bietan ere, ordea, ihesa eta atzerria Euskal Herriaz, bertako iraganaz eta orainaz hausnartzeko aukera bihurtzen da.

## Saturnoren seme-alabak

Jokin Muñozen *Antzararen bidea*, Xabier Montoiaren *Azken afaria* eta Carmen Gisasolaren *Gaur zortzi* nobelek, haatik, bestelako ikuspuntu batetik lotzen dituzte indarkeria politikoa eta familia: gatazkaren ondorioz semea edo alaba galdu duten gurasoen ikuspegitik, alegia. Muñozen nobelan lehergailu bat manipulatzeko ari zela hildako semearen ama, Lisa, da protagonistetako bat, eta Gisasolaren nobelak antzeko istorioa du kontagai: zeraman lehergailua zartatuta hildako alabaren amaren gutun formako gogoeta. Bi eleberrietan, baina, gurasoak ez dira ideologiaren transmisio-lana egiten dutenak (aitarik ez dute ezagutzen seme-alaba horiek eta ez dira haren ideologiaren oinordeko), eta gatazka politikotik at kokatzen dute beren burua; aitzitik, semearen eta alabaren heriotzak haien militantzia jartzeko agerian, eta baita beren seme-alaba hilekiko distantzia areagotu ere, haien erabakiak ulertzen ez dituzten neurrian. Nobela horietan seme eta alabaren engaia-mendua ez da familiako herentziaren ondorio, ezpada 'giro' eta 'kultura' baten emaitza. «Gazteria biolentziaren kulturaren hezi izan da gurean», irakurtzen da *Gaur zortzi*-n. «Eta nork hostia bidali zuen nire semea Orioko taberna hartara?», galdetzen du Lisak *Antzararen bidea*-n. Bietan ere kontrastea handia da gizartearen bizimodu arrunt, hedonistaren eta beren seme-alaben patu tragikoaren artean. Pertsonaia horiek ETAREN indarkeriaren biktima gisa aurkeztuz, nolabait Saturnoren mitoa berridazten dela dirudi, alegia, bere seme-alabak jaten dituen munstro gisa irudikatzen dela ETA.

Montoiaren *Azken afaria* hein batean Muñozen eleberriaren iruntzia da, bestelako posizio ideologikotik egina. Kale borrokatik akusazioen ondoren ertzainek atxilotu, torturatu, espetxeratu eta azkenean hildako Eneko Goñiren istorioa kontatzen du eleberriak, oraingoan ere fokua gurasoengan, batez ere aitarengan, jarrita. Estatuaren errepresioaren gordintasuna gazteak ustez egindako delituaren eta jasotako ondorioen arteko desfasearen bidez irudikatzen da, estatuaren aparatu



polizial eta judizialak zein kartzelak pertsonaia suntsitzen baitute. Euskal nobelagintza gehienez estatuaren Beste nagusi gisa desagertu denean, Montoiak haren aparatuen indarkeria bere gordinen jartzen du bistan. Orobat, Eneko Goñiren gurasoen bidez, bere burua indarkeria politikotik urrun ikusi nahi lukeen subjektu abertzalea, EAJren ingurukoa, interpelatzeko du Montoiak, guraso horiek nahitaez politizatzen baitira semeak jasotako errepresioaren ondorioz.

## Idazketaren gatazka

Gatazkari buruzko literatura polemika- eta gatazka-iturri izan da luzaroan, eta, horregatik beharbada, indarkeria politikoa hizpide duten nobela ugaritan idazketaren ekintza bera esplizitu egitera jo dute euskal idazleek, metafikziora, alegia. Aurkitutako eskuizkribuaren eta nobelaren barruko nobelaren teknikak idazlea kontatutako narratibatik urruntzeko eta errealitatearekiko distantzia markatzeko eta aldi berean kontakizuna sinesgarri egiteko bitartekoa dirudi *Mea culpa*-n. Norabide bakarreko gutun-forman garatutako eleberriak, bestalde (*Etxeko hautsa*, *Gaur zortzi*), bigarren pertsonako hartzailea interpelatzeko bidea dira idazlearentzat (narratzailearen aita Lertxundirenean; ETA, Gisasolarenean).

Idazletza, literatura eta hark errealitatearekiko duen funtzioaren inguruko kezka Mikel Antzaren *Atzerri* eta Harkaitz Canoren *Twist* nobelen epizentroan daude, azkenik. Literatur tradizio oparo batek letra-gizona eta ekintza-gizona parez pare jarri baditu (baita euskal nobelan ere), *Atzerri*-n bi identitate horiek pertsona berean batzen dira, Mikel Antzaren ni-an. Eleberri autobiografiko horretan, Antza erbestera joan eta ETAn militarrean erabakitzean, idazteari ez ezik idazle izateari uko egin behar dion egoera da hausnarketa-iturri. Gatazka, beraz, idazlearen eta etakidearen rol sozial eta identitateen artean planteatzen da eleberrian. *Twist*-en ere militantearena eta idazlearena, bi nortasunak batzen dira Diego Lazkano zein Xabier Soto pertsonaiengan. Harkaitz Canok, eleberria egiteko

Lasa eta Zabalaren kasuan oinarritu baitzen, literaturak eta idazleek besteren mina, gatazkaren min erreala ‘lapurtu’ eta hura literatura-gai bihurtzeko luketen zilegitasunaz galdera plazaratzen duela dirudi Lazkano pertsonaiaren bidez, zeinak Sotoren idatziak lapurtu eta horiekin nobelagile bihurtu den.

## Ihesa amets

Finean, beraz, batzuetan besterena nahi litzatekeen ‘gure’ mina islatzera jo du nagusiki euskal nobelak azken urteetan. Euskal irakurlearengandik hurbileko biktima askotarikoak protagonista dituen literatura da azken hamarkadetakoa, gatazkaren erdigunean kokatu ez arren jasotako herentziatik askatu eta ihes egin nahi lukeena, baina nola egin asmatu ezin eta ihes hori fantasia gisa bizi duena. 🌿

## Oharrak

1. Gabilondorekin bat gatoz zera dioenean: «Eztabaida ez da *baden* ala ez den, baizik eta Gatazkak dagoeneko sortu duen bortizkeriaren subjektu traumatizatua euskal literaturak *nola* adierazi duen» (Joseba Gabilondo [2013]: *New York-Martutene. Euskal postnazionalismoaren utopiaz eta globalizazio neoliberalaren krisiaz*, Bilbo, EHU).
2. Ikus, besteak beste, Mikel Sotok apailatutako *Haginetako mina* (Txalaparta, 2008) eta Mikel Ayerbek editatutako *Our Wars. Short Fiction on Basque Conflicts* (Center for Basque Studies, University of Nevada, Reno, 2012) antologiak. Kritika-lanen artean, ikus: Ibon Egaña eta Edu Zelaieta (argk.) (2006): *Maldetan sagarrak. Euskal gatazka euskal literaturan*, Bilbo, UEU; Asier Barandiaran (2011): *Gatazka Nafarroako euskal literaturan*, Bilbo, EHU; Amaia Serrano eta Jon Kortazar (argk.) (2012): *Gatazken lorratzak*, Donostia, Utriusque Vasconiae.
3. Ik. Iratxe Retolaza: ‘Harrera ona (I)’, *Berria*, 2013-12-07.
4. Ur Apalategi (2001): ‘Errealismoaren eraberritzea eta kokapena 90eko hamarkadako euskal literaturan’, in Kirmen Uribe (arg.): *Azken aldiko euskal narratiba. Sortzaileak eta irakurleak*, Bilbo, UEU, 41-56.
5. Eider Rodriguez (2014): *Itsasoa da bide bakarra. Sarrionandia irakurriz*, Donostia, Utriusque Vasconiae.

# Ispilu hautsiaren memoria

Josu Martinez

*Zinegilea eta Ikus-entzunezko Komunikazioan doktorea*

**Euskal auziaren arrazoiak zein diren artikulatuko lukeen film bat, borroka armatuaren arrazoiak, erreprezioarenak, borrokatzen direnen planteamenduen justizia edo justiziarik eza... Horixe litzateke niretzat film politiko bat. Baina, seguraski, film hori ezingo litzateke egin, berehala terrorismoari gorazarre egitea leporatuko litzaiokeelako, borroka justua den ala ez planteatzeko hutsagatik... Filmaren ondorioa «erabat injustua da» izanen balitz ere!**

*Antton Ezeiza*

Nola irakurri diren ETaren jarduna eta estatuaren errepresioa zineman. Horra artikulatu bat zortziko txikian egiteko Jakinetik proposatu didaten gaia. Eskertzen da halako zehaztasuna; izan ere, han-hemenka, behin baino gehiagotan galdetu ohi da ‘euskal gatazka eta zinema’ kontzeptuen arteko uztarketaz jarduteko, egiazki, ‘zinema eta biolentzia Euskal Herrian’ esan nahi delarik.

‘Euskal gatazka’, ordea, azken berrogeita hamar urteotako borroka armatua (bi norantzakoa) baino aise gehiago da, dudarik ez. Eta, horregatik, garrantzizkoa deritzot bata bestearekin ez asimilatzeari, –zinemari dagokionez bederen– aztergaiak definitzerakoan. Biolentzia sustrai sakon eta adar zabaleko arazo nazional baten agerpidea izan da, ez arazoa bera. Eta agerpide horri buruz, fenomeno zehatz horri buruz, ugaria da urtetan metatu den literatura filmikoa. Euskal

gatazka nazionalari buruzko beste zenbait aspekturi buruz, aldiz (gai historikoak, hizkuntza, nortasun eta lurraldetasun gatazkak...), apenas filmatu da deus. Horren arrazoiak askotarikoak izan litezke, eta segurki politikari lotuak ere izanen dira batzuk; baina, horietatik landa, zinemaren izaerak berak horretarako bide ematen duelakoan nago. Gauza jakina da ekintzaren artea dela zinema. Zaila da barne gatazkak edo dialektika filosofikoak irudi bihurtzea. Borroka armatuaren praktika, aldiz, *per se*, ikus-entzunezko narratibarentzat joko handia ematen duten elementuz betea dago (klandestinitatea, konspirazioa, arriskua, sakrifizioa, traizioa, heriotza).

Kontuak kontu, gatazka biolentoaz, edo Jakinekoen hitzak erabiltzeko, «ETAren jarduna eta estatuaren errepresioa» jorratzen duten filmei buruz mintzatuko gara datozen lerroetan. Hamarkadaz hamarkada ekoitzi denaren errepaso historiko bat burutuko dugu horretarako, film bakoitza bere kontestu sozialean kokatuz, eta horri nola erantzun zion gogoetatuz. Izan ere, ondo jakina den bezala, historiaz diharduten filmak aztertzerako orduan, bi tenporalitate historikorekin egiten dugu topo. Bat, filmak errepresentatzen duen momentu historikoa, hots, filmaren barneko denbora. Eta bigarrena, filma sortu den momentu historikoa, hots, filmaren kanpoko denbora. Zentzu horretan, zinemak biei buruzko informazioa emanen digu; eta Rosenstone-k<sup>1</sup> zioen gisan, historiaren lekuko ez ezik, historiaren sortzaile ere bilakatuko da.

## **Gure biolentzia politikoa zineman**

Askotan entzun izan dugu, gatazka armatuak izan dituzten munduko beste hainbat lekurekin konparatuta, Euskal Herrikoa gutxi agertu izan dela zineman. Irlanda, Hego Afrika, Aljeria edota Hego Amerikako borrokei buruzko filmak miresmenez ikusten dira, eta inbidia puntu batez, gurean zinemak halako paperik jokatu ez izana deitoratzen da.

Egia da guk ez dugula ukan *Aljerko bataila*-rik. Egia den ez iparramerikarrentzat, ez Ken Loach eta Costa Gavras

bezalako zinegile europarrentzat, ez garela aski interesanteak edo konplexuak izan, edo konplexuegiak izan garela. Eta zer esanik ez, egia da Euskal Herrian gure gauzaz zinema egitea maiz nekeza izan dela, eta zinema britainiarrak Ipar Irlandako arazoa tratatzeko erakutsitako ausardia eta fineziazatik urrun egon direla gure auzo galiar eta iberoak. Baina hori guztia esanik, ez da egia, inondik ere, Euskal Herriko gatazka biolentoa zineman gutxi jorratu denik. Alderantziz, Franco hil zenetik dozenaka film burutu dira gaiaz Euskal Herrian eta Espainian: De Pablaren arabera,<sup>2</sup> 50 film luze inguru eta 100 labur eta tv movie. Nondik dator, orduan, hutsunea? Nondik zineman umezurtz egotearen sentsazio hori?

Ez da egia, inondik ere, Euskal Herriko gatazka biolentoa zineman gutxi jorratu denik. Alderantziz, Franco hil zenetik dozenaka film burutu dira gaiaz Euskal Herrian eta Espainian

Askotarikoak izanen dira arrazoiak, segurki. Aldiz, objektibagarri samarra iruditzen zaigun arrazoi bat bakarra aipatuko dugu hemen: film anitz ekoiztu diren arren, gutxi izan dira zinez gogoangarriak. Hots, filmen kalitatea, kasu askotan, ez da izan beste herrialde batzuei buruzko lanena bezain nabarmena. Ez dugu izan, zoritxarrez, euskal gehiengo soziologikoa astindu eta gure mugetatik kanpo oihartzuna izan duen film askorik. Halakoxe tristeak izan gara, zinema munduan ere.

Baina sortutako aleak goxoak edo ustelak izan, egin izan dira, egin. Eta zentzu horretan, esan genezake gatazkaren eboluzioarekiko paraleloa izan dela berorri buruzko filmagintza. Gauza logikoa, sorleku duen jendartearen ispilu eta oihartzun baita beti zinema. Hala, lau fase argi ezberdin litezke, gure ustez.

Gutxi gorabehera, 1978tik 1989ra lihoake lehena, *Toque de queda*-tik *Ke arteko egunak*-era: garai hartan film ugari ekoitzi ziren, oro har ETArekiko atxikimendua edo bederen

ulermena erakutsiz, eta euskal militanteak protagonistatzat hartuz. Bigarren fasea 1990etik 1999ra luzatuko litzateke: gatazkaren sasoi nahasiaren isla, zinegileek ihes egin zioten gaiari urteotan. Azkenik, hirugarren fasea, 2000. urtean *Yoyes*-en estreinaldiarekin hasi eta 2012ra<sup>3</sup> artekoa litzateke: aurreko hamarkadako etenaren ondotik, biolentzia politikoari buruzko filmak agertzen hasi ziren berriz, baina 70-80koetakoetatik aski ezberdina izan zen begirada. ETAko militanteengandik biolentziaren biktimgana mugitu zuten fokua. Eta ETArekiko onarpen erromantikotik haren izaera odoltsuaren gaitzespenera igaro ziren film gehienak.

Borroka armatuaren bukaerarekin, fase berri batean sartu garelara esan nahiko genuke. Ordutik hona, zinegileek edozein gai tratatzeko askatasuna irabazi dutela, eta ikusleak ere irekiago eta toleranteago agertzen direla orotariko obrak ikusteko. Baina norabide horretan doazen argi printza mehe batzuk ageri diren arren, zoritxarrez, momentuz ez gara menturatzen halako baieztapen sendorik egiten. Denborak esango du.

## **Lehen hamarkada. Eusko gudariak gara (1978-1989)**

Beste alor guztietan bezala, espainiar diktadore zaharraren heriotzak ordura arte pentsaezinak ziren aukerak ireki zituen zinemagintzan. Hala, amets, agitazio eta eferbeszentzia testuinguru bete-betean, eraikitzekotan zen euskal nazioari legokiokkeen euskal zinema nazionala sortzeko ekimenak sortu ziren berehala. 1976an, Bilboko Cine-Club Universitario elkarteak 'Euskal zinemaren lehen jardunaldiak' antolatu zituen. Urtebete beranduago, Euskal Zine Egille Elkartea sortu zen Donostian. Aldi berean, Bilbo eta Donostiako zinemaldietan sukalderraino sartu zen jendarteko politizazioa, eta horrekin guztiarekin batera, denetariko zinegileek, zinezaleek, kulturzaleek eta handik pasatzen zirenek egunsentira arte eztabaidatu zuten (oraindik sortzeke zegoen) euskal zinemaren izaera ontologikoaz.

Giro hartan, zinema egiteko gogoz zegoen belaunaldi berri baten eskutik, amateur mailako film labur ugari jalgitzen hasi ziren, eta momentuak hala agintzen zuenez, Euskal Herriaren askapen borroka kasik lehentasunezko gai bihurtu zen gehientzat. Biolentzia aldez edo moldez aipatzen zutenen artean, Iñaki Nuñezen *Estado de excepción*<sup>4</sup> (1977), Juan B. Heinink-en *Ikurrinaz filmea* (1977), Juanmi Gutierrezen *Arrano beltza* (1978) edo Mirentxu Loiarteren *Irrintzi* (1978) aipa litezke, besteak beste. Baina herri mugimenduetatik hurbil egon ohi diren film labur amateurretatik kanpo, maila profesionalera eta formatu luzera etorrira ere, sarritan tratatu zen gaia, eta ia beti, ETArekiko sinpatia eta ulermen begirada batetik.

1978an, Iñaki Nuñezen *Toque de queda* estreinatu zen Berlineko Festibalean, eta 1979an, Guillo Pontercorvoren *Operación Ogro* Venezian eta Imanol Uriberen *El Proceso de Burgos* Donostian. Dokumentala izanagatik, azken horrek ukan zuen oihartzun eta arrakasta gehien Euskal Herrian. Zentzu horretan, garaiko tonika zinematografiko orokorraren erakusle da zenbait aspektutan: euskal militanteak eta haien abokatuak dira protagonistak (beste inori ez zaio hitza ematen), eta haien borroka euskal populuaren borrokaren adierazle gisa aurkezten da. Filmaren klimaxa akusatuek epaiketa zapartatu eta *Eusko gudariak* kantatzen hasi ziren momentuan ezartzen du Uribek, eta, hala, eszena epiko indartsua osatuz, ereserkia biolin doinuz entzuten dugun bitartean militanteek egun hartan epaitegian botatako oihu eta proklamak errepikatzen dituzte kamerari begira: «Tribunal hau ez dut onartzen, nire herriak bakarrik juzga nazake!», «Gora Txabi Etxebarrieta!», «Gora Euskadi askatuta!», «Gora ETA!».

Gernikako Estatutua onartuta, ondoko urteetan ugaldutegi ziren EAEn ekoiztutako filmak, Eusko Jaurlaritzak sortu berriaren laguntzak medio. Zinema autonomikoaren aro hau Imanol Uriberen *La fuga de Segovia*-k (1981) ireki zuen, eta segidan etorri ziren zuzenean edo zeharka ETAren eta estatutaren arteko biolentzia gurutzatua gai zuten beste zenbait lan:

Deigarri suerta liteke  
polimilien diskurtsoaren  
hegemonia  
filmikoa, jendartean  
(eta abertzale  
mugimenduan) zuen  
indarra askoz txikiagoa  
zela kontuan hartuta

1983an Eloy de la Iglesiaren *El pico*, Arthur Mac Caigen *Euskadi hors d'État* dokumentala eta Inaki Aizpururen *Erreporteroak / Los reporteros*, 1984an Imanol Uriberen *La muerte de*

*Mikel*, 1985ean Javier Rebolloren *Golfo de Vizcaya*, 1986an Ernesto del Ríoren *El amor de ahora* eta Alfonso Ungriaren *Ehun metro* euskarazko erdimetraia, 1988an Ana Diezen *Ander eta Yul...*

Gehienetan, borroka armatuaren onarpen erromantikoan ñabardurak agertzen ziren, hala ere. Hala, fikzioaren eraikuntza dramatikoan funtsezkoa den antagonisten jokoa ETA on eta ETA

gaiztoaren arteko kontrastearen bidez ebatzi zen hainbat kasutan. Etakide onbera 'bigunak' eta etakide krudel 'gogorrak' aurkezten zitzaizkigun. Hots, ooren buru, politiko-militarrak eta militarrek.

*Operación Ogro, La fuga de Segovia, Erreporteroak, Euskadi hors d'État, Ehun metro* edota *Ander eta Yul*-en, besteak beste, militante arrazoitsu eta itsutuen arteko dialektika agertzen zen eszenaren batean edo pelikula osoan zehar, azkenean, gehienetan siglak aipatu gabe bada ere (propaganda onari dagokion bezala), ETA genuinoa –erromantikoa, gizatiarra, bortitza baina zentzuduna– politiko-militar adarraren eta Euskadiko Ezkerraren planteamenduekin lotuz.

Deigarri suerta liteke polimilien diskurtsoaren hegemonia filmiko hori, jendartean (eta are, abertzale mugimenduan) zuen indarra askoz ere txikiagoa zela kontuan hartuta. Hori ulertzeko, ordea, ohartzekoa da sektore horretako kide esanguratsu zenbait zinemaren munduan birziklatu zirela urteotan aktore, gidoilari eta batez ere ekoizle gisa. Txepi Lara eta Angel Amigo ditugu horren adibide argienetakoak. Amigo, hain zuzen, 80ko eta 90eko hamarkadetan euskal zinema autonomikoaren ekoizle boteretsuenetakoa izan zen.



Lehen hamarkada hori Antton Ezeizaren *Ke arteko egunak* filmak itxiko luke. Lan bakana, arrazoi askorengatik. Batetik, jatorrizko bertsioa euskarazkoa izan zelako (garai hartan, film gehienak espainolez filmatu ziren, eta gero, Jaurlaritzaren laguntzak jaso ahal izateko, euskarazko bertsio bikoiztu bat egin). Bestetik, Espainiako Kultura Ministerioaren laguntza jaso zuelako, Eusko Jaurlaritzarenaren orde. *Ke arteko egunak* ez zen biolentziaren gaia propio tratatzen zuen film bat, baina borroka armatuaren eta espainiar errepresioaren giroa oso presente zegoen trama guztian, finezia dialektikoz agertuz, lantzean-lantzean. Gauza askotan ondo zahartu ez den lana izan arren, besterik ez bada elkarrizketa batzuen balioagatik, errekuiperatzea merezi izango lukeen filma da, gure ustez.

### **Bigarren hamarkada. Batailaren itzalean (1990-2000)**

90eko hamarkadan, modaz pasatu zen biolentziari buruzko zinema egitea: hura burutzeko baldintzak gaitzotu ziren, eta, finean, aurreko urteetan hainbeste jorratutako gaia desagertu egin zen pantailetatik. Zenbait historialarik, 90etan zinema egiten hasi ziren gazteek biolentziari (eta, oro har, Euskal Herriko gaiei) zergatik ihes egin zioten esplikatzeko, 'gaindosia' zutela aipatu izan dute. Aspertuta zeudela gehiegizko politizazioaz. Arrazoi horregatik, gai unibertsalagoetan babestu omen zen Alex de la Iglesia, Julio Medem, Juanma Bajo Ulloa, Enrique Urbizu, Daniel Calparsoro eta enparauen belaunaldia, eta, azkenean, Madrilera joan.

2014an Euskadiko Filmategiak Donostian antolatutako 'Euskal zinema: zinemagileen hiru belaunaldi' kongresuan, horietako batzuk arrazoibide hori baieztatu zuten, *enfant terrible*-aren postura biktimista batetik. Hots, Eusko Jaurlaritzak gatazkari buruzko euskal film abertzaleak bakarrik subentzionatzen zituen, eta haiei hori interesatzen ez zitzaieenez, alde egin behar izan zuten. Calparsororen hitzetan:

Madarikatuta geunden, nazionalismoaren gaiagatik, hizkuntza-rengatik edo dena delakoarengatik. Miopia sufritu dugu, ez gintuzten aski euskaldun kontsideratzen. Kontua da ipurtzulotik eman zigutela, eta horregatik egin genuela alde.<sup>5</sup>

*Boutade*-aren zorroztasun falta gorabehera (akusazioa gezurtatzeko, aski da ikustea zenbat euskarazko film abertzale subentzionatu ziren 90eko hamarkadan EAEn),<sup>6</sup> Calparsorok esaten ez duena da nondik zetorren Euskal Herriko gaiekiko haien interes falta. Gaindosia edukiko zuten seguru aski, eta hizkuntza zinematografikoaren forma berriak esploratu nahiko zituzten beharbada, baina horrekin batera, egoera politikoaren gaiztotze etengabeak ere izanen zuen zerikusirik, dudarik gabe.

Bajo Ulloak, adibidez, hala azaldu zuen 1992an zergatik ez zion gaiari heltzen:

Oraintxe bertan, ezinezkoa da film politiko bat egitea, eta are gutxiago ETari buruz. ETA goxoki bat da edozein zinegilerentzat... ETaren hasieraz, arrazoiak eta arrazoi ezak film bat egitea... Ustedut edonori gustatuko litzaiokeen goxokia dela, baina gaur-gaurkoz pentsaezina da. Erokeria hutsa.<sup>7</sup>

2014ko mahai inguruan Calparsororen ildotik mintzatu zen Enrique Urbizuk berak zazpi urte eman omen zituen Bernardo Atxagaren *Zeru horiek* nobela filmatu nahian bi hamarkada lehenago. Egitasmo sonatua izan zen, prentsan hainbatetan aipatu zena; baina, dirudienez, kartzelatik ateratzen den etakidearen istorioa ez zen egikaritu finantziazio faltagatik eta ekoizleen uzkurutasunarengatik.<sup>8</sup>

Nolanahi dela, zailtasunak zailtasun, ETaren eta estatuaren arteko biolentzia gurutzatua presente egon zen 90eko hamarkadako film gutxi batzuetan. Koldo Izagirreraren *Amor en off / Off-eko maitasuna* (1991), Mario Camusén *Sombras de una batalla* (1993) eta Imanol Uriberen *Días contados* (1994) horren adibide. Azken horrek, Madril komandoko etakide bat protagonista zuen arren, beste norabait bideratzen zuen trama, eta arrakasta gaitza lortu zuen Espainian. Izagirrek, aldiz, euskal preso baten neska-lagunak beste mutil batekin

bizi izandako maitasun istorioa kontatzean, egur galanta jaso zuen... *Egin*-etik.

## **Hirugarren hamarkada. Begiak dira mintzo (2000-2012)**

Lizarra-Garaziko garai itxaropentsuak zinegileak biolentziaren gaiari berrekitera anima zitezen lagundu zuen. Hala, bake prozesu hark iraun zuen denbora laburrean, zenbait proiektu jarri ziren martxan. Nabarmengarriena, agian, Helena Tabernaren *Yoyes*-i buruzko filma izan zen. Proiektu ausarta, gertakari dramatiko haren ikuspegi humano eta poliedriko bat osatu nahi zuena, biktimizazio erraza baino sakonago joanez. Estreinatu aurretik *El Mundo*-k zioenez, ez zen sobera fidatzekoa: «Bere izena ez esatea eskatu duen norbaitek gidoia irakurri du, eta hiru hitzetan definitu digu: ‘anbiguo, izugarri anbiguo’». <sup>9</sup> Baina ETAre su-etenak erraztu egin zuen Madrileko ekoiztetxe ezagun bat proiektuan sartzea, eta 1998ko bake giroan hasi zen filmaketa. Helena Tabernak berak horrela gogoratu zituen, zenbait urte beranduago, bere sentsazioak:

Errodajea zinez erosoia izan zen. Airean sentitzen zen itxaropen eta ilusio giroa zegoen kalean. Eta erosoia izan zen batez ere ilusio eta itxaropen giro horregatik, su-etenari lotutako arazorik eza-gatik baino gehiago. Eta uste dut filma bera ere giro horren parte zela. Errodaje denboran, ingenuitate handiz, pentsatzen nuen adiskidetzear lagunduko zuen film bat izanen zela; eta ez zela berriro atentaturik izanen... <sup>10</sup>

Zuzendariaren desioak ez ziren bete, eta filma bukatu zenerako, akabo zen su-etena. ETA eta estatua berriro elkarri egurra ematen hasiak zirela estreinatu zen *Yoyes*, 2000. urtean. Baina testuinguru erraza izan ez arren, filmak aski harrera ona lortu zuen bai publikoaren eta bai kritikaren aldetik. Apustu ausarta zen, modu ez sinplista batean eta ikuspegi humano batetik gatazkako gertakari mingarri bat kontatzekoa. Eta Tabernari ondo atera zitzaion.

Hurrengo urteetan, *Yoyes* filmak zabalduko *humanizazioaren* biderei segitu zioten zenbait zinegilek. Ildo horretatik, ETaren biktimen edo hark mehatxatutako pertsonen drama pertsonala kontatzen zuten zenbait pelikula agertu ziren lehenik. Dokumentalean, Elias Querejetak idatzi eta Eterio Ortegak zuzendutako *Asesinato en febrero* (2001), *Perseguidos* (2004) eta Ermuko Foroaren munduko Iñaki Artetak zuzendutako *Trece entre mil* (2005) eta *El infierno vasco* (2008). Fikzioan, berriz, Manuel Gutiérrez Aragónen *Todos estamos invitados* (2008), Gorka Merchanen *La casa de mi padre* (2009) edota Jabi Elortegik euskaraz zuzendutako *Zorion perfektua* (2009) aipa litezke. Denetan, ETaren biolentziaren edo mehatxuen traumatismoak gizabanakoei nola eragiten dien tratatzen zen, pertsonaren sentimenduetan zentratuz, eta haren aurrean ETak, ezker abertzaleak edota batzuetan abertzalego osoak izandako itsukeria eta fanatismoa salatuz.

Estatuaren errepresioak jotako pertsonen kasuen gaineko filmak beranduago hasi ziren pantailan agertzen, eta askoz era xumeagoan. Industrietatik kanpo egindako dokumentalak izan ziren denak, diru publikorik hunki ez zutenak eta zir-

kuitu komertzialetik kanpo erakutsi zirenak. Hala ere, haietako zenbait Donostiako Zinemaldian onartu zituzten. 2008an, Txiki eta Otaegiren inguruan Iñaki Agirrek egindako *Haizea eta sustraiak* estreinatu zen; 2009an, GALEk hildako *Txapela* etakidearen alaba Haizeren istorioa, hots, neuk zuzendutako *Itsasoa-*

*ren alaba*; eta 2010ean, Txaber Larreategirekin batera Kristiane Etxaluz militantearen eta haren bikote Alfonso Etxegarai deportatuaren inguruan ondu genuen *Sagarren denbora*. Bestalde, Zinemalditik kanpora, 2012an, bost zuzendariren artean bost presoren inguruko *Barrura begiratzeko leihoak*

Estatuaren errepresioak  
jotako pertsonen  
kasuen gaineko filmak  
beranduago hasi ziren  
pantailan agertzen, eta  
askoz era xumeagoan

film kolektiboa estreinatu genuen, pertsekuzio eta boikotez betetako bide luze eta triste baten ostean.<sup>11</sup>

Geuk ere pertsonak ekarri nahi genituen lehen planora geure lanekin. Ezkutatuta zegoen memoria bat, komunikabideetan agertzen ez ziren minak azaleratu. Eta gure txikitasunean, hein batean lortu genuelakoan nago. Bederen, ondoren etorriko zirenentzat bidea pixka bat urratu genuela. *Itsasoaren alaba* filmarekin, bereziki, oso gogoan dut zenbat jende etortzen zitzaidan hunkituta, Haizeren begietan haienak aurkitu zituztela esanez. «Azkenean! Azkenean halako zerbait!», esan zidaten maiz. «Neu naiz pelikula horretako haurra. Nire istorioa kontatzen du zure pelikulak; oso antzeko egoerak bizi izan nituen nik». Haientzat, jendez betetako zinema sala batean ordura arte horrela agertu ez ziren istorioak ikustea nolabaiteko aitortza publikoa izan zen. Haien zaurien errekonozimendua. «Azkenean».

Urte haietan, beraz, ugariak izan ziren gatazkek kolpatutako pertsonak zentroan jarri zituzten filmak. Baina beste klabe batzuetan egindako lanak ere izan ziren. Batetik, gerra zikinari dagokionez, El MundoTV-ren bi ekoizpen: Miguel Courtoisek zuzendutako *El Lobo* (2004) eta *GAL* (2006). Biek, *El Mundo* egunkariaren tonu sentsazionalistatik hurbil, sinesgarritasun falta handia zeukaten, batzuetan nahi gabe erridikuluaren mugara irristatuz. Bestetik, berriz, alde guztien ahotsa bildu nahi zuten dokumental objektibitate asmo onekoak, panoramikoak. Horietan ezagunena, dudarik gabe, Julio Medemen *La pelota vasca* (2003) izan zen, filmaren balioarengatik bezainbeste, haren inguruan sortutako polemika, mehatxu eta boikot saiakerengatik ezagutua. Alta, izan ziren gisa bereko beste saiakera batzuk ere; adibidez, TV3 kate katalanarentzat Gorka Espiauk zuzendutako *Pluja seca* (2011) eta *Parlan els ulls* (2012) interesanteak.

Angel Amigoren hamarkada honetako lanak ere ezin aipatu gabe utzi. Ez naski haien kalitateagatik, baina bere ideologiako kideen memoriarekin 'zinema' egiten segitu duelako, horretarako beti finantziazioa lortuz. Amigok Perturren

desagerpenari buruzko *El año de todos los demonios* zuzendu zuen 2007an, eta 2012an Jesus Egigurenek bake elkarrizketez egindako kontakizuna biltzen duen *Memorias de un conspirador*, biak dokumentalak. Tarte horretan, historiako euskarazko pelikularik garestiena izan zen *Dragoi ehiztaria* fikzioa ekoitzi zuen. El Salvadorko gerrillan borrokan dabilen polimili baten istorioa 2012an estreinatu zen azkenean, Patxi Barco zuzendariarekin arazo larriak izan ondotik.<sup>12</sup>

Bukatzeko, sailkaezinen artean, Jaime Rosalesen *Tiro en la cabeza* (2008) legoke. Estilo ariketa batean bezala, ETAko militante batek Capbretonen bi guardia zibil hiltzen dituen momentura arteko egunerokoa kontaktzen zuen, batere dialogorik gabe. Apustu ausarta bezain arriskutsua zen, esperimentaltasunaren mugetan zegoena, eta ez zuen arrakasta handirik lortu, ez publikoaren ez kritikaren partetik.

### **Azken hitzak. Laugarren hamarkadarantz: etorkizuna, memoria eta errelatua(k)**

Azken urteotan, biolentziaren inguruko filmen uztak loditzen segitu du, urtero ale bat edo bi emanaz. Zentzu horretan, funtsean aurreko faseko ildoei jarraitzen dieten lanak badira ere, esan liteke emeki-emeki helduz doazela bai proposamen filmikoak, baita ere publikoak eta kritikak haien aurrean erakutsitako jarrerak.

Duela urte gutxi, nekez ikusiko zen Borja Cobeagaren *Negociador* bezalako komedia bat begi onez, eta pentsaezina izango zen *Lasa eta Zabala* bezalako film bat (Pablo Malo, 2014) egitea ez abertzale ez euskaldun ez den zuzendari batek, eta Zinemaldiko sail ofizialean aurkeztea. Urte bat lehenago estreinatutako *Asier eta biok* (Amaia eta Aitor Merino, 2013) lanak izandako harrerak ere normalizazio bidean goazela pentsaraz lezake. Funtsean, guk gure lanekin geneukan helburu antzeko batetik abiatuta (ETAko kidea zen bere laguna pertsona normal gisa aurkeztea), gu baino askoz urrunago iritsi eta sekula lortu ez genuena lortu baitzuen:

hots, ausardiaz, inteligentziaz eta ondratuki jokatzuz, Asierren antipodetan zegoen jende zenbaitek filma ikusi eta onartzea. Ez hori bakarrik: urte hartako Donostiako Zinemaldian, Euskal Zinemaren Irizar saria irabazi zuen.

Ez genuke gure burua tronpatu behar, hala ere. Itxaropenerantz seinalatzen duten argi printzak printza, oraindik ere iraganeko jarrera eta inertzia asko dago gure gizartean. Oraindik ere, badira tabuak, ez da xamur zenbait gai tratatzea, eta sinpleki ez da posible zenbait gai tratatzea peaje batzuk ordaindu gabe. Eta oraindik ere, eta hau da garrantzitsuena, urrun gaude euskal gizartearen gehiengoak eroso ikusi eta onartuko duen filma egitetik.

Azken finean, garrantzi handiko joko zelai sinbolikoa da zinema. Eta jokoan dagoena ez da gutxi. Jokoan dagoena errelatua da. Hala, inork ez du laxatuko bere borondatez. Momentuz, errelatuaK dauzkagu.

Esana dugu lehenago: errepresentatzen duen jendartearen ispilua da zinema. Horregatik, preseski, ispilu hautsi batek bezala funtzionatu du orain arte, irudi osatugabe eta distorsionatuak itzuliz. Jendarteak bere zatiketak gainditzen dituenean, gure gatazkaren isla osoa ikusiko dugu pantailan. Elkarri lotutako puskek osatutako irudi betea, baina zaurien pitzadurak agerian dituena. 🌀

### Oharrak

1. Rosenstone, R.: *El pasado en imágenes*, Bartzelona, Ariel, 1997.
2. De Pablo, S.: *The Basque Nation On-Screen*, Reno, Center for Basque Studies, 2012.
3. ETAk behin betiko su-etena 2011ko urrian aldarrikatu bazuen ere, fase hau 2012ra arte luzatu dugu, film baten ekoizpen prozesua luzea denez, hainbat kasutan 2012an estreinatutako lanek zerikusi gehiago daukatelako armak utzi aurreko egoerarekin ondorengoarekin baino.
4. *Estado de excepción* filmeko ekipo guztiak kartzelan bukatu zuen lana dela eta. Espazio faltagatik artikulu honetan gaian sakondu ez badugu ere, oso nabarmentzekoa da espainiar estatuak sistematikoki mehatxatu, pertsekutatu, boikoteatu edo eta zentsuratu dituela 'onargarriak' iruditzen ez zitzaizkion euskal gatazkari buruzko filmak: *Ama Lur, Estado de excepción, Erreferenduma (Ikuska 0), El proceso de Burgos, La pelota vasca, Barrura begiratzeko leihoak...* Gai horri buruz gehiago jakiteko, ikus Mikel Garciak *Argia*-n idatzitako erreportajea ([www.argia.eus/blogak/mikel-garcia/2012/06/28/zinemak-sufritutako-jazarpen-politikoaren-hainbat-adibide](http://www.argia.eus/blogak/mikel-garcia/2012/06/28/zinemak-sufritutako-jazarpen-politikoaren-hainbat-adibide)).
5. <http://m.noticiasdegipuzkoa.com/2014/07/04/ocio-y-cultura/el-len-guaje-patria-de-la-segunda-generacion>
6. Gorka Bereziartuak datuak eskuan erantzun zion bere blogean ([www.argia.eus/blogak/boligrafo-gorria/2014/07/04/zinegile-basko-desen-fokatuentzat-memoria-ariketa](http://www.argia.eus/blogak/boligrafo-gorria/2014/07/04/zinegile-basko-desen-fokatuentzat-memoria-ariketa)).
7. Roldan Larreta, C.: 'Una apuesta suicida; ETA en el cine de Euskadi', *Ikusgaiak* 5, 2001, 181-205.
8. [www.tercerainformacion.es/spip.php?article36326](http://www.tercerainformacion.es/spip.php?article36326)
9. Izquierdo, R.: 'El secreto persigue a Yoyes', *El Mundo*, Suplemento Crónica, 1999-04-25.
10. Roldan Larreta, C.: 'Yoyes: historia y vicisitudes de un proyecto cinematográfico', *Sancho el Sabio* 34, 2011, 135-156.
11. Jasan genuen pertsekuzio eta boikotaz eta filmak utzitako frakaso sentsazioaz gehiago jakiteko, ikus hainbat komunikabidetan argitaratu nuen artikulua ([www.berria.eus/paperekoa/1513/007/001/2013-02-09/inbentarioa.htm](http://www.berria.eus/paperekoa/1513/007/001/2013-02-09/inbentarioa.htm)).
12. [www.berria.eus/albisteak/69614/dragoi\\_ehiztaria\\_filmean\\_zuen\\_ardurari\\_uko\\_egin\\_dio\\_patxi\\_barco\\_zuzendariak\\_amigorekin\\_haserre.htm](http://www.berria.eus/albisteak/69614/dragoi_ehiztaria_filmean_zuen_ardurari_uko_egin_dio_patxi_barco_zuzendariak_amigorekin_haserre.htm)



# Gatazka, normalizazioa eta feminismoa

Zuriñe Rodriguez

*UPV/EHUko Politika eta Administrazio Zientzia Saileko ikerlaria*

**E**uskal Herriko gatazkaren irakurketa feministaz hitz egitea, zaintzaz, gorputzaz, botere harremanez, esparru publiko eta pribatuaz, identitateaz, pribilegioaz, hegemoniaz eta subalternitateaz hitz egitea da. Euskal Herriko gatazken irakurketa feminista bat egitea ez da soilik emakumeek zein gizonek gatazkan izan duten paperaz aritzea (eta aldi berean bada). Irakurketa feminista egiten dugunean, gatazken teoria egiten ari gara, euskal gatazka bera osotasunean irakurtzeko saiakera.

Hori dela eta, Euskal Herriko gatazken irakurketa feministetan –ez dago irakurketa feminista bakar eta homogeenoa bat; ezta gatazka bakar eta homogeenoa bat–, ETAz, biolentziaz, errepresioaz, kartzelaz, estatuaz, Espainiaz, bakeaz, eta abarrez hitz egin beharko dugu. Hori lortze aldera, kontzeptu bakoitza birdefinitu beharko dugu, errealitatea eta gatazkek ulertzeko beste marko interpretagarriago eta lagungarriago bat proposatuz.

Egungo nazioarte mailako zein Euskal Herriko testuinguru politiko, sozial eta ekonomikoak, euskal gatazka armatuaren irakurketa eta kritika feminista beharrezkoa ez ezik, osoena, konplexuena, eztabaidatuena, kolektibizatuena eta egitaratuena izatea ahalbidetzen du. Aldi berean, Euskal Herrian

mugimendu feministaren indartze prozesu bat gertatzen ari da, eta horrek dakartzan ondorioak biziki lagungarriak izaten ari dira, eta izango dira, gatazkaren eztabaidari indarrez eta sakontasunez heltzeko. Gainera, irakurketa bera hegemonikoa bihurtzeko aukera handiak ireki dira. Baina, zein dira aukera horiek? Zergatik da egungo testuingurua biziki lagungarria feminismoarentzat? Nola ari da baliatzen feminismoa aipatutako testuingurua gatazkaren irakurketa berri bat egiteko? Ba al dago euskal gatazkaren irakurketa feminismoaren agenda politikoan? Eta, egotekotan, zein dira egiten ari diren ekarpenak?

## **Irakurketaren testuingurua: feminismoaren autoritate ukaezina**

Azken urteetan euskal mugimendu feministaren artikulazio gaitasuna handitu da, eta horren adibide dira 2014ko abenduaren 13an Ondarroan izandako Emakume Abertzaleen VI. Topaketa Feministak. Bertan 400 emakume bildu ziren, herriko kale guztiak okupatuz, Euskal Herrian bizitzen ari garen egoera berri honetan euskal feminismoaren estrategia zein izango den eztabaidatzeko eta oinarri politiko komun bat adosteko. Feministek, migratzaileek, lesbianek, transek eta bioemakumeek, guztiek batera, euskal feminismoaren aro berri bati hasiera eman zioten.

Momentura arte, euskal feminismoaren artikulazioaren bul-tzatzaile nagusia abortuaren aldeko borroka izan zen; baina Gallardón ministroaren dimisioaren ostean (2014-09-22), borroka horrek ekarri zuen ondareaz baliatuz (emakume gazte askoren atxikimendua eta mobilizazio gaitasuna handitzea), euskal gatazkaren irakurketa feminismoaren agendan indarrez sartzea lortu da. Hori dela eta, VI. Topaketa horiek inflexio puntu kualitatiboa suposatu zutela esan dezakegu, gunea bera estrategiko eta historikoa bihurtuz.

Artikulazio eta atxikimendu gaitasuna handitzeari esker, bestetik, mugimendu feministak mobilizazio erreperitorio

berriak abiarazi ditu (gaueko manifestazioak Donostian, Bilbon edo Iruñean, kasu). Forma berri horiekin bere betiko hizkuntza politikoa eta politika egiteko erak berritu ditu, ilusioa eta desira sortuz batzuegan –atxikimendua zabalduz–, eta harridura beste batzuegan –feministen kontrako biolentzia sinbolikoa eta zuzena handituz–.<sup>1</sup> Hizkuntza forma berri horietan, gatazka armatuetan ohikoak diren hainbat mobilizazio elementu berreskuratatu dira. Formetan emandako aldaketak, eta hemendik aurrera ere eman beharrekoak, antzak izan arren, lau besterik ez ditugu aipatuko hemen.

Hasteko, gorputzak berriz estaltzen hasi dira, batez ere gaueko manifestazioetan. Buruko estalki moreak eta jantzi beltzak erabiliz, identitatea lausotzen da, izengabetasuna berreskuratzen da eta era sinboliko batez klandestinitate eta alegialitate logiketara eramaten gaituzten oroitzapenak suertatzen dira.

Bigarren elementu bat iluntasuna da. Ekintza politikoa, ekintza feminista, alegia, askotan iluntasunean suertatu-ko da (ikus Sagar Moreen Iraultza Hernanin), gaua espazio politiko baliagarri bezala berreskuratuz. Dakigunez, gaua gatazka armatuekin erlazio zuzena duen elementua da; askotan erlazio samingarria, gainera, atxiloketa masiboak gauean izaten baitira normalean.

Hirugarrenik, sua elementu zentrala bilakatzen da mobilizazioetan; baina mugimendu feministak historikoki suari emandako botere araztailea alde batera uzten da (akelarreak, adibidez), eta suak duen suntsitze ahalmenean zentratzen du bere marko ekintzaile berria. Zentzu honetan, manifestazioetan argi-zuziez baliatzen dira feministak, eta espazio publikoetan erreketak egiten dituzte (horren adibide, ‘panpina matxiruloen’ erreketak kolektiboak egin dira Gasteizen edo

Mugimendu feministak mobilizazio errepertorio berriak abiarazi ditu. Forma berri horiekin bere betiko hizkuntza politikoa eta politika egiteko erak berritu ditu

Iruñean). Sua inoiz baino elementu politikoagoa bihurtzen da, haserre kolektiboa erakusten baitu eta autodefentsarako lana-besa bilakatzen baita. Sua, berriz, erasoei zuzenean erantzuteko gaitasuna duen elementutzat jotzen da. Oraingoan, atxiloketa bati ordeztu, jaietan eman daitezkeen eraso sexistei emango zaie erantzuna. Baina, suak, zeharka, Euskal Herriko gatazka armatuaren oroitzapen gogorrenetakoetara proiektatzen gaitu.

Azkenik, identifikatutako laugarren elementu berria lelo feministen berriztapenekin erlazionatuta dago. Hau da, feministek Euskal Herriko gatazka armatuaren urte gordinetan erabili izan diren leloak berreskuratu dituzte eta, berrizendatze prozesu baten ostean, esanahi politiko berria eman diete. «Lesbiana da bide bakarra», «Feminismoa ala hil», «Ante el agresor cóctel molotov» edota «Denok eman behar dugu zerbait etxekoandreek dena eman behar ez dezaten» leloen bitartez, egungo errealitatea bera berrinterpretatzen dute; hori bai, betiko errealitatean –errealitate gatazkatsuan– ohikoa izan den diskurtsoa baliatuz, marko propioa sortu dute.



Baina, zergatik egiten diete etengabeko erreferentzia euskal mugimendu feministaren mobilizazio forma berriek urteetan zehar gatazka armatuaren baitan garatu diren logika, ekintza eta mobilizazio markoei? Eta, batez ere, zertan laguntzen edo oztopatzen du horrek Euskal Herriko gatazkaren irakurketa feminista?

Etengabeko erreferentziak eginez, oharkabea, gatazka armatuaren narratibekin hitz egiten dute feministek. Leloekin

jolastuz, buruko estalkiak berreskuratuz edota sua elementu suntsitzaile gisa erabiliz, gatazkan bizitako hainbat sentsazio mobilizatzea lortzen dute (horietako asko mingarriak izanik; adibidez, beldurra edo identitate falta). Berreskuratzeaz gain, berrinterpretatu egiten dituzte, eta horrekin lortzen dena da gatazkaz hitz egiten hastea baina beste modu batez. Maila formal batean eztabaidatu ordez, kalean eta gorputzarekin hasten da eztabaida. Ekintza kolektiboaren bitartez, gatazkan sortu diren narratiba androzentrikoak narratiba feminista bihurtzen dira. Hau da, emakumeak dira espazio publikoa okupatuko dutenak, gauean suarekin jolastuko direnak eta leloak asmatuko dituztenak. Hizkuntza androzentrikoa hizkuntza feminista bihurtuz, eztabaidak hastea askoz errazagoa da. Mekanismo horien bitartez, gatazka feminismotik irakurtzeko prozesuari hasiera ematen zaio; eta, prozesuan betiko markoetan dauden elementuez baliatuta, gatazkan ireki diren hainbat zauri sendatzen hasten dira.

Gatazka armatua bizi izan duten beste herrietako mugimendu feministek bezala –Kolonbiako ‘Ruta Pacífica’-ko emakumeak (Sánchez, 2013) edo Guatemalakoak (CALDH, 2014)–, ekintza kolektibo feminista gatazkan jasandako minen eta biolentzien sendatze prozesu bihurtzen da. Euren hizkuntza erabiliz, eztabaidatu, hitz egin eta pentsatzeko prozesuak ahaldunduz ditu. Kolektiboki jarduteak ematen duen plazeraren bidez (panpina matxirulo bat erretzea, adibidez), gatazkaren ondorioz jasaten den indarkeria patriarkalaren identifikazioa eta ezaugarritzea era eraginkorrago eta kolektiboagoan burutzen da.

Beraz, jendartearentzat baliagarria izango den gatazkaren irakurketa askotarikoa egiterako orduan, feminismoak erakusten digun lehenengo gauza irakurketa hau da, prozesuan bertan arreta ipini beharko dugula. Hau da, narrazio eta pentsatzeko prozesuak berak gatazkarekin mantentzen dugun erlazio samingarria txikitzeko lagungarria izan behar duela, eta, aldi berean, gatazkan esperimendatutako plazer politiko eta bitalak mahaigaineratzeko balio beharko digula. Hala ez

balitz, gatazkari buruzko irakurketa beste irakurketa bat besterik ez izateko arriskua dago. Kritikoa eta konplexua, agian, eta mahai gainean generoaren inguruko botere erlazioak jarriko lituzkeena, baina botere desoreka horiek sendatzeko balioko ez diguna. Hori dela eta, 'gatazka osteko' egoera batean, genero desoreka horri etorkizuneko perspektiba batekin aurre egingo lioketen politika publikoak sustatzeko arriskua dago, iraganarekin lasaitasunez eta zintzotasunez solastu barik. Hau da, 'bakean dagoen gizarte berriari' adabakiak ipintzekoa, baina 'gizarte gatazkatsu eta zaharraren' egituretan sakonki sartu gabe.

Hizkuntza eta lanabes berri horietaz baliatuta, inoiz Euskal Herrian izan ez duen autoritatea du egun feminismoak. Subjektu politikoa izatetik subjektu estrategikoa izatera igaro da, beste aktoreek gatazkaren irakurketan duten hegemoniari aurre egiteko eta eurekin eztabaidatzeko ahalmena lortuz.

Euskal gatazkari  
buruzko irakurketa  
konplexuagoak  
eta argigarriagoak  
burutzen  
dituzten ikerketa  
feministak geroz eta  
ugariagoak dira

Aldi berean, gainera, euskal gatazkari begira, akademian ere autoritate feminista bat sortu da eta dagoena indartzen ari da. Autoritate berri hori, gaztea izateaz gain, mugimendu feministan murgilduta dago. Horren ondorioz, euskal gatazkari buruzko irakurketa konplexuagoak eta argigarriagoak burutzen dituzten ikerketa feministak geroz eta ugariagoak dira, momentura arte landu gabeko ikerketa lerro berriak irekiz eta

nagusi izan diren irakurketekin zuzenean talka sortuz. Euskal autoritate akademikoa, beraz, lausotu egin da, gizonezkoen erabateko erreferentzialtasunarekin bukatuz.

Horren adibide baliagarri eta interesgarria Bilgune Feministako kide den Oihana Etxebarrieta burutzen ari den ikerketa da. Etxebarrietak, hainbat emakume preso politiko ohien esperientziaz baliatuta, galdera sakon bati heltzen dio:

erlazio afektibo sexualak espetxe garaian askatasun gune edo une? (Etxebarrieta, 2013). Gure sozializazioan oso presente dagoen instituzioa da kartzela. Analisi politikoetan erreferentzia asko egiten ditugu kartzelari buruz; baina, inoiz ere ez diogu arreta ipintzen –edo oso gutxitan, behintzat– sexualitateak, amodioak edo bikote harremanak nola gertatu diren era kritiko batean aztertzeari; eta hori, besterik ez, gatazkaren irakurketa feminista egitea da.

Kartzelan nola maitatzen edo larrua jotzen dugun analizateak gatazkarekin zerikusi handia du, gatazka bera delako kartzelara eraman gaituena. Baina, aldi berean, horrelako analisi bat egiteak gatazkan izan diren botere harremanak ulertzeko baliagarriagoa izan daiteke, baita sistema patriarkalarekiko gertatu diren hausturak azaltzeko ere. Esaterako, kartzelaldia amodio erlazio berriak eta transgresiboagoak bizitzeko gune aproposa izan daiteke, erlazio lesbikoak izateko edo polimaitasuna praktikatzeko, adibidez. Kasu honetan, gatazka armatuaren ondorioz, edo, hobe esanda, gatazka armatuari esker, patriarkatua mantentzeko oinarrizkoak diren bi elementurekin apurtzen da batzuetan: heteroarauarekin eta monogamia inposatuarekin. Gatazkek irakatsi digun gauza da hori. Eta ‘normalizazio’ egoera batean lagungarria eta berreskuragarria izan daiteke, sistema patriarkala hausteko jadanik praktika batzuk inplementatu izan ditugulako gatazkaz baliatuz.

Beste batzuetan, ordea, neska asko, mutil-laguna presoan izanda, erlazioari denboran eustera behartuak sentitu izan dira «maitasunak dena gainditu dezake» mito erromantikoa aitzakia hartuta eta kartzelan dagoena ‘gudaria’ delako. Kasu horretan, aldiz, gatazka armatuari esker sistema patriarkala elikatu eta indartu egin da, eta hori ere kontuan izan beharko genuke gure etorkizuna eraikitzerakoan. Analisi hori adibide hartuta, feminismoa gatazkaren irakurketan egiten ari den saiakeraren sakontasuna ikus daiteke.

Hori guztia gutxi bada, gainera, akademia eta mugimenduaren arteko elkar ezagutza trukatzeko eta sortzeko guneak

eraikitzen ari dira nonahi. Adibide bakar bat aipatzearren, Iruñean UEUko udako ikastaroen barruan antolatutako 'Euskal Herriko gatazkaren irakurketa, etorkizuneko bake feministaren bidean' ikastaroa dugu (2015-07-20/21).<sup>2</sup> Bi egunetan, bake eta gatazka kontzeptuei errebisio kritiko feminista bat egin zitzairen, batetik, militantzia eredu androzentrikoak identifikatu zituzten, bestetik, eta euskal iruditeria patriarkalei buruz solastu zuten, azkenik.

Testuinguru hori guztia ikusita, ukaezina da euskal feminismoak egun lortu duen autoritate eta analisirako gaitasuna, Euskal Herriko aktore garrantzitsuenetariko bat bihurtuz. Kritikak eta ekarpenak feminismoaren esparru guztietatik gauzatzen ari dira eta begirada/errebisio propio feministak jadanik gizarteratzen hasi dira.<sup>3</sup> Baina, zein dira feministok Euskal Herriko gatazkari egiten dizkiogun ekarpenak?

## **Bakea da emakumea, gizona da biolentzia**

Jendarte patriarkala jendarte binomikoa da. Bertan, emakumeak eta gizonak fabrikatzen dira eta bakoitzari ezaugarri zehatz batzuk esleitzen dizkiogu. Emakumea da gizona ez den hori guztia. Gizona publikoa, produktiboa, subjektua, razionala eta maskulinoa da; emakumea, ordea, pribatua, erreproduktiboa, objektua, irrazionala eta femeninoa. Ezauzgarri horiek guztiak betetzen ez dituzten gizonak maritxuak dira, ez gizonak, alegia. Hau da, emakumeak izateko arriskuan dauden gorputzak bihurtzen dira. Emakumeen kasuan, putak, mari-mutilak, desbideratuak, gaiztoak, lesbianak eta eroak dira; ez emakumeak (Wittig, 1973). Baina 'ez emakumea' izateak ez du inola esan nahi gizona bihurtzeko arriskuan egotea; 'ez emakume' izatea zigor sozialera, ostrazismora eta kartzelara (emakume presoak 'ez emakumeak' dira) eramango gaitu (Lagarde, 2003).


Gatazka armatu batean murgilduta dabilen jendartearen ere binomikoa da. Gatazka batean bizi den herria biolentzia normalizatzen duen herria da (Rodríguez, 2015), eta biolentzia



bakea ez den hori guztia bezala ulertu izan dugu tradizional-ki. Jendarte patriarkal batean, bakea vs biolentzia binomioan, bakea emakumeei eta biolentzia gizonari esleitzen dizkiegu, bakearen ezaugarri estereotipiko guztiak emakumeei inposatuz eta biolentziarenak gizonari:

<b>Bakea</b>	<b>Biolentzia</b>
<i>Emakumea</i>	<i>Gizona</i>
Baketsuak	Biolentoak
Zaintzaileak	Gudariak
Ahulezia	Indarra
Koldarkeria	Ausardia
Kontziliazioa	Borroka
Amodioa	Odolzaletasuna
Hitzak	Armak
Ikusezinak	Heroiak

Gatazka armatuan gizonari zein emakumeei ezaugarri zehatz batzuk gehitzen dizkiegu, zuzenean gatazka definitzeko lagungarriak izango zaizkigunak (ikus goiko taula). Horrela, edozein jendarte patriarkalean, genero estereotipoei gatazka estereotipoak gehitu behar dizkiegu. Gatazkan ere emakumeak eta gizonak fabrikatuko ditugu, baina fabrikazio prozesua (sexualizazio prozesua) askoz konplexuagoa izango da. Emakumeek aldi berean gauza asko izan behar dutenez, kategoria binomikoak bikoizten dira eta euren arteko tentsioak eta bateraezintasunak handitzen dira. Ezaugarrien arteko konpatibilitateak, ordea, gutxitu egiten dira. Esaterako, gatazka armatuan emakume on bat fabrikatzen dugunean, aldi berean emakume baketsua sortzen ari gara. Baina, emakume baketsua ezin da emakume biolentoa izan, eta biolentoa den heinean ez da ona izango, gaiztoa baizik. Emakume gaiztoa, orduan, beti emakume biolentoa izango da (ikus hurrengo irudia). Iruditeria kolektiboan gudariak onak dira, baina biolentzia erabil dezakete; orduan, emakume bat gudaria izan daiteke? Gatazkan fabrikatutako gizonak gizonagoak izango dira, maskulinoagoak eta arragoak. Aldiz, emakumeak emakumeagoak izango dira; beraz, maskulinitate eta feminitate normatiboen blindaje bat gertatuko da gatazka eremuetan.



Hori guztia kontuan izanda, gatazka armatua espazio publikoan gudariak armekin ausardia eta razionaltasunez gauzatu duten borroka izango da. Gizonen agertoki politiko eta sinbolikoa, beraz, bere maskulinitatea indartu eta eraikitzeko gune aproposenatarikoa. Gizon batzuek osatzen dute gatazka eta beste gizon batzuen kontra borrokatzen dute. Gatazka euren bada, bakea ere euren izango da ia ziur: gizonen bakea gizonen erakia eta gizonen bideratua egongo da soilik. Zuen bakea (gizonena) ez da inolaz gurea (emakumeena) izango.

Jule Goikoetxearen aburuz, bakea eta gatazka patriarkatutik pentsatu izan dira, eta horren ondorioz ideologia androzentriko batetik definitu diren kontzeptuak dira. Sistema patriarkal batean bakean bizi den jendarte gatazka eta biolentzia ezarekin elkarbizitzen den komunitate bezala ulertu dugu. Gizarte baketsua da gizarte normala, eta gatazkatsua anormala. Feminismoak sistema patriarkala sistema biolento bezala definitzen duen heinean, bakea utopia androzentriko bat besterik ez da izango; existitzen ez den hori, emakumeentzako behintzat. Zergatik? Sistema patriarkal batean emakumeen kontrako biolentzia norma delako, hau da, egoera normala, egoera baketsua. Biolentzia pairatzea eta bakean bizitzea ez da inolaz bateraezina patriarkatuan (Goikoetxea, 2015). Beraz, Euskal Herriko bakeak, edo normalizazioak, ez du inolaz emakumeen bakea ekarriko, hiltzen eta biolentzia pairatzen jarraituko dugulako.

Baina, nola aldatu egoera hori? Gatazkaz hitz egin baino, gatazkei buruz hitz egin behar dugu. Hau da, gatazka bakoitza ezaugarritu (armatua, lan eremuko, emakumeen kontrakoa, ekonomikoa...) eta denei izaera politikoa eman. Ez dago gatazka bakar bat; badago gatazka hegemoniko bat (armatua), eta besteak subalternoa bezala identifikatu ditugu (laborala, ekologikoa...). Gainera, subalternitate horren barruan ere badaude batzuk besteak baino hegemonikoagoak direnak –laborala migrazioarena baino garrantzitsuagoa da–. Patriarkatuaren ondorioko gatazka bazterrean egon den gatazka izan da beti, ia ikusezina. Feminismotik erdigunera pasatzeko eta gatazka hegemonikoarekin erlazionatzeko erantzukizuna dugu. Horretarako, gatazka armatuan egon diren identitate androzentrikoak eta identitate horiek gatazkan bete duten tokia zein izan den identifikatzeko gai izan behar dugu.




## Izozmendiaren metafora

Euskal Herriko gatazkek izozmendi baten antza du: ikusten den atal bat du (publikoa), eta ur azpian dagoen beste bat (pribatua). Biek existitu behar dute izozmendiak iraun dezan, baina kanpotik begiratzen dugunean, hau da, irakurketa patriarkal batetik begiratzean, goikoa bakarrik existitzen dela pentsa dezakegu. Goiko atalean eztabaida politikoa eta

borroka armatua gertatzen da, eta behekoan, bitartean, eztabaida eta borroka horri eusten zaio. Ur azpian, gatazkan parte hartuko duten gorputzak elikatzen eta janzten dira, arropa garbitzen zaie..., eztabaida eta borrokarako prestatzen dira. Prestaketa hori beste gorputz batzuek egiten dute, noski. Maitatuak, laztanduak eta bihotz arinduak ailegatzten dira gorputz horiek gehienetan izozmendiko goiko aldera.

Baina, nor dago atal bakoitzean? Goiko aldean, alde publikoa den heinean publikotasunerako heziak izan diren subjektuak egongo dira, hau da, publikotasun ezaugarriak dituztenak: indarra, kemena, borrokarako grina, razionaltasuna. Gizonak! Beheko aldean, alde pribatuan, pribatutasunerako hesituak eta pribatutasuneko ezaugarriak dituzten subjektuak topatuko ditugu: ahulak, beti maitatzeko prest, emozionalak. Emakumeak! Gizonak ikusgarrienak izan arren, emakumeak dira, batez ere, gatazka eusten dutenak.

Halere, gehiengo horrela den arren, izozmendien fluxuak eta trantsizioak izaten dira askotan. Gorputzak etengabe ari dira mugimenduan; goiko ataletik behera eta alderantziz. Askotan, emakumeak dimentsio ikusgarrira pasatzen dira, plazara edo armetara jauzi eginez. Nola egiten da jauzi hori? Edonor pasa daiteke? Zein dira jauzi horien arriskuak eta ondorioak?



## **Merezi duen bizitza/heriotza. Norena?**

Butlerren ikerketatik abiatuta, gatazka armatu batean bizitza bera zalantzan dago, arriskuan. Gorputz guztiak guda-zelai bilakatzen dira, eta, bizitza 'ez segurua' bihurtzen denez, gure egunerokoa bizitza galeraren sentazioarekin bizi gara. Zaurgarritasuna 'bake' egoeran baino askoz ohikoagoa da gatazka armatuan. Horren ondorioz, heriotzarekin harreman normalizatuagoa agertzen da. Gatazkan, orduan, badaude gorputz bizidunak eta gorputz bizigabeak. Azken horiek batzuentzat gudariak edota terroristak izango dira, eta biktimak edo biktimarioak.

Bizitza bat galtzen denean, edota galtzeko arriskuan dagoenean, dolua agertuko da, eta doluaren bitartez bizitza horri negar egingo diogu. Gainera, bizitza/heriotza bakoitza, gorputz bakoitza, alegia, sexualizatua egongo da. Hau da, ezaugarri zehatz batzuk izango ditu bere sexu-generoaren arabera, eta gatazkaren atal batean edo bestean kokatuko da. Erdigunean, ertzetan edo gatazkatik at (Aretxaga, 1988; Butler, 2009).

Baina, Euskal Herriko gatazkan akaso bizitza guztiak berdinak izan al dira? Hobe esanda, heriotza guztiak berdinak al dira? Heriotza guztiek jasotzen dute dolu berdina? Edozein gorputzek merezi du dolua eta negarra? Galdera polemikoa planteatu dugu hor, eta erantzun argia: Ez! Bizitza guztiek ez dute negar berdina mereziko.

Izozmendiaren eskema berreskuratzen badugu, zeinek merezi dute gehiago? Ikusgarriagoak direnak, atal publikoan daudenak, eztabaida politikoa eta gatazka armatua egiten dutenak. Gizon publiko militanteak, batez ere. Beste aldean, dolua merezi ez duten bizitzak, edo hobe esanda, dolua

Zeinek merezi dute dolu eta negar gehiago? Ikusgarriagoak direnak, atal publikoan daudenak, eztabaida politikoa eta gatazka armatua egiten dutenak. Gizon publiko militanteak, batez ere

egiten dutenak. Horiek ikusten ez den atalean egongo dira, atal pribatuan. Emakumeak gehienbat, alegia. Lehenengoak gatazkaren erdigunean egongo dira eta bigarrenak ertzetan.

Euskal Herriko gatazkan hiru bizitza/heriotza mota aurkitu ditugu. Batetik, *negarra merezi duten bizitzak* daude. Horiek erdigunean daude, gatazka mantentzen dute, *full time*-ko militanteak dira. Beti prest eta eskuragarri daude eta denetara ailegatzen dira, ondo gainera. Bizitza horiek galtzen direnean, dolua jasotzen dute, gudari bihurtuz. Baina, bizitza/heriotza horiek, izozmendiak bezala, beste bizitza batzuk dituzte beti ezkutuan eurak eusten. Horiek identifikatu ditugun bigarren motatako bizitzak dira: *negar egiten duten bizitzak*. Gatazkaren ertzetan daude ia beti, eta erdigunean dagoen beste bizitza/heriotza eusten ematen dute bere denbora. Amak, neska-lagunak, arrebak eta abar dira. *Full time*-ko zaintzaileak dira. Beti zaintzeko prest, laguntzeko prest, maitatzeko prest eta gainera eskuzabaltasun osoz. Bizitza horien galerak normalean ez dakar dolurik, eurak baitira dolua egiten dutenak. *Full time*-ko militanteak *full time*-ko zaintzailea du gehienetan.

Identifikatu dugun azken bizitza/heriotza da problematikoena. *Negarra merezi ez duten bizitzak* dira. Horiek, negarra behar duten bizitzak izan arren, negar egiteko hezi dituzten bizitzak dira. Hau da, ama, neska-laguna edo alaba –*full time*-ko zaintzaileak, alegia– gatazkaren erdigunera pasatzen direnean gertatuko da, militanteak bihurtzen direnean. Iozmendiko beheko ataletik goikora trantsizioa gertatzen denean. Euren lekua ez da gatazkaren erdigunea; beraz, nola egongo dira han?

Erdigunera ailegatzeko eta bertan mantentzeko prozesua gatazkatsua egiten zaie emakume askori. *Full time*-ko militante bihurtu behar dute eta, aldi berean, *full time*-ko neska-lagun izan behar dute. Zaila benetan. Hori horrela izanik, emakume askok bi rola bete beharko dituzte aldi berean; horren ondorioz, nekez agertzen dira erdigunean, denetara ailegatzea ezinezkoa delako. Gainera, zaintzeko eta ez borrokatzeko heziak izan direnez, militantzian gehiago direla erakustera behartuak

sentitzen dira, etengabeko ebaluaketa batean egongo balira bezala. Azkenik, salbuespenak diren neurrian, alboan dituzten beste pertsona guztiek (*full time*-ko beste militante zein *full time*-ko zaintzaileek) beraiekin harremantzeko arazoak dituzte. *Full time*-ko militante gizona ez dago ohitua *full time*-ko militante neska-laguna, besterik ez, izaten. *Full time*-ko militante neska-laguna izanik, ezin du inolaz ere bere *full time*-ko zaintzailea galdu. Erokeria emakumearentzat! Bere bizitza galtzen denean, hiltzen denean, alegia, ez du dolurik jasotzen, ez da gudari bihurtzen, ez dutelako horretarako hezi.

Gatazkek emakumeen rol tradizionala gainazpikatzeko aukera irekitzen du. Sarekada handiak daudenean eta gazte asko atxilotuak direnean, espazio publikotik hainbat gorputz desagertzen dira, eta gorputz edo bizitza berriek euren lekua bete behar dute, borrokak aurrera jarraitu behar duelako. Horrelako egoeretan, emakumeen gorputzak espazio pribatuko mugak gainditzeko aukera sortzen da eta militante bilakatzeko aukera erreala. Hori bai, *full time*-ko zaintzaileen ezaugarriekin ailegatzten dira izozmendiko goiko aldera, eta ziztu bizian *full time*-ko militanteen ezaugarriekin uztartu behar dute bere militantzia. Baina, borroka bukatzean, zer gertatzen da? ‘Bake’ egoeran ere hainbeste gorputz behar al dira? Gatazkan aukera ireki da emakumeak etxetik ateratzeko eta plazara jauzi egiteko, gatazkek berak behar dituelako gorputzak; baina, bakean jadanik egoera ‘normalera’ itzultzen da. Denak normalitatera itzuli behar du. Eta emakumeen egoera normala izozmendiko beheko aldean da, zaintza. Beraz, ‘normalizazio’ garaian emakumeak plazetatik iraitzeko arriskua dago, berriz bere espazio normatibora bidaliz: etxera eta armairura, alegia.

## Ondorioak

Bost ideiarekin laburbil dezakegu esandakoa.

Batetik, euskal feminismoa, orain arte subjektu politikoa izan bada, egun Euskal Herriko gatazkaren irakurketa egiteko autoritate ukaezina duen aktore politikoa bilakatu da.

Gainera, bigarrenik, irakurketa horretan jadanik feministok ekarpenak egiten ari gara. Bakearen eta gatazkaren definizioak konplexutzen ari dira, adibidez, eta euren kutsu patriarkalean jarri da arreta.

Hirugarrenik, gatazka, gizonen leku politiko eta sinbolikoa izateaz gain, euren maskulinitatea eta autoritatea indartzeko

erabili izan da askotan. Gatazka bakar bati buruz (armatua) hitz egitera baino, dauden gatazka guztiei buruz hitz egitera gonbidatzen gaitu feminismoak.

Laugarrenik, gatazka gizonena izan bada, 'bakearen' negoziazioa soilik euren izateko arriskua dagoela plazaratzen du kritika feministak. Beraz, bakea ez da

izango soilik desarma, presoen hurbilketa eta abar; bakea generoen arteko harremanen birnegoziazioarekin etorriko da soilik.

Azkenik, gatazkaren bi dimentsioak erlazionatzeko gai izan behar dugu, eta bakoitzean emakumeek zein gizonek zer rol bete izan duten jakin behar dugu. Dimentsio publikoan, eztabaida eta borrokarako espazioan, *full time*-ko militanteak egon dira beti; dimentsio pribatuan, ordea, *full time*-ko zaintzaileak. 🌱

Gatazka gizonena izan bada, 'bakearen' negoziazioa soilik euren izateko arriskua dagoela plazaratzen du kritika feministak



### **Oharrak**

1. Biolentzia handia pairatu zuten, adibidez, Gasteizko feministek Andra Mari Zuriko jaietan egindako ekintza feminista ostean (2015-08-07). Informazio gehiagorako, irakur *El Correo* egunkaria ekintza osteko egunetan.
2. Antolatzaileak Arantza Santesteban, Zuriñe Rodriguez eta Oihana Etxebarrieta izan ziren.
3. Horren adibide, Hamaika telebistan *IDEMtitateak* saioan eman zuten ‘Euskal Estatua, baina feminista?’ atala ([www.hamaika.eus/tb/bideo/79289](http://www.hamaika.eus/tb/bideo/79289); berreskuratua: 2015-08-26).

### **Bibliografia**

- Aretxaga, B. (1988): *Los funerales en el nacionalismo radical vasco*, Donostia: Baroja.
- Butler, J. (2009): *Frames of War. When Is Life Grievable?*, Londres eta New York: Verso.
- CALDH (2014): *Las voces de las mujeres persisten en la memoria colectiva de sus pueblos*, Guatemalako Hiria: CALDH.
- Etxebarrieta, O. (2013): *Erlazio afektibo sexualak espetxe garaian askatasun (g)une? Hainbat euskal emakumeren esperientziak*. Masterreko ikerketa proiektua (EHU, Leioa).
- Goikoetxea, J. (2015): *Bakea ez da existitzen, feminismoa bai*. UEUren ‘Euskal Herriko gatazkaren irakurketa, etorkizuneko bake feministaren bidean’ udako ikastaroan emandako hitzaldia (Iruñea, 2015-07-20).
- Lagarde, M. (2003): *Los cautiverios de las mujeres. Madresposas, monjas, putas, presas y locas*, Mexiko Hiria: Universidad Autónoma de México.
- Rodriguez, Z. (2015): *Euskal Herriko gatazkari berrirakurketa feministak*. UEUren ‘Euskal Herriko gatazkaren irakurketa, etorkizuneko bake feministaren bidean’ udako ikastaroan emandako hitzaldia (Iruñea, 2015-07-20).
- Sánchez, M. (2013): *Acciones colectivas de las mujeres por la paz en Colombia*. Masterreko ikerketa proiektua (EHU, Leioa).
- Wittig, M. (1973): *Le Corps lesbien*, Paris: Les Éditions de Minuit.

# The End of ETA: errelatuaren borroka akademian

Imanol Murua Uria

*Kazetaria, UPV/EHUko Kazetaritza II Saileko irakaslea  
eta Jakin Taldeko kidea*

2014ko urriaren 13an *The New York Times*-en editorialetako batek euskal gatazka izan zuen hizpide. Kataluniaz ari zela, editorialgileak zioen Espainiak baimendu egin beharko lukeela galdeketa, Erresuma Batukoak Eskoziakoa bezala. Adostasunaren balioaren argudioa indartzeko, euskal kasua aipatu zuen irtenbide negoziatuaren eredu gisa. Alegia, munduan sinesgarritasun handienetakoa duen egunkaria ez da jabetu ETaren jardun armatuaren bukaera, funtsean, alde bakarreko erabakia izan dela, eta, «euskal separatistekiko gerra luzea» bukatu baldin bada, bi aldeek negoziatzea hitzartu dutelako bukatu dela utzi du idatzita. Hemerotekan topatuko dute esaldia etorkizuneko historiagileek.<sup>1</sup>

Egia da 2011ko urri aurreko azken txanpan elkarriketa guztiz sekretuak izan zirela ETA eta Zapateroren gobernuaren artean, nazioarteko artekarien bidez, eta bide orri baten gaineko adostasuna ere lortu zutela, inork ezer sinatu ez zuen arren. Baina adostasun aitortu gabeko hark ez zuen, Aieteko Konferentziaz harago, emaitzarik eman, Zapateroren gobernu erdi hilak batere urratsik egin gabe eman ziolako lekukoa hurrengo gobernuari, eta Rajoyren gobernuak ez zituelako aurrekoaren konpromisoak aintzat hartu. Jakina da: ETaren

borroka armatua ez zen negoziazio prozesu baten ondorioz bukatu, ezker abertzalearen erabaki alde bakarrekoaren ondorioz baizik. Honenbestez, *The New York Times*-en editorialgileak oker handia egin zuen euskal gatazka armatuaren bukaera bi aldeko irtenbide negoziatuaren emaitza izan zela adierazi zionean munduari. Galdera berez dator: euskal auziari buruz zer informazio jasotzen dute munduan, horrelakoak posible izateko?

## Whitfielden ekarpena

New Yorkeko berripapereko editoriala baino hilabete gutxi batzuk lehenago plazaratu zuen *Endgame for ETA* liburu ondo oinarritua New Yorkeko Unibertsitateko ikerlari Teresa Whitfieldek.<sup>2</sup> Kontaktari buruzko eztabaidaren erdian, albiste ona izan da. Berri ona da, ingelesez argitaratu diren lanetan ez baita ohikoa halako zehaztasun eta zorrotzasunez aztertzea euskal gatazkari buruzko gorabeherak; eta berri ona da, ez baita ohikoa –ez ingelesez ez bestelako hizkuntzatan– ETAREN bukaera prozesuari hain begiratu zabalarekin erreparatzea, amaiera molde horren faktore askotarikoak kontuan hartuta. Modu koherentean kontaktzen du, euskal abertzaletasunaren sorreratik hasita 2011ko urriaren 20ra arte, ETA armak uztera zerk eraman duen, ñabardura askorekin eta akats nabarmen gutxirekin. Meritu nagusia: kanpoko irakurleari eta ikerlariari gatazka politiko konplexu baten inguruabarrean kokatzen dio la ETAREN arazoa, talde armatuari erantzukizunik kendu gabe.

Henri Dunant zentroan aholkulari gisa aritutakoa da Whitfield, zentro horretako zuzendari ohi Martin Griffithsekin elkarlanean sinatutako artikulurik badu<sup>3</sup> eta harreman zuzena du Jonathan Powell bitartekariarekin ere –liburuaren aurkezpenean aita ponteko izan zuen mahaiian–. Eta ezagun du. Sinesgarritasun handiarekin kontatu du nazioarteko artekariak nola lagundu duten ETAK bandera zuria atera zezan. *Virtual peacemaking* deitu die negoziazio mahairik gabeko negoziazioei, bake prozesurik gabeko bake ahaleginei, bi

aldean arteko enkontrurik gabeko bi aldeko harremani, alde bakarreko erabakia gauzatzeko prozesu alde askotari-koari. Baina ezagun du, baita ere, dakien guztia ere ez diola kontatzen irakurleari, bitartekariekin bide dituen konfiantza harreman horiek eskuak lotu balizkiote bezala.

Oro har, ados Eileen Paquette Jack kritikariarekin: euskal gatazkari buruzko kontakizunik «aberatsen, orekatuen eta eguneratuenen artean» dago Whitfieldena.<sup>4</sup> Merezi izandako lekua izango du euskal auzia-ri eta ETari buruzko ingelesezko erreferentziazko lanen apalean, besteak beste Robert Clark, John Sullivan, Joseba Zulaika, James Jakob, Daniele Conversi, Paddy Woodworth, Ludger Mees, Begoña Aretxaga, Cameron Watson, Diego Muro edota Igor Ahedoren aldamenean.<sup>5</sup> Artikulu monografikoa ere mereziko luke Whitfielden liburuak, baina ez da hori idazlan honen helburua, ETaren bukaeraz ikerlariak argitaratu dutenari buruzko ikuspegi orokorra ematea baizik, ingelesez plazaratutakoari arreta berezia jarrita.

Bitartekaria ez ezik liburu egilea ere bada Jonathan Powell. Tony Blairren kabinete buru gisa esku hartze garrantzitsua izan zuen Irlandako prozesuan. Horren testigantza eman zuen *Great Hatred, Little Room* liburuan.<sup>6</sup> Gerora, Henri Dunanteko zuzendari ohi Martin Griffithsekin batera InterMediate erakundea sortu eta beste hainbat prozesutan aritu izan da bideratzaile lanetan, besteak beste Euskal Herrikoan. 2011n, *Talking to Terrorists* liburuan, 2005-2007ko prozesuaren hainbat gorabehera ezezagun kontatu zituen, anekdota mailakoak gehienak.<sup>7</sup> Harrigarrienak, bi hauek: bata, Josu Urrutikoetxea, aurrena, eta Xabier Lopeze Peña,

Whitfielden liburuaren meritu nagusia: kanpoko irakurleari eta ikerlariari gatazka politiko konplexu baten inguruabarrean kokatzen diola ETaren arazoa, talde armatuari erantzukizunik kendu gabe

ondoren, ETArenean negoziatzen aritu zirenean Suitzan, segurtasunaren ikuspegitik batere bermerik gabe aritu zirela, Henri Dunant zentrokoen babes hutsarekin, edozein unetan atxilotuak izateko arriskupean; bestea, prozesuari buruzko akta ustez ondo gordeak txiripaz ez zizkietela lapurtu Henri Dunantekoei, lapurrek kutxa gotor bateko paperak ebatsi zizkieten egunean, kasualitatez, zentroko kide batek euskal auziko paperak etxera eraman zituelako. Ez da euskal auziari buruzko liburua, ezta talde armatuekiko negoziazioei buruzko azterketa akademikoa ere, bere jardunean oinarritutako lekukotasun bilduma baizik. Beste liburu bat argitaratu berri du Powellek, *Terrorists at the Table*,<sup>8</sup> baina lau urte lehena-goko liburu bera da ia, zatirik handienez *copy-paste* hutsa, 2011tik aurrerako zenbait kontu isolatu salbu.

## **Terrorismoaren akademikoak**

Interesgarria da Powellek bi liburuotan elkarrizketaren baliabideari ematen dion garrantzia eta, ildo honetan, terrorismoaren bukaerari buruzko aditu akademikoei egiten dien kritika. 2001eko irailaren 11tik asko garatu da terrorismoaren ikerketaren diziplina –*terrorism studies*– Ameriketako Estatu Batuetan. Esparru horretako ikerlarietako batzuk talde armatuen bukaera moldeen ikerketan nabarmendu dira, hala nola Audrey Cronin, Leonard Weinberg eta Seth Jones eta Martin Libicki. Croninek, Marta Crenshaw aitzindariaren ildoari jarraiki,<sup>9</sup> talde armatuek esku hartzen duten gatazken sustrai politikoak oso kontuan hartzeko joera du. Besteek, aldiz, terrorismoa segurtasun arazo gisa aztertzen dute gehiago. Guztiek ere, ehunka talde armaturen bilakaera jasotzen duen datu baseak hartzen dituzte ikerketen oinarri, terroristatzat dituzten talde guztiak zaku berean sartuz, eta hortik saiatzen dira joera orokorrak ondorioztatzen. Horixe leporatzen die, hain zuzen ere, Powellek: oinarri sozial eskaseko taldeak eta oinarri sozial handikoak zaku berean sartzea, eta hortik denentzako ondorio orokorrak ateratzea. Powellek arrazoiz dio ez direla

konparagarriak ETAk edo IRAk bezala herritarren zati esanguratsu baten sostengua izan duten taldeak eta Brigada Gorriek edo RAFek bezala oso sostengu mugatua izan dutenak; eta horien kasuan elkarrizketa beharrezkoa izan ez bada ere, oinarri soziala dutenen kasu ia guztietan dela beharrezkoa.<sup>10</sup>

Talde armatuen bukaera moldeak aztertu dituzten egileok ez diete ETAREN kasuari askorik erreparatu. Guztiek sartzen dute ETA euren datu baseetan, alegia, talde terroristen zaku handi horietan, baina inork ez du euskal kasuari buruz ezagutza sakonik erakusten. Jones eta Libickik liburua argitaratu zutenean, 2008an, ETA oraindik aktibo zegoen; eranskinean besterik ez dute aipatzen, taldeen zerrendan.<sup>11</sup> Weinberg ikerketa idazten ari zenean ETA bukaera prozesuan sartua zegoen, baina aipamen orokor pareta besterik ez dio eskaintzen, besterik gabe esateko ETAREN historian ohikoak izan direla borroka armatuarekin segi nahi izan dutenen eta utzi nahi izan dutenen arteko borroka.<sup>12</sup> Croninek liburua 2009an plazaratu bazuen ere, gertatzen ari zenaz ezagutza edo intuizio hobea erakutsi zuen, mugimenduaren adar politikoa nagusitzen ari zela eta horrek borroka armatuaren bukaera ekar zezakeela aurreikusi baitzuen.<sup>13</sup>

Ezagun du, oro har, euskal gatazkaz ingelesez argitaratutako lanen urritasuna muga handia dela hizkuntza horretan diharduten ikerlariontzat. IRARI buruz egile horiek beraiek egiten dituzten aipamenak eta analisiak, adibidez, ugariak, aberatsak eta zorrotzagoak dira, ugariak eta aberatsak baitira Irlandako gatazkari buruzko lanak.

## Norbere lubakitik

Whitfielden ikerketaz gain, ezer gutxi aurkituko dute orain ere ingelesez ari direnek. Baina bada zerbait. Ezker abertzalearen errealitatea gertutik ezagutzen dutenen hainbat azterketa eskura dituzte orain gutxitik. Julen Zabalo eta Mikel Saratxok, lehenago Jakinen bezala,<sup>14</sup> *Ethnicities* aldizkarian plazaratu dute ETAREN erabakiaren arrazoiei buruzko lana.

Argudio nagusia: ETAk, batetik, ondorioztatu zuen negoziazioaren bidea agortu zela eta, borroka armatua aktibo zegoen bitartean, fronte nazionalaren bidea ere ez zela bideragarria; konturatu zen gero eta zailagoa zela borroka armatua justifikatzea, «ideal demokratikoaren» aldarrikapena egiten zuen bitartean; Estatuaren jazarpenak zaildu egin zion borroka armatu eraginkorra egitea; azkenik, ohartu zen inguruabar horretan borroka armaturik gabe aurrerakuntza politiko handiagoak lor zitezkeela, indarkeriarik gabe posible izan zitezkeelako abertzaleen arteko elkarlana.<sup>15</sup>

Bost urte lehenago, Zabalok berak Urko Aiartzarekin batera sinatu zuen beste artikulu bat ezker abertzalearen bilakaerari buruz. Ingelesez diharduten ikerlarientzat artikulu baliagarria, irakurketa historikoagatik ez ezik, bilakaera horretan giltzarriak izan diren agiriak ingelesez argitaratu zituztelako, hala nola ETaren Alternatiba Demokratikoa (1995), Lizarra-Garaziko Adierazpena (1998), Anaitasunako Proposamena (2002), Anoetako Adierazpena (2004), Altsasuko Adierazpena (2009) eta Zutik Euskal Herria ebazpena (2010).<sup>16</sup> Gorka Elejabarrietak ere –Sortuko nazioarteko harremanetarako arduraduna gaur egun– alea jarri berri du, askoren arteko liburuan, ezker abertzalearen aldaketaren arrazoiak etxe barrutik emanda: funtsean, ezker abertzaleak ondorioztatu zuela indarkeria oztopo bihurtu zela prozesu politikoa beste fase batera eramateko.<sup>17</sup>

Mundu akademikoan lubakiez hitz egitea zilegi bada, juxtu kontraktotik egin ditu ekarpenak Rogelio Alonsok. Gazteleraz ari denean, azkenaldian, José María Aznar buru duen FAES fundazioaren aldizkarian argitaratzen du. Ingelesez, ordea, itzal handiko aldizkaritan argitaratu izan du; besteak beste, *Terrorism and Political Violence*. 2011ko urtarrileko su-etena-  
ren ondoren idatzitako artikuluan –su-etena aipatzen baitu– ETAk estrategia politiko-militarrari eusten ziola argudiatzen zuen. «Why do terrorists stop?» galdetzen du artikulua-  
ren izenburuan, baina, borroka armatua utzi izanaren arrazoiak aztertzean, disidentzien historia egitera mugatzen da egilea;

2011ko ETari buruzko irakurketan, armak uzteko asmoaren arrazoiak beharrean indarkeriaren iraupenaren arrazoiak aztertzen ditu: batetik, Zapateroren negoziazio ahaleginek indartu egin zituztela indarkeriaren aldekoen argudioak, armen eraginkortasunean sinesteko arrazoiak eman zizkietelako; eta, bestetik, nazionalismoak inplizituki zilegitasuna ematen diola terrorismoari eta, gainera, indarkeriaren azpikultura elikatzen duela.<sup>18</sup> Artikulu berriago batean, sarri aipatu duen tesia luze lantzen du: Zapateroren traizioa. Hau da, M-11ren ondorioz agintea hartu ondoren, Terrorismoaren aurkako Ituna hautsiz negoziazioaren bidez ETA polizialki garaitzeko aukera alferrik galdu eta terrorismoari eutsi nahi ziotenei arnasa nola eman zien azaltzen du.<sup>19</sup> Alonso ez da bazterreko ikerlari bat. Badu eragina. Euskal gatazkari buruz ingelesez gehientsuen argitaratu duen ikerlaria da.<sup>20</sup> 2011n Renoko Unibertsitatean 'Political Violence and Terrorism' ikastaroa egin nuenean, adibidez, irakurgai derrigorrezkoen artean euskal auziari buruzko bakarra zegoen: Alonso zen egilea.

Ingelesez diharduen munduan oso kontuan hartzen dituzten aditu espainiarren artean daude Fernando Reinares eta Ignacio Sánchez-Cuenca ere.

Ez dira Alonso bezala tesi politiko zehatzak defenditu zale; gehiago jotzen dute ETaren errealitatearen arlo zehatza-  
goak aztertzeraz, fenomeno 'terrorista' gisa hobeto ulertze aldera, metodologia kuantitatibo nahiz kualitatiboak baliatuta. Reinaresek gehiago aztertu izan ditu etakideen

soslaiak eta arrazoiak,<sup>21</sup> eta Sánchez-Cuencak gehiago erakundearen estrategiak, atentatuen ezaugarriak eta jomugak.<sup>22</sup>

Gero, *Peacemaking in the Basque Country* bezalako broamak daude; edo nola den posible zientzia politikoetako doktore batek euskal eragile ugariarekin elkarrizketak egin ondoren

Ingelesez diharduen munduan oso kontuan hartzen dituzten aditu espainiarren artean daude Rogelio Alonso, Fernando Reinares eta Ignacio Sánchez-Cuenca



euskal bake prozesuaren azken urteen kontakizuna argitaratzea 2013an, 2006ko su-etenaren aurretik ETAREN eta Espainiako Gobernuaren artean harremanik izan ote zen ziur jakin gabe, 2006ko irailean hastekoa zela jakin zuen «zerbait inportante» hori zer izan zen argitu gabe –ezezaguna baita oraindik, egilearentzat, Loiolakoa–, eta 2011ko urrira bitartekoa 2006an hasitako etenik gabeko bake prozesuaren beste urrats bat besterik ez balitz bezala azalduta, Barajasko atentatua eta 2007ko haustura aipatu ere egin gabe.<sup>23</sup> 294 orriko eta edizio txukuneko bitxikeria horren azalpena argitalexaren izaeran dago: ingelesez *vanity publisher* esaten zaionetakoa da; alegia, egileei kobratu egiten diete liburua argitaratzeagatik, kalitateari erreparatu gabe.

Aldrebeskeria gehiago ere topa daitezke, gutxi bilatuta ere. Foreign Policy Research Institute-ren *Orbis* aldizkarian, terrorismo gaiak hiru hamarkadatan ikertu omen dituen aditu bat gai da ETAREN bukaeraren azterketa egiteko 2011ko urriaren 20ko erabakia aipatu gabe, eta hilabete lehenago EPPK-ko presoek Gernikako Adierazpenari emandako atxikimendua ETAREN aurkako disidentziatzat aurkezteko.<sup>24</sup>

## Propagandistak, zientzialariak eta beste

Ez da harritzekoa *errelatuaren* edo kontaketaen borroka oldarkorragoa izatea gazteleraz. Lagunik ez zaio falta, adibidez,

ETAREN ondorioz euskal abertzaletasunak proiektu politiko gisa zilegitasuna galdu duela argudiatzen du Joseba Arregiren liburu argitaratu berriak

Alonsori, ETAREN ondorioz euskal abertzaletasunak proiektu politiko gisa zilegitasuna galdu duela argudiatzean. Joseba Arregiren liburu argitaratu berriaren tesien artean horixe dago, hain zuzen. Arregik ETAREN biktimen esanahi politikoa kontuan hartu beharra aldarrikatzen du, hain zuzen ere ETAK hildako guztiak horrexek batzen dituelako,

proiektu politiko abertzale ‘totalitario’ jakin baten alde hil zituztela, proiektu horren garapenean traba egiten zutelako. Horregatik, ETAREN biktimen aitormenak politikoa izan behar du, eta horrek eskatzen du etorkizuneko esparru politikoaren oinarriak ez izatea ETAREN proiektu politikoarenak, alegia, abertzaletasun erradikalarenak; Zuzenbide Estatuaren arauetatik kanpo jokatzera edo Gernikako Estatutuak islatzen duen paktismoa ukatzea ETAREN biktimen memoriaren aurka egitea litzateke. Biktima guztiek ez dutela aitortza bera merezi argudiatzen du Arregik, batzuk, ETARENak, proiektu politiko baten izenean hil zituztelako, eta besteak, GAL eta beste hainbat talderenak, ez. Indarkeria asko egon direla aitortu arren, ‘terrorea’, kontzeptuaren zentzu modernoan, ETARENA bakarrik izan dela arrazoitzen du.<sup>25</sup> Talde armatuaren ‘terrore historiarren’ bukaera moldeari dagokionez, ETAREN konplize politikotzat dituenak eraikitzen ari diren kontaketa buruzko kezka agertzen du Arregik, ETAREN porrota ETAREN proiektu politikoaren garaipen bihurtu nahian ari direlakoan.<sup>26</sup>

Kontaktetaren borrokari buruzko kezka bera agertu dute Gaizka Fernandez Soldevilla eta Raul Lopez Romo historiagileek: historiagileen eta gizarte zientzialarien lana gizartearen eskura jartzea ezinbestekoa da, «bi indarkerien eta euskal gatazkaren narratibaren diskurtso ekidistantetaren» bidez ETAREN erantzukizuna lausotzen duen «kontaketa manipulatu» finkatuko dutelako, bestela, «propagandistek».<sup>27</sup> «Propagandistek» aurre egin eta auzia zientifikoki aztertzeke ahalegin horretan, adibidez, ezker abertzalea «movimiento incivil» gisa definitzea lortu dute bi egileok, aldagai objektiboetan oinarrituta, *Sangre, votos, manifestaciones* liburuan; edo «ikastola jakin batzuk, euskararen irakaskuntzarako akademiak, disko zigiluak, irratiak eta abar» ETAREN menpeko sare zibilean kokatzea. Zorrotzagoa da Lopez Romoren *Informe Foronda* berriagoa, indarkeriek –bereziki ETARENak– euskal gizartearen izan dituzten ondorioei buruzko azterketa. Ekarpen berrien artean dago atentatuek eragin zituzten mobilizazioen azterketa esanguratsua, urte batzuk lagintzat hartuta.<sup>28</sup>

Teo Uriarteren liburuak egilearen eskarmentu pertsonalean du euskarri nagusia, baina badu, jakina, analisitik ere. ETAREN garaitze poliziala ETAREN garaipen politikoa bihurtuko ote den du kezka nagusi: bere ustez, makilaren eta azenarioaren politika konbinatuak ez du funtzionatu, makila hutsa ondo funtzionatzen ari zenean azenario handiegia eman zaiolako ezker abertzaleari.<sup>29</sup> ETAK armak utzi baditu jazarpen polizial, judizial eta politikoaren ondorioz izan dela eta elkarrizketa saioek bukaera hori zaildu eta atzeratu besterik ez dutela egin argudiatzen dutenen artean daude Florencio Domínguez en eta Ángela Escriváren kronikak ere.<sup>30</sup>

Elkarrizketa ahaleginei buruzko ikuspegi baikorra ematen dute, aldiz, Luis R. Aizpeolea<sup>31</sup> eta Antoni Batistaren kronika-analisiak,<sup>32</sup> eta auzia gatazka politikoaren barnean kokatu. Javier Elzok, aldiz, gogoeta pertsonalen eta azterketa soziologikoen bilduma heterogeneoa egin du.<sup>33</sup> Jose Felix Azurmendiren liburu bikain dokumentatuak ETAREN ibilbide osoari buruzko kontakizun zehatza eta gordina egiten du, analisisetan askorik sartu gabe.<sup>34</sup> Francisco Letamendiak, aldiz, ETAREN bukaeraren azterketa laburra plazaratu du, hain zuzen ere, beste egile batzuek ez egiteko eskatzen dutena eginez: arazoa gatazka politikoaren barnean kokatu, eta Estatuaren indarkeria ere aztergaien artean jarri.<sup>35</sup>

Frantsesez, Jean-Pierre Massiasen liburua da aipagarriena. ETAREN bukaera prozesua burutu baino lehenagokoa da, baina azken aroaren gakoak koherentziaz azaltzeko modua egin zuen.<sup>36</sup> Iltzeari ia buruan eman zion Jacques Massey kazetariak, urtebete lehenago argitaratutako ETAREN historia «sekretuan», euskal talde armatuaren bukaera-molde desiragarriaren deskribapena egin zuenean: bakerako esperantza bakarra mugimendu independentistaren barneko indar harremanak aldatzea zen, Batasunak ETARI borroka armatua utz zezan eskatzea; ETAK modu positiboan erantzutea Batasunari, «ez Espainiako Gobernuari»; horrela, mugimenduaren ohorea salbu litzateke eta Batasunak borrokaren lekukoa hartuko luke eremu politiko eta instituzionalean. Gertatu behar zuena

gertatu baino lehen bete-beteen asmatu zuela esango genuke, jarraian, hain zuzen ere, desio moduan planteatutakoa nekez gertatuko zela aurreikusi ez bazuen, liburuaren azken lerroetan, «euskaldun erradikalen etxean sektore minoritarioa beti moldatu baita erakunde armatua betiketzen».<sup>37</sup>


Euskarazko lanen artean, aipatua dago Zabalo eta Sara-txok aldizkari honetan argitaratuko azterketa. Gainerakoan, Emilio Lopez Adan *Beltza*-k 2012an plazaratu zuen ETaren estrategia armatuaren bilakaeraren azterketa. Lehendik argitaratutako artikuluen bilduma da, baina 2011n bukatutako prozesua ulertzeko giltzarriak ematen ditu, bereziki 1990eko hamarkadan paradigma iraultzailetik paradigma demokratikora pasatzeak ETaren borrokaren euskarri ideologikoari nola eragin zion ulertze aldera.<sup>38</sup>

## Ondorio gisa

Kezka orokor batetik sortu zen artikulua honen oinarrian dagoen ikerketa:<sup>39</sup> zer irakurtzen dute munduan euskal gatazkari buruz? Zer ikerlan eta azterlan dituzte eskura euskal gatazka eta ETA ikergai dituzten akademikoek? Ikerketa akademikoaren arloan nagusi den hizkuntzan, ingelesez, oro har gutxi argitaratu da, beste gatazka politiko eta armatu askoren konparazioan. Euskal auzian sakondu nahi duen ikerlariak hemengo hizkuntzetan dagoena arakatu beharra du, bereziki gazte-raz, hizkuntza horretan argitaratu baita literaturaren zati handiena. Lan horietako asko Espainian euskal arazoari buruz nagusi diren ikuspegietatik eginak dira, eta horietatik ez gutxik terrorismo arazo hutsera

Ingelesez baino lan egiten ez duen ikerlariak oso iturri mugatuak ditu; gazte-raz ere moldatzen denak aukera aberatsagoa du, baina, oro har, desorekatua, pisu handia baitu Madrilgo ikuspegiak

mugatzen dute auzia. Alegia, ingelesez baino lan egiten ez duen ikerlariak oso iturri mugatuak ditu eskura, eta gazte-leraz ere moldatzen denak aukera aberatsagoa du, baina, oro har, desorekatua, pisu handia baitu, nolabait esateko, Madrilgo ikuspegiak.

Artikulu honetan ETAREN bukaera prozesuari buruzko literaturari erreparatu zaio, erakunde armatuaren 2011ko urriaren 20ko erabakiaren ondoren plazaratu denari batik bat. Eta ez dago ustekaberik emaitzetan: azken aldi honetako literaturan ere gaztelerazkoa da ugariena, eta hizkuntza horretan egiten ari dira ahaleginik handiena ETAREN historia gatazka politikoaren inguruabarrean kokatzea eta aztertzea propaganda nazionalista dela diotenak, indarkeria guztien biktima guztiak aintzat hartzea ETAREN biktimei irain egitea dela argudiatzen dutenak. Bestelako lanik ere argitaratu da bestelako ikuspegietatik, baina pisu berezia dute arazoaren sustrai politikoa ukatu edo desitxuratzen dutenek. Ingelesezko lanetan oreka bestelakoa da. Gutxi argitaratu da, baina argitaratu den horretan ahalegin berezia nabari da egile jakin batzuen aldetik ezker abertzalearen ikuspegia ulertzen laguntzen duten lanak munduko ikerlarien eskura jartzeko. Baina, guztiaren gaineratik, azpimarratzekoa da etorkizunean ere erreferentzia izango den lana jarri duela Whitfieldek denen eskura: *Endgame for ETA*. Kontaketaren jokoak, baina, hasi besterik ez da egin. 

**Oharrak**

1. 'First the Scots, Now the Catalans', *The New York Times*, 2014-10-13. Aipua, jatorrizkoan: «The long war with Basque separatists ended only when both sides agreed to negotiate».
2. Teresa Whitfield, *Endgame for ETA. Elusive Peace in the Basque Country* (Londres: C. Hurst & Co, 2014).
3. Martin Griffiths eta Teresa Whitfield, *Mediation. Ten Years on Challenges and Opportunities for Peacemaking* (Geneva: Henri Dunant Center for Humanitarian Dialogue, 2010).
4. Eileen Paquette Jack, 'A Review of Endgame for ETA. Elusive Peace in the Basque Country', *Nationalism and Ethnic Politics* 21, 3 (2015), 376-378.
5. Robert P. Clark, *The Basques, the Franco Years and Beyond* (Reno: University of Nevada Press, 1979), *The Basque Insurgents. ETA, 1952-1980* (Madison: University of Wisconsin Press, 1984), eta *Negotiating with ETA. Obstacles to Peace in the Basque Country, 1975-1988* (Reno: University of Nevada Press, 1990); John Sullivan, *ETA and Basque Nationalism. The Fight for Euskadi, 1890-1986* (Londres: Routledge, 1988); Joseba Zulaika, *Basque Violence. Metaphor and Sacrament* (Reno: University of Nevada Press, 1988); James E. Jakob, *Hills of Conflict. Basque Nationalism in France* (Reno: University of Nevada Press, 1994); Daniele Conversi, *The Basques, the Catalans, and Spain. Alternative Routes to Nationalist Mobilization* (Reno: University of Nevada Press, 1997); Paddy Woodworth, *Dirty War, Clean Hands. ETA, the Gal and Spanish Democracy* (Cork: Cork University Press, 2001); Ludger Mees, *Nationalism, Violence and Democracy. The Basque Clash of Identities* (New York: Palgrave Macmillan, 2003); Begoña Aretxaga, *States of Terror. Begoña Aretxaga's Essays* (Reno: Center for Basque Studies, 2005); Cameron Watson, *Basque Nationalism and Political Violence: The Ideological and Intellectual Origins of ETA* (Reno: Center for Basque Studies, 2007); Diego Muro, *Ethnicity and Violence. The Case of Radical Basque Nationalism* (New York: Routledge, 2008); Igor Ahedo Gurrutxaga, *The Transformation of National Identity in the Basque Country of France, 1789-2006* (Reno: Center for Basque Studies, 2008).
7. Jonathan Powell, *Great Hatred, Little Room. Making Peace in Northern Ireland* (Londres: Vintage Books, 2009).
8. Jonathan Powell, *Talking to Terrorists. How to End Armed Conflicts* (Londres: Bodley Head, 2014).
9. Jonathan Powell, *Terrorists at the Table. Why Negotiating is the Only Way to Peace* (New York: St. Martin Press, 2015).
9. Marta Crenshawren lanetako batzuk talde armatuen gainbehera edo bukaerari buruz: 'How Terrorism Declines', *Terrorism and Political*

- Violence* 3, 1 (1991), 69-87; 'Pathways out of Terrorism: A Conceptual Framework', in L. Sergio Germani eta D.R. Kaarthikeyan (argk.), *Pathways out of Terrorism and Insurgency. The Dynamics of Terrorist Violence and the Peace Processes* (Elgin: New Dawn Press, 2005), 3-11; 'Why Violence is Renounced or Rejected: A Case Study of Oppositional Terrorism', in Thomas Gregor (arg.), *A Natural History of Peace* (Nashville: Vanderbilt University Press, 1996), 264-268.
10. Powell, *Talking to Terrorists*, 303; *Terrorists at the Table*, 299.
  11. Seth G. Jones eta Martin C. Libicki, *How Terrorist Groups End. Lessons for Countering Al Qa'ida* (Santa Monica: Rand, 2008).
  12. Leonard Weinberg, *The End of Terrorism?* (Londres: Routledge, 2012), 71, 107.
  13. Audrey Kurth Cronin, *How Terrorism Ends. Understanding the Decline and Demise of Terrorist Campaigns* (Princeton: Princeton University Press, 2009), 68.
  14. Mikel Saratxo eta Julen Zabalo, 'Jarduera armatuaren amaiera. ETA-ren erabakirako arrazoiak', *Jakin* 197 (2013), 11-32.
  15. Julen Zabalo eta Mikel Saratxo, 'ETA Ceasefire: Armed Struggle vs. Political Practice in Basque Nationalism', *Ethnicities* 15, 3 (2015), 362-384.
  16. Urko Aiartza eta Julen Zabalo, 'The Basque Country. The Long Walk to a Democratic Scenario', *Berghof Series* 7 (2010), 7-76.
  17. Gorka Elejabarrieta, 'From Freedom Fighters to Terrorists and Back Again', in Ioannis Tellidis eta Harmonie Toros (argk.), *Researching Terrorism, Peace and Conflict Studies. Interaction, Synthesis and Opposition* (Londres: Routledge, 2015), 146-164.
  18. Rogelio Alonso, 'Why Do Terrorist Stop? Analyzing Why ETA Members Abandon or Continue with Terrorism', *Studies in Conflict and Terrorism* 34 (2011), 696-716.
  19. Rogelio Alonso, 'The Madrid Bombings and Negotiations With ETA: A Case Study of the Impact of Terrorism on Spanish Politics', *Terrorism and Political Violence* 25, 1 (2013), 113-136.
  20. Rogelio Alonso, 'Confronting Terrorism in Northern Ireland and the Basque Country: Challenges for Democracy and Legitimacy', in Martha Crenshaw (arg.), *The Consequences of Counterterrorist Policies in Democracies* (New York: Russell Sage Foundation, 2010), 213-254; 'Escenarios ante el final del terrorismo: ¿Qué política anti-terrorista ante ETA y Batasuna?', *Cuadernos de Pensamiento Político (FAES)* 26 (2010), 35-56; 'Pathways out of Terrorism in Northern Ireland and the Basque Country: The Misrepresentation of the Irish Model', *Terrorism and Political Violence* 16, 4 (2004), 695-713; Fernando Reinares eta Rogelio Alonso, 'Confronting Ethnonation-

- alist Terrorism in Spain: Political and Coercive Measures Against ETA', in Robert J. Art eta Louise Richardson (argk.), *Democracy and Counterterrorism. Lessons from the Past* (Washington: United States Institute of Peace Press, 2007), 105-132; Rogelio Alonso, Florencio Domínguez eta Marcos García Rey, *Vidas rotas. Historia de los hombres, mujeres y niños víctimas de ETA* (Madril: Espasa, 2010).
21. Fernando Reinares, 'Exit from Terrorism: A Qualitative Empirical Study on Disengagement and Deradicalization among Members of ETA', *Terrorism and Political Violence* 23, 5 (2011), 780-803; 'Who Are the Terrorists? Analyzing Changes in Sociological Profile among Members of ETA', *Studies in Conflict and Terrorism* 27, 6 (2004), 465-488; *Patriotas de la muerte. Quiénes han militado en ETA y por qué* (Madril: Taurus, 2001).
  22. Ignacio Sánchez-Cuenca, 'Explaining Temporal Variation in the Lethality of ETA', *Revista Internacional de Sociología* 67, 3 (2009), 609-629; 'The Dynamics of Nationalist Terrorism: ETA and the IRA', *Terrorism and Political Violence* 19, 3 (2007), 289-306; *ETA contra el Estado. Las estrategias del terrorismo* (Bartzelona: Tusquets, 2001); Ignacio Sánchez-Cuenca eta Paloma Aguilar, 'Terrorism Violence and Popular Mobilization: The Case of Spanish Transition to Democracy', *Politics and Society* 37, 3 (2009), 428-453; Luis de la Calle eta Ignacio Sánchez-Cuenca, 'Killing and Voting in the Basque Country: An Exploration of the Electoral Link Between ETA and its Political Branch', *Terrorism and Political Violence* 25, 1 (2013), 94-112; José María Calleja eta Ignacio Sánchez-Cuenca, *La derrota de ETA. De la primera a la última víctima* (Madril: Adhara, 2006).
  23. Siamak Khatami, *Peacemaking in the Basque Country. The History, and the Possibilities, of the Peace Process Between the Government of Spain and the Basque Separatist Organization ETA* (Bloomington: AuthorHouse, 2013).
  24. Christopher C. Harmon, 'Spain ETA's Terrorist Group Is Dying', *Orbis* 56, 7 (2012), 588-607.
  25. Joseba Arregi, *El terror de ETA. La narrativa de las víctimas* (Madril: Tecnos, 2015).
  26. Arregi, 197, 198.
  27. Gaizka Fernandez Soldevilla eta Raul Lopez Romo, *Sangre, votos, manifestaciones. ETA y el nacionalismo vasco radical 1958-2011* (Madril: Tecnos, 2012), 209.
  28. Raul Lopez Romo, *Informe Foronda. Los efectos del terrorismo en la sociedad vasca (1968-2010)* (Madril: Los Libros de la Catarata, 2015).
  29. Eduardo Uriarte, *Tiempo de canallas. La democracia ante el fin de ETA* (Gasteiz: Ikusager, 2013), 349.



30. Florencio Domínguez, *La agonía de ETA. Una investigación inédita sobre los últimos días de la banda* (Madril: La Esfera de los Libros, 2012); Ángeles Escrivá, *Maldito el país que necesita héroes. Cómo los demócratas acabaron con ETA* (Madril: Temas de Hoy, 2012).
31. Luis R. Aizpeolea, *Los entresijos del final ETA. Un intento de recuperar una historia manipulada* (Madril: Los Libros de la Catarata, 2013).
32. Antoni Batista, *Adiós a las armas. Una crónica del final de ETA* (Barcelona: Debate, 2012).
33. Javier Elzo, *La losa de ETA. Por una sociedad vasca justa y reconciliada* (Madril: PPC, 2014).
34. Jose Felix Azurmendi, *ETA de principio a fin. Crónica documentada de un relato* (Donostia: Ttarttalo, 2014).
35. Francisco Letamendia, *Dos ensayos vascos: Fin de ETA y resolución del conflicto. Respuestas a la crisis (2009-2012)* (Madril: Editorial Fundamentos, 2013).
36. Jean-Pierre Massias, *Faire la paix au Pays Basque* (Donostia: Elkar, 2011).
37. Jacques Massey, *ETA. Histoire secrète d'une guerre de cent ans* (Paris: Flammarion, 2010), 382-383.
38. Emilio Lopez Adan 'Beltza', *ETAren estrategia armatuaren historiaz* (Baiona: Maiatz, 2012).
39. 2014ko azaroan aurkeztu nuen doktore tesia Renoko Unibertsitatean (UNR): 'The End of ETA (2007-2011): Narratives from the Media and from the Actors'. Liburu gisa moldatu eta ingelesez argitaratzeko egitasmoa abian da. Ikerketako atal narratiboa euskarazko kronika liburu gisa argitaratuko da.

## EGUNEN GURPILEAN

### **119** Kultura

Orain da, orain  
Atharratze, historiatik mitologiara  
Gu gara haria  
Nagore Amondarain

### **125** Ekonomia

Asiako ezezagunak  
Gerrak  
Ezezagun gehiago Hego Amerikan  
Erakunde kudeaketa berria: aldaketa  
lasaiegia Nafarroa Garaian?  
Henrike Galarza

### **132** Soziolinguistika

Etorkizunaren mezu gara  
Eredu batzuk  
Aldahitz  
Txerra Rodriguez

### **138** Telepolis

Hau iragarki bat da  
Sakelakotik adimen kolektibora  
Asortatibitatea  
Gorka Julio



## Kultura

Nagore Amondarain

### Orain da, orain

Zaborra jasotzeko kontainerren alboetan gero eta sarriago ikusten ditut liburu zaharrak, besaulki zahar eta antigoaleko mesanotheen alboan. Ikusi eta gogoan hartu dudan azken liburukotea *Bailarak. Guía de ríos, valles y comarcas de Euskal Herria* izan da, Etor argitaletxeko azal gogorreko liburu potoloa, bazterrean botata. Zertarako eduki etxean tokia pilatzen, bertaraino eraman baitzaitzake Internetek egun. Eta horrela jarraitu dezakegu hainbat gauza sinplifikatzen teknologia berrien aurrerabideei esker. Botatzea erabaki den liburu horien azalaren kolorea eta usaina du mitologiaren gaiak, naftalinarena, alegia. Zaharkitua eta birziklatzera botatzeko ongari moduko zerbait litzateke hori ere. Kontainerren alboetan, pilatutako liburuen artean topatzea posible den gaia da: euskal kondairena, mitoena edo ohitura zaharrena. Mespretxatzera heldu garen gai bat, guk geuk, ustezko modernook. Istorio harrigarri horiei bizkarra emanda bizi gara, eta, aldiz, dena zaigu sinesgarri pantailei begira. Joseba Sarrionandiak 'Euskal Kulturaren Transmisioa' graduondokorako prestatu duen hitzaldian esaten duen bezala: «Aldaketa eta progreso teknologikoa hain laster eta hain larria da ze, edozein fantasia ere sinetsi daiteke». Garaiotan bizkarra eman diogu iraganeko mundu harrigarri hari eta gainera ez dugu jakin orainera ekarri eta berritzen.

Rurala da gizakiaren kultura, munduaren sorrera ulertzeko modua baitzen horixe, bizitza antolatzeke modu bat. Baina guk geuk, hirirako saltoa eman genuenetik, ukazio batean bizi dugu kultura hori, eten bat gertatu da, eta hortik zabortegian pilatzen zaigun letra eta liburu sorta andana hori. Sekula ez

diot erreparatu mitologiaren gaiari, ez bada umetan. Orduan kontatzen zizkiguten kondairak ere lauso antzera ditut gogoan, eta, harrez gero, gutxi izan dira gai horretara hurbiltzera eraman nauten bideak, ezjakinak bihurtu gara gai honen bueltan.

Mitologiak adibidez herri baten tradiziozko pentsamendu kolektiboa biltzen du, inoiz gertatu ez den baina kontzientziaren barruan beti presente dagoenari buruz hitz egiten digu. Mito eta kondairen batuketa bat litzateke beraz mitologia, kultura ruralean bizitza antolatzekeko modu bat. Ez da geurea bakarrik, kulturkidetza asko izan ditzake, beraz ez da bakarra eta ez luke monolitikoa ere izan beharrik.

Gorbeia menditik begiratu izan diogu inguruari, gure txikitasunean baina tontorrera igota, artean hamar urte genituela. Handik, tontor hartatik, irudikatzen genuen Mariren irudia aurrez aurre ikusten den Anboto mendiaren harkaitzean. Etzanda zegoela, aurpegia alde batean eta hankak bestean, hori esaten ziguten, horrela hezi gintuzten eta horixe ikusi nahi genuen eta horixe sinetsi. Irudi horiei hegalk eman zizkieten kondairek, ipuin harrigarriek. Euskal-elizkoien ahotik jaso genituen sineste horiek guztiak, horixe baitzen gure aitite-amamen errealitatea edo sistema, erlijioa eta mitologia batzen zirenekoa. Anuntxi Aranak *Euskal mitologiaz. Jentilak eta kristauak* (Elkar, 2008) liburuan dioen moduan, erlijiorik gabeko mitologiari ez omen dago. Ezin omen dira antonimotzat hartu bi terminoak, eta ezin omen da ontzat hartu mitologiako pertsonaiak kristautasunak egin zituela gaizto iritzia ere.

Talde batek sinetsiak zituen mitoak kontatu izan zaizkigu taldean, kontatu izan dira sinesten ez zirenean ere. Eta oraindik zalantza dut gure amamak ere sinesten zituen, esango nuke baietz, «ez zirenik» ere ez baitzuen esaten. Eta Igor Estankonak ere *Tundra* (Susa, 2002) poema liburuan zalantza antzekoa darabil:

*Luisa Bilbaok Mari ikusi du*

[...]

Zerua ireki eta Baltzolatik Gorbeiarantz

Mari dator txatarra dariola,

galdutako mundu bati  
maitasunezko azken mehatxu bat jaurtiz.  
Begiek ikus ditzaketen muinoetan  
egia ikustea ezinezkoa bihurtu da.  
Ez da berriro gertatu baina badakit hala izan zela,  
bestela zelan da posible haren uhinez  
ura ere gogoratzea?,  
zelan da posible iluntze batzuetan  
azunbre bat burdinazko elai ibiltzea teilatupean  
joan-etorri perfektuak eginez, eta halako batean,  
itzuli horietako bat egin gabe geratzea  
lore batek haginka egin dielako?  
Etorriko da espantua espantuaren gain  
baina halakorik beharbada ez.

Orain ez dago.  
Amaren gainetik eta nire jaiotzaren gainetik joan zen.  
Hala ere San Migeletik gora datorrela  
iruditzen zait batzuetan,  
eta Marirena bezain erraza da sinesten  
argizko trentza bat dela  
zera esanez altxatzen dena:  
«Ezer bota baino lehen,  
errekan behera bizi direnez  
gogora zaitez».

Kontzienteki pentsatutako ezer ez da eraikitzen zimen-  
durik gabe, inkontzienterik gabe, eta inkontziente horretan  
dago gure mundu sinbolikoa. Desmuntatu dugun mundu-  
ko elementuak hartzen ditugu nahigabe eta horiekin beste  
mundu bat eraiki. Zer diren gauzak, abuztuko lagunartean  
ezagutu dut lagun arratiar baten azken artelana. Aurretik  
esan dudan moduan, mitologiari ez diot beren-beregi se-  
kula erreparatu, baina Bartzelonan argazkilari gisa dabilen  
Gartzen Martinezen argazki serie batek eraman nau gaiaren  
buelara. Basanderearen mitoan inspiratu da bere argazkie-  
tarako, etxetik kilometro batzuetara kontzeptu horri heldu  
eta Ispasterko itsasertzean kokatu du Basanderearen irudia.  
Irudi modernoa, estilismo edo modari begira egindako lana  
da, arropa zehatz batzuen erakusleiho gisa. *DressLab* izeneko

aldizkarian argitaratutako lana da, Bartzelonan egin eta zabal-kunde internazionala duen tendentziako aldizkaria da berori. Berak ondo azaldu duenez, Basanderea erabili nahi zuen irudi moduan, lurra nahi zuen islatu, natura, giro hotzak, kolore gorriaren presentzia errekkurrentea eta hegazti bat Basanderearekin, hegazti basati bat: hontza, hain zuzen. Mitologia horixe baita, ereduaren alorra eta ez gertakariena. *Northern Shore* izena daraman seriea da, baina Gartzenek dioen moduan: «*Udabarri ilune* be bidali neutzien izenburuen artean, eguzkie, lorak, ortzadarra bakarrik ez baitire politiek. Iluntasunetik eta hotzetik be gauze ederrak etorri litikez».

Ez dut uste, beraz, mitologia herdoilaren miresmenarekin bizi behar dugunik, orainera ekartzeko moduak hainbat dira.

## Atharratze, historiatic mitologiara

Atharratzeko turismo bulego berrituan dago Herauskorritxe-Euskal Mitologiaren Etxea, uda honetan ireki berri ditu ateak. Berori ezagutzera eramane genituen uztailean Elkarrekilan Zuberoan udalekuko gazteak, mitologia egungo ikuspegitik ezagutu eta gazteenen iruditeria osatuz joateko asmoz. Euskal mitologiari buruzko irudi eta errepresentazioak XX. mendean ageri dira, ahoz jaso direlako kontakizun eta sinbolo oro; beraz, euskal mitologiak ikonografia gutxi du gaiaren inguruan.

Zuberoako Kakots kolektiboko lau artista gaztek askatasun guztiz berreraiki eta itxuratu dute euskal mitologiako iruditeria Atharratzeko espazio horretan, mitoa emozio edo sentsazio batetik sortzen baita, eta hala egin dute, beren era-ra, modu garaikidean. Sugestioa landu nahi izan dute, jendea beste irudi batzuk landuz joatea nahi izan dute, ez baita erraza jendeak mitologiako pertsonaiak nola ikusten dituen jakitea, Internetek eman ditzakeen irudiak bazter utzita.

Eszenografia oso bat dago bertan, turismo bulegoko lehen solairuan. Baina, sartu aurretik, eskaileretatik beha daiteke

eraikinaren altuera osoa hartzen duen zuloa, hutsunea baliatu dutela irakurketa edo egoteko gune gisa, zuloaren goialdean sare baten gainean legoke gune hori; ziurgabetasuna, zuloa, amildegia nahi izan dute irudikatu.

Eta behin lehen solairura sartzean, erdian zurezko pareta bat, non bertan idatzi eta marraztutakoa ikusi eta ukitu daitekeen. Borobil formako pareta horren barruan, bideo instalazio bat dago, gune iluna. Guztira bost bideo instalazio daude, ez dituzte bideo esplikatibo moduan sortu, ikusleari sentsazioak sortzea izan baitute buruan, mitologia zer den baino, bakoitzak pentsatzea zer izan daitekeen. Bestetik, marrazkiak, sabaian ühülguaren edo trumoia irudikatzen duen eskultura bat eta zuberotar zaharren kontakizunak entzuteko bi espazio.

Esan dugunez, mitologia eta kontakizunen errepresentazioa ez direnez ugariak izan gurean, Atharratzeko gune honetan bisitariak modu librean marrazteko aukera ere izango du. Horretarako koaderno zuriak jarri dituzte, honako sarrera duten antzeko koadernoak: «Libüru hontan *herensüge* en marraztea proposatzen deiziegü. Pean, pertsonaje horri lotürik den leienda bat irakurgai da. Ez ahatz arkatza! Marrazketa hon».

Claude Labat ikertzailearen aholkularitza edo gidaritza izan dute erakusketa egiterako orduan, Labatek euskal mitologia orainalditik aztertzea du xede. Honakoa dio Labatek Atharratzeko espazio berri honen inguruan: «Artisten lan honetan edo erakusketara sartzean, utz ezazu zure gogoa itzulipurdikatzan».

## Gu gara haria

Eric Dicharry antropologoari irakurri nion, bestelako gai batez ari zela, «frantses kulturaren non Ni-a biziki inportantea den, euskal kulturaren Gu-ak sekulako garrantzia dauka». Aurretetik aipatutako pentsamendu kolektiboari arima-kolektibo kulturala deitzen dio berak. Ele-ekintza erresistentzia-ekintza da, zapalkuntzaren aurkako borroka bat ere. Beraz, jendea

da haria. Ahoz aho kontatu diguten horri berbekin eman beharko zaio segida, dauden aukera guztiak baliatuz eta hariak luzatuz, berori gizarteratzeko ahalegina eskasa izan baita azkenaldian. Nahi bada, Atharratzeko gunea bisitatzeko gonbita egin auzokoari, lagunei, irakurleei.

Eta Juan Inazio Hartsuagak dioen moduan: «Hizkuntzalarriztan Koldo Mitxelenaren aroan bizi bagara ere, mitologian Manuel Larramendiren garaian gaude oraindik». Gai honen ikerketak herri nortasuna eta munduan kokatzeko gakoak eman ahal dituen bitartean, euskaldun ikasiak ezjakinak gara. Azken hamarkadetan gertatutako aldaketa kulturalak nahas-mendua sortu dute, zer nondik datorren eta nola interpretatu gero eta zailagoa zaigu. Gizarte mailako joera eta jarreraren esanahia ulertzen lagundu dezakeen beste tresna bat gehiagorik litzateke mitologiaren gaia, ulertzearekin batera nortasun berritu bat diseinatzeko anabasa honetan. Baina zoritxarrez naftalinaren usaina du, egun. Katebegi bat beharko luke izan euskal mitologia interpretatuak gaurko gizartean. 🍷





# Ekonomia

Henrike Galarza

## Asiako ezezagunak

Udan zehar, munduko bigarren eta hirugarren potentzia ekonomikoetan, nazioarteko merkatu ezberdinen egoeraren inguruko ziurtasunik eza areagotuz joan da. Txinaren kasuan, Alderdi Komunistaren azken kongresuaren osteko erabaki estrategiko berrien ondoren, ingurumena, barneko kontsumoa eta kalitate, teknologia eta salneurri handiagoko esportazioak lehenesten ari dira, ustelkeria politiko ekonomikoaren aurkako borrokarekin batera. Zein izanen dira batez bertzeko kontsumitzaile txinatarraren aukera berriak? Nolako industri eta zerbitzu jarduerak garatzera doaz? Shangai eta, oro har, kostaldeko gune industrialetako saturazio maila ikusirik, pentsatzekoa da agintariak datozen urteotan barnealdea garatzen saiatuko direla, arazo demografiko zein ekologikoak konpontzeko bidean. Horrek eskatzen duen lehen inbertsioa azpiegitura fisikoena da: errepide, trenbide eta aireportuez gain, energiaren hornikuntza eta hirietako oinarrizko zerbitzuak (ur uherrentzako sareak, hondakinen tratamendua eta etxebizitza berriak, bertzeak bertze) bermatu behar dituzte. Erabili beharreko baliabide ekonomikoaren kopuruak erraldoiak direnez, ziurrenik, Txinaren barnean aurkitu eta ekoiztu daitekeenarekin ez dute nahikoa izanen. Txinako naturaren mugek lehenengai batzuen inportazioak, petrolioa edo burdina, erraterako, igoaraziko dituzte. Jarduera horietan, atzerrian, inbertsio ugari egin badituzte ere, gehiago beharko dituztela erraz atzeman daiteke, baliabide naturalen nazioarteko merkatuetan lehia indartuz.

Ekoiztutako eta erdiekoiztutako produktuei dagokionez, Txinako langile eta familiek ekoiztu eta kontsumituko

dituzten garraio tresneria (ibilgailuetatik hegazkinetara) eta teknologia, edo elektrotresna eta informatika-osagaien arabera zehaztuko dira egin beharreko inportazioak, eta hori politikoki erabakiko dutelakoan gaude. Ondorioz, etorkizuneko Txinaren ekonomiari buruzko erantzun zehatzak lortzeko, Mendebaldeko sino-politologoak ingeniari, ekonomialari eta kontableak bezain garrantzizkoak izanen dira, izaten ari dira, dagoeneko.

Bertzaldetik, Txinako Banku Zentrala eta, oro har, herri horren agintari politiko nagusiak gertaera finantzario eta monetarioen aurrean erne dabiltzala argi frogatu dute burtsetan izandako krakaren ondoren emandako erantzunek. Hala ere, garai honetan, finantza-espekulazioak merkatuetan lortutako indarra aintzat hartuz, ez da lan erraza unean uneko 'mozkinen bilketa' edo 'behin-behineko burbuila' arruntak egiturazko krisialdi baten ondorio edo aurrekarietatik aldentzea. Txinako burtsetako harian, truke tasari zegozkion erabakiak ikusi ondoren, pentsatzekoa da egiturazko erantzuna dela, hau da, barneko ekonomiaren aldaketa sakonak bultzatuko dituen; jarduera produktiboen *sortu-suntsitu* prozesua gauzatuko den heinean, agintarien epe luzeko helburuak argiago ulertzeko moduan egonen gara.

Bitartean, epe motzeko finantza-aldaketak aspertu arte aztertzen dituztenek ez dute deus erraten espero duten Txinaren ekonomiaren espezializazioaz. Aldiz, Txinako Banku Zentralaren larrialdiko finantziazioa txalo beroz agurtu zuten aditu berberak.

Finantza sistemaren egokitzeari dagokionez, egoeraren benetako izaera zehaztea oso zaila da, Japoniaren kasuan bezala: oso 'kapitalistak' ez diren sare finantzario pribatuen garrantziaz gain, arduradun politiko eta finantzarioen arteko harreman zuzen eta publikoak direla-eta, Mendebaldeko kapitalismoaren irizpide finantzarioak, asko izanda ere, ez dira hango ohitura, legedi eta filosofietara egokitzen. Berriki izan diren renmimbi moneta txinatarraren devaluazioei buruzko iritziz anitz bezain kontrajarriak adibide. Edo 'Abenomics',

Shinzo Abe lehen ministro japoniarraren politika ekonomikoa, izaten ari den gorabeherak.

Laburki erranda, epe motzeko aldaketez haratago, datozen urteetan zehar Asiako mega-ekonomiek mundukoari egin behar dioten ekarpena oraindik ikustekoa da, Amerikako Estatu Batuak eta Europako Batasuna krisialditik oso poliki ateratzen ari diren bitartean... egiazki ateratzen ari bagara. Gainera, hegemonia ekonomikoaren lehian, ziklo ekonomikoen alde guztiak, positibo zein negatibo, boteretsuenen estrategietarako tresnak bertzerik ez direla gogotik ezin galdu.

## Gerrak

Gerra da Siria, Libia, Afganistan edo Iraketik EBra etortzen ari diren pertsonak, iheslari eta errefuxiatuak, haien ohiko bizileku eta bizimoduetatik atera dituen zioa. Andaluziako itsasertzean eta Italiako hegoaldeko Lampedusa irlan duela urte gehiegi ezagutu izan ditugunak, orain, Austria, Alemania eta Hungariako mugetan gertatzen ari dira, hildakoak barne. Tragedia garratz horren aurrean, EBren izenean, inolako autokritikarik egin gabe, Merkel edo Rajoy bezalakoek erakutsitako jarrera paternalista eta ezin hipokritagoa, hauteskondeak datoz!, Hungariako gobernu eskuindarrak agerian utzi du.

Lehenik, irudi batzuek hedabideetan zalaparta handia eragin zuten: Hungariako mugako polizia batzuek errefuxiatu talde bati hamaiketako poltsak, eman beharrean, jaurti egiten zizkieten. Bigarrenik, aurreko irudiak azkar ordezkatu zituzten Hungariako mugetan eraikitzen ari diren 'lotsaren' hesi berriek. Estatu espainolaren hedabideetan ez dugu Melilla eta Ceuta hirien inguruan dauden hesi hilgarrien eta Hungarian jaurtitako hamaiketako arteko paralelorik ikusi edo entzun, baina hesiak berdinak dira.

Tragedia eta fartsa elkartzeko, Merkel andrea Bakearen Nobel sariaren hautagaitzat aurkeztu omen dute. Mihi gaiztoek diotenez, Alemaniako enpresarien ekimena omen da,

kantzilerrak teknikari eta langile espezializatuen eskasia Sieriatik etortzen ari diren langileei esker Alemanian konpon-tzera zihoazela adierazi ostean, noski!

Mendebaldeko potentziek sorrarazi eta eutsitako gerra ho-rien ondorioak ez dira kanpotarrentzako soilki. Xenofobia eta arrazismo hutsa, Hungariako gobernuarena ikusgarrienetakoa da baina inondik ere ez bakarra, indartzen ari dira curriculum ezin 'demokratikoagoa' duten Europako herrietan, Frantzia, Finlandia eta Herbehereetan, erraterako. «Kanpotarrek lan-postuak kentzen dizkigute» edo «Oso 'ezberdinak' (islamikoak, lapurrak, alferrak...) dira, haien herrietara itzul eta gera dai-tezen!», horiek bezalako mezuak ozenki entzutea, arduradun politikoen gandik!, jada ez da asaldurarako kontua, eztabaida zintzo eta ordenatu baten gaia baizik, adierazpen askatasu-naren panegirikoa, behin horretan bakarrik, egin ondoren.

Hala ere, muga irekien aldeko filosofiak EBko kapitalis-moan kontraesan batzuk sortzen ditu: hurrengo hilabete eta urteetan posible al da bi milioi pertsona behar den moduan hartzea? Nondik atera behar da dirua? Zein izanen lirateke herri eta hirietako auzoetan nabarituko diren aldaketak? Gu-re inguruko osasun zerbitzuetan orain arte gertatu ez dena, etorkinek zerbitzu 'gehiegi' erabiltzea, alegia, bat-batean ger-tatzen hasiko balitz, nork daki zer ekarriko lukeen? Kapita-lismoak ez du erantzunik, erantzun justu eta demokratikorik erran nahi dugu. Sistema ekonomiko gisa, kapitalismoaren antolaketa bortitza da berez. Ez da inoiz kapitalismo leunik izan. Ezinbertzekoak ditu hierarkia, indar eta bortizkeria, kapitalen arteko borrokan denak balio du eta.

Langileak, zioen Marxek, munduko internazionalistenak gara eta izan gara. Hain zuzen, hesi eta kapitalismorik gabeko mundu batean denok irabaziko genuke, oraingo pribilegiatuok ere bai. Agian kontsumo maila txikiagoarekin, baina gotor-leku eta gerrarik gabe. Europako gotorlekuaren ideia ez da hala moralki nola politikoki onargarria, ezin da albora begira geratu, hesiak altxatuz 'ekaitza' igaro arte. Baina, aldi berean, Europako kapitalismoa ez da gai funtsezko eta jatorrizko

arazoak konpontzeko, beharrezko aldaketak bere izaeraren aurkakoak bailirateke: kapitalismoak ez du *seppuku*-rik egiten. Tamalez, behin baino gehiagotan aipatu dugun legez, zerbait gertatuko delakoan gaude, hedabideetako azaletan jarriko dutena, errefuxiatu eta iheslarien egoera ahaztaraziko duena, bi publizitate-iragarkiren artean, Haitiko lurrikara, Ukrainako gerra, Lampedusa, Ceuta, Melilla, ebola eta hainbat kasutan gertatu den modu berberean: *business as usual*, berriro.

## Ezezagun gehiago Hego Amerikan

Brasilgo ekonomiaren mantsotzea, lehen, eta atzerakada, orain, oso albiste txarra da, inguruan dauden herrientzako bereziki. Hego Amerikako 'lokomotora' ekonomikoaren ga-beziak azalarazten ari dira Olinpiar Jokoek eskatu dituzten ahalegin produktiboen kariatz. Pobrezia lekualdatuz saiatu omen dira afera konpontzen Rousseff presidentearen gobernu ezberdinak, desberdintasun ekonomiko-sozialak, ustelkeria politiko-ekonomikoa eta suntsiketa ekologikoak, bertzeak bertze, areagotzen eta nagusitzen ari diren aldi berean. Zalantzarik gabe, AEB eta EBtik atzeraldirako eragina pairatzeaz gain, Argentina, Venezuela, Ekuador, Bolivia eta, neurri apalagoan, Txile edo Kuba bezalako herrietan, haien alboko erraldoiaren eztul ekonomikoak nabaritzen ari dira, gehiengo pobreen kalterako. Petrolio eta bertze lehengaien salneurrien jaitsiera kalte egiten ari zaie lehengai horien herri esportatzaileei, inportatzaileek profitatu gabe, Ipar kapitalista eta Txinaren inportazioak ez direlako lehen izaten zirenak.

Venezuelan gertatzen ari dena argitzea oso zaila zaigu. Kubaren eta AEBen gobernuen arteko zorioneko baketzearen ondoren, AEBen gobernuak Venezuela etsaitzat hartzea txarra litzateke Venezuelako jendearentzat, eta orban mehatxugarria Bolibartar Iraultzarako. Hedabide nagusietan nekez bilatuko da Maduro presidentearen gobernuaren politika ekonomikoaren aipurik. Gutxiespenezko iruzkin motz bat

nahikoa omen da Chávez presidentearen garaietatik Venezuelako jende xumearen bizitzan izandako eraldaketa positibo gainera kentzeko. Ezin ukatu akats ugari, eta ustelkeria, izan badirela, eta ez direla behar den moduan zuzentzen. Azken albiste judizialek, oposizio politikaren buruzagiaren kartzela zigorra barne, ez diote lasaitasunari eta bizikidetzari gehiegi lagundu. Heldu den abenduan egin beharreko hauteskundeak sozialismorako bide bolibartarraren etorkizunerako erabakigarriak izanen dira. Erabateko gehiengorik gabe, bolibartarren negoziazio tartea asko murriztuko litzaiteke, hango eskuin politikoaren muturreko ideiak ezaguturik.

Zailtasun ekonomikoen erdian, Hego eta Erdialdeko Amerikako ekonomien koordinazio eta bateragarritasuna serio ki jorratzea oso erronka polita da, gure ustez. Horretarako, benetako plangintza demokratikoa ezinbertzekoa da, hain zuzen, burujabetasun ekonomikoaren muinean pertsonen eta herrien eskubideak daude eta. Nazioarteko edozein elkarre, erakunde edo itunek eskubide horien defentsarako aritu behar du, errealitate nahasiak eskatzen dituen malgutasun eta zuhurtzia erabiliz. Edozein kasutan ere, energiaren ekoizpen eta hornidurako makrosistema erregionala, pertsona eta salgaien garraio sistema komuna, gutxieneko irizpide ekologiko jasangarriak, moneta zein finantzarako araudi bateragarriak, askoren artean, epe ertain eta luzeko helburuak dituen politika ekonomikoak ziurtasuna ezarriko duelakoan gaude, jende gehienek aldeko ziurtasuna, behinik behin.

Aukera asko dago nazioarteko elkarlan eta koordinazio horiek urte luzez itxoin egin behar izan dezaten, baina borondate politikoa bertzerik ez da behar, ALBA ekimena frogatzen ari den bezala.

## **Erakunde kudeaketa berria: aldaketa lasaiegia Nafarroa Garaian?**

Egia da pertsona guztientzako denbora ez dela uneoro abiadura berdinean igarotzen. Iruñean eta hainbat udaletan

‘aldaketarako’ hautagaitzak botereari heldu osteko une goxoak joanda, Barkos andreak zuzendu behar zuen gobernuaren osaketaren ingurukoak harridura puntu batekin ikusi genituen, Espainia zein Nafarroa Garaiko eskuinek sorrazitako zalaparta mediatiko lotsagarritik urrun, baina. Dagoeneko, organigramako izendapenez gain, Nafarroako Foru Erkidegoko gobernu berriak zorioneko eta premiazko erabaki batzuk hartu ditu, esparru sozialean nagusiki: lanpostuetarako deialdiak osasun zerbitzuan eta hezkuntzan, eta oinarrizko errentaren programaren finantziazioaren igoera. Hala ere, administrazio foralaren diru sarrerak hazi arte, benetako politika ekonomiko hedakorra aurrera eramatea oso zaila izanen da. Eskuineko eledunek ‘ezer ez’ egitea, ikurrina inposatu baino, leporatu diete, bai foru gobernuari bai Iruñeko Udalari, inolako ekimen zehatzik aipatu gabe! Bere garaian eskuindarrek oposizioaren ‘Ezetzen koordinakunde’ salatzen zuten moduan, haiek orain ‘Ezerezaren frontea’ eraikitzeko prest omen daude.

Ekonomian aldaketa sendo gutxi sumatu da, txosten ofizialen soldatapeko baikortasuna kendurik, are gutxiago hurbileko jende eta ezagunen zirkuluetan. Alderantziz, dagoeneko nahiko larri ibiltzen ziren lanpostudun askoren baitan egoenezina areagotzen ari da, galdutako lan eskubideen ondorioz lan kontratuen hauskortasun hazkorra eta enpresen iraute aleatorioak lagun. Egoera honetan, non, azken hilabeteetako enpleguen hazkunde tasa mantenduta ere, langabezia desagerrarazteko hamar urte beharko lirakeen, ematen du lan denboraren banaketa justuago eta eraginkorrago bat dela eskura dugun aukera ia bakarra. Berriro ere demokrazia kontu bat da: lanpostu eta lanaldiaren inguruko erabakiak enpresa transnazionalen eskuetan utzi beharrean, etorkizuneko gure zeregin sozialak guk geuk hauta ditzakegu. 🌱



## Etorkizunaren mezu gara

Grezia denon ahotan ibili da azken urteotan. Astintze sozial handiak izan dira han eta ematen du geroan ere izango direla. Ni ere hara begira ibili naiz sarritan; hori bai, betaurreko soziolinguistikoak kenduta hasiera batean. Izan ere, bestelako kezkek ere bizi arazten naute. Eta hango anarkisten diskurtsoak eta praktikak arretaz behatu ditut behin baino gehiagotan. Eta, gura barik, betaurreko soziolinguistikoak lanean hasten dira.

Anarkista horien leloetako batek, gainera, kolpatu nau behin eta berriro Fernando Ramalloren 'Neofalantismo' izeneko artikulua irakurtzen ari nintzela. «Etorkizunaren mezu gara». Hori da, hain zuzen ere, gutxiengo aktibo batzuen pentsaera eta jarduna laburbildu eta sintetizatzeke modu egokia. Etor-kizunaren mezu gara. Hain zuzen ere.

Fernando Ramallok galizierazko 'neofalanteak' (gurean 'euskaldun berri' terminoaren pareko-edo) honela definitzen ditu: «Gaztelaniaz hitz egiten ikasi duen pertsona, bere familia hizkuntza hori izan zuena eta bizitzaren momenturen batean galizieraz beti edo ia beti hitz egiten hasi dena». Eta esaten du Galizian, gaur egun, 70.000 pertsona direla gutxi gorabehera neofalante.

Horren ondoren, galdera zeharo egoki bat egiten du Ramallok: «Zelan azaldu pertsona batek bere ama-hizkuntza bazterrean uztea erabaki duela, hizkuntza hori denean komunitatean prestigio gehien duena?». Berak galdera horri erantzun bat baino ez dio ematen. Haren ustez, neofalante horiek gutxiengo aktibo gisa jarduten dute (mugimendu bat osatzen dute, neofalantismoa, alegia), etorkizunaren mezu gisa jarduten dute. Hain zuzen ere.



Gutxiengo aktiboa, ostera, zer demontre da? Eredua ematen (edota heziketaren bidez) jarduten duen talde sozial minoritarioa da, jendartean eraldaketak eragiteko asmoz, jendar-tearekiko dituen dibergentziak tarteko. Ramalloren berbetan, zaila da edozein aldaketa sozial azaltzea gutxiengoan eragina aintzat hartu barik. Orduan, haren ustez, «neofalanteak gutxiengo aktibo gisa hartzeak azaldu ditzake boterearen, gehiengo sozialaren eta normaltasunaren hizkuntza bazterrean uztearen atzean egon daitezkeen motibazioak».

Hiztun horiek, euren jardunaren bidez, bere bizi-eremuaren errealitate soziolinguistikoaren gaineko interpretazio-marko berriak eragiten dituzte. Izan ere, hiztun berri horien presentziak berak ordena soziolinguistikoa aldatzen du eta tentsio batzuk sorrarazten ditu: identitateari lotutakoak, sinbolikoak eta dialektoen artekoak. Galizian eta gurean.

## Eredu batzuk

Neofalante horiei buruzko bibliografiarekin elikatzen ari nintzen garai bertsuetan ari zen Lutxo Egia bere performance soziolinguistikoa aurrera eramaten: Bilbon 31 egunez bizitzea gaztelania ahaztuta, euskaraz eta ingelesez aritzen, 'Bi-lingual transitoak' izenarekin (bide batez, oso gomendagarria Lutxo Egiak berak *Berria* egunkarian haren egunez egunekoa konstatuz idatzi duen bloga).

Hegietatik eragiten aritu izan da Lutxo Egia, ertzak lausotzen zelanbait. Hautu-determinazioa muturrera eraman du eta etorkizunaren mezu bihurtu da bere ekintza. Nork bere buruaz ahalduntzeko ekintza artistikoa egin du, artea eta eguneroko bizitza gurutzatzen diren espazio gandu bezain aberasgarrietan.

Lutxo Egiak performancearekin ere gure errealitate soziolinguistikoaren gaineko interpretazio marko berriak eragin ditu. Bide batzuk ireki ditu eta orain talde-lanean guztioi dagokigu sasiak garbitu eta bide zabalago eta erosoagoak

egitea. Izan ere, «gure aurrekoek honaino ekarri dute gurdia eta orain gure txanda da», Malores Etxeberriaren berbetan esanda. Eta hala da. Gure txanda da. Eta nago horren moduko ekintza berritzaileak beharko ditugula gure etorkizunean mezu egokia paratu nahi izanez gero. Hala ere, banakoetatik taldera egin beharko dugu salto inoiz. Eta eragin, eta egin. Eta sortu, eta birsortu. Eta bizi, eta biziarazi. Interpretazio marko berriak sortu eta birsortu, errealitatea moldatu eta aldatzeko.

Esate baterako: zer gertatuko litzateke Eusko Jaurlaritzako (jarri beste edozein administrazio zuen gustura) langile bategen euskara hutsez lan egiteko determinazioa hartuko balu? Eta bat izan beharrean, hamaika balira?

Hegietatik eragiten aritu da Lutxo Egia, eta beste batzuk ere, lan isilagoaren bidez, saiatzen dira horretan. Eta horren lagin, Ebete enpresako Iñaki Eizmendik eta Itziar Larzabalek Arabako Foru Aldundiaren enkarguz ondu duten gida: *Haur eta gazteen jardueretarako hezitzaileentzako gida*.

Gida guztiz praktikoa da, eguneroko elkarreragiteak kontuan hartzen dituena. Orain dela urte batzuk argitaratutako *Begiraleek asko egin dezakete* entzutetsutik tiraka eta abiatuta, praktikoago, zehatzago eta eraginkorrago egin dute lana. Eguneroko praktiken bidez, interpretazio marko berri batzuk sortzeko.

Eguneroko praktiketarako aholku sorta dakar gidak. Orokorrak batzuk eta zehatzagoak bestetarik: kirol entrenatzaileentzako, antzerki, dantza zein musika irakasleentzako, aisialdiko hezitzaileentzako (ludoteka, udaleku zein gazteleketan aritu) eta jantokiko hezitzaileentzako. Egunerokotik abiatu eta egunerokora helburu.

Izan ere, eskola orduz kanpoko jarduera gehienak haur eta gazteen gustukoak izan ohi dira: ludikoak dira, lagunartean gozaten dute geletatik kanpora eta asko jarduera mugituak izaten dira. Horiek guztiek bizipen positiboak ekarri ohi dituzte eta, euskaraz eginez gero (haur eta gazteen artean beti ere), euskararekiko bizipen positiboak elikatzeke modua ematen dute.

Gidan plazaratzen den aholku nagusi bat nahi dut hona aldatu: hezitzaileek berritsu aritu behar dute. Hau da: el-karrizketa asko sortu eta elkarrizketa askotan parte hartu. Banakoak eta taldekoak. Haiek euskara gehiago erabiltzea nahi badugu, bide ona da zuzeneko eragina, baina ahaztu gabe errefortzu positiboak.

## Aldahitz

Azken finean, hizkuntza ohiturak aldatzeari buruz ari dira Lutxo Egia zein Ebetekoen aholkuak (eta Galizia aldeko neofalanteak). Eta, bide horretan, hizkuntza ohiturak aldatzeko moduak eta prozesuak sakonago ikasi (ikertu) beharko ditugu. Orain dela urte batzuk, Iñaki Arrutik esan zuen hizkuntza ohituren aldaketa didaktizatu behar genuela. Nago oraindik bidea dugula egiteko, baina pauso sendo samar batzuk egin ditugu norabide horretan ordutik.

Pello Jauregi dugu prozesu horietan bide-erakusle nagusi. Bi ikerketa zehatz ondu ditu berak azken urteotan: ohetik gaztelania bota duten (hau da, bikoteetan gaztelaniatik euskarara salto egin duten) eta lankideen artean ohitura aldatu duten pertsonak miatu eta aztertu ditu.

Hortik landa, Pello Jauregik lankideen artean hizkuntza ohiturak aldatzeko esku-hartzeak ere diseinatu ditu: Aldahitz du izen generikoa, eta 2013-2014. urteetan hainbat lantegi zein administraziotan probatu eta ikertu da. Orain dela gutxi argitaratu du eskuliburua Soziolinguistika Klusterrak, eta bidea zabaldu dute hemendik aurrera beste lantegi batzuetan ere egikaritzeko.

Baina finkatu dezadan gogoz begirada aurretik aipatutako bi ikerketa horietan. Biak ezberdinak dira, bakoitzak bere berezitasunak ditu, baina apur bat hazka eginez gero, bietatik ondorio komun batzuk atera daitezkeela ikus dezakegu. Nik sei ondorio aurkitu ditut bietan, eta jarraian haiei egingo diet jaramon.

Hasteko eta behin, erabilera erabileratik dator. Pernandoren egia dirudi, baina hala da. Kasu gehienetan ez da itxaron aldaketako protagonistek gaitasun maila altua izan arte, ez da itxaron gaitasun 'on' bat izan arte eta gero erabiltzen hasi. Momentu batetik aurrera erabaki dute euskaraz egitea eta momentu horretan hasi dira erabiltzen.

Bigarrenik, aldaketa bitariko harremanetan gertatu da. Bikoteen kasuan, jakina, eta lankideen kasuan lankide batekin aldatu du 'lagunduak' hizkuntza, eta, gero, harreman horretan oinarrituta, beste batzuekin ere hasi da 'lagundua' ohiturak aldatzen. Badirudi hizkuntza ohiturak aldatzeko harreman babestua eta berezia beharrezkoa dela, intentsitate eta mai(z)tasun handikoa.

Hirugarrenik, bikoteetako kide bat edo lankide bat izan da gidari eta zaintzaile. Horretan oinarrituta, Pello Jauregik diseinaturiko esku-hartzeari 'eusle metodologia' deitu izan dio. Izan ere, euslearen figura da funtsezko hizkuntza ohiturak aldatzeko. Eta kide hori izango da une oro prozesua lideratuko duena. Kasurik gehienetan, gainera, zaintzaile izan den kidea euskarazko gaitasun handiena duena izan da.

Laugarrenik, araua une batetik aurrera aldatu da, ez da izan aldaketa progresiboa. Askotan lan arloan euskararen kudeaketan aholkulari gabiltzanok, behinik behin, ohiturak aldatzeko tresna progresiboak erabili izan ditugu, baina ez dirudi eraginkorr(en)ak direnik behin betiko aldaketak gauzatzeko, arau aldaketak gauzatzeko.

Bosgarrenik, kasurik gehienetan frogatu da ohitura berria mamitzeko urtebete inguru beharrezkoa dela. Epe hori igarota, ohitura berria gatzatuko da eta, beraz, arau sozial berria sortuko da bikoteetan. Eta, ordutik, ohitura aldatzeko zailtasuna aldeztatu da.

Seigarrenik, kasu askotan hizkuntza gaitasun mugatua ez da izan oztopo ohitura aldatzeko. Izan ere, ematen du euskara ikasi eta sendotzeko bide ezin aproposagoa izan dela ohituraren aldaketa. Hizkuntza gaitasuna praktikarekin guztiz bat datorren ustea berriro ere indartua.

Ondorio eta gako esanguratsuak atera ditzakegu bi ikerketa horietatik. Seguruenik, nik nabarmendutakoak baino gehiago izan daitezke aipagai, baina espazioa mugatua da, hartara. Hala ere, ziur nago ohitura aldatu nahi duen ororentzat abiapuntu egokia izan daitekeela hemen batutakoa.

Sarri gogoratzen gara etorkizunaz, sarri ekartzen dugu gogora. Etorkizuneko mezu izan gura badugu, hizkuntza ohiturak aldatzeko moduez jabetu behar gara. Eta horietara ekin, aktibo, eusle, berritsu, berritzaile. Bakoitza bere txokotik eta errazenetik. Soziolinguistika domestikoa egikaritzeko garaiak dira. Interpretazio marko berriak eragiteko garaiak dira. 🌱



Telepólis

Gorka Julio

## Hau iragarki bat da

Interneteko zerbitzu handi askok bere negozio eredia publizitatean oinarritzen dute. Badakigun arren, publizitate mota horien barne informazio gutxi dugu orokorrean. Informazioa ez dago ezkutuan, baina publizitate hori erabili nahi dutenak dira normalean horri buruz dakiten bakarrak. Lerro hauetan, Google, Facebook eta Twitter zerbitzuen publizitate ereduak iragarkiak bideratzeko aukerak aztertuko ditugu.

Google (adwords.google.com) izan zen bere bilatzailearen bidez publizitate digitalaren aldaketa handiena ekarri zuena. Aurretik, bannerrak eta horien ‘inpresioetan’ oinarritutako publizitatea zen nagusi. Bilatzailea baliatuz, bilaketak kontuan hartuz, publizitate eredu berri bat jarri zuen abian orduan, bilaketak eta erabiltzailearen informazioa kontuan hartuta publizitatea hobeto bideratzen zuena.

Asko aldatu da Google; orain, bilaketetan ez ezik afiliatutako beste webgune, bideo eta mugikorretako aplikazioetan ere ematen du iragarkiak txertatzeko aukera. Denetan sakontzea baino, iragarki horiek beren helburuak bete ditzaten zein estrategia, aukera eta filtro ematen dituzten ikusiko dugu.

Iragarkiak bideratzeko filtro ezberdinak eskaintzen ditu Googlek; orokorrenak: kokapen geografikoa, hizkuntza, erabiltzailearen gailuak eta, nola ez, gako hitzak. Gako hitzen bidez, bilaketa horiek edo antzekoak egiten dituztenei bideratzen zaie publizitatea.

Googlek duen datu kantitatea eta darabilen inteligentzia artifiziala baliatuz, aukera ematen du webgune mota bat edo afizio zehatz bat duten pertsonak zein diren identifikatu eta horiei publizitatea bideratzeko. Horrez gain, webgune

bat –demagun, online denda bat– bisitatu eta produktu bat ikusi ondoren, iragarki hori beste webguneetan ere erakusteko gaitasuna dauka, behin eta berriz iragarkia erakutsita erosteko aukera gehiago baitaude.

Facebook ([facebook.com/advertising](https://www.facebook.com/advertising)) kanpainetan helburu ezberdinak zehaztu daitezke: mezuak promozionatu, jendea zure webgunera bideratu, aplikazio bat instalarazi, bideo erreproduzioak lortu... Negozio fisiko bat izanez gero, negoziotik gertu dabiltzan pertsoneri bideratu diezaiekezu publizitatea, pentsa.

Filtroak ere izugarriak dira; orokorrenak: kokapena, adina, generoa eta hizkuntza. Askoz zehatzagoak ere badaude: pertsonen zaletasunak, jarrerak eta konexioak. Hau da, iragarki bat bideratu ahalko diogu, adibidez, eskia gustatzen zaien, bidaiatzeko ohitura duten eta gainera eskiari buruzko aplikazio zehatz bat erabili duten pertsoneri.

Balio demografiko oso zehatzen arabera ere mugatu daiteke: harremanak, hezkuntza, lana, gurasoak, politika, bizitza gertakariak... Adibidez, emakumezkoak diren, ezkondata dauden, doktoretza bat duten, semeak dituzten eta laster bere bikotearekin 30 urte elkarrekin beteko dituzten pertsoneri bideratu diezaiekegu publizitatea. AEBetan jarrera politikoa ere erabil daiteke filtro moduan, Facebookek hori ere badaki eta.

Bukatzeko, Twitterren ([ads.twitter.com](https://ads.twitter.com)) ere mezuak promozionatu, jarraitzaile gehiago lortu, webgunera jendea bideratu, intereseko pertsonen posta zerrendak lortu edo aplikazio bat instalatzea lortu daiteke publizitatearekin.

Eskaintzen dituen filtroak, orokorrenak betikoak: kokapena, generoa, hizkuntza, gailuak eta baita erabiltzen dugun telefono konpainia ere. Hortik aurrera filtro oso zehatzak ditu, horietako bat Twitterren pertsona zehatz bat jarraitzen dutenak eta antzekotasunak dituztenak aukeratzen dituen bat, adibidez.

Besteetan bezala, interesak, gako hitzak, jarrerak... filtro bezala zehaztu daitezke. Harrigarria, adibidez, jarreretan eskaintzen duen aukera aniztasuna, etxean jasotzen den diru kopurua edota kirol zehatz batekiko interesa tarteko.

Hala ere, ezberdintasun handiena, kasu honetan, Twitterrek telebistarekin duen harremanean dago. Telebista programa askoren audientzia neurgailu ere bihurtu da Twitter; horregatik, beharbada, erabiltzaileek jarraitzen dituzten telesailen bidezko filtroa ere eskaintzen du.

Hori posible egiten dugunak geu gara, ez dugu ahaztu behar. Doan eskaintzen zaiguna ez da doan, noski; gure datu eta informazioarekin ordaintzen dugu zerbitzua. Baliotsuak diren seinale, ez gutxietsi.

## Sakelakotik adimen kolektibora

Sakelakoek inoiz teknologia batek izan duen arrakastarik handiena lortu dute gure artean. Aurreko teknologia guztiak baino azkarrago eta hedatuago daude orain. Iparraldeko herrietan ez ezik, txirotutako herrialdeetan ere –Afrikan, kasu mugikorren arrakasta izugarria da, ekonomia eta harreman eredu berriak sortzeraino.

Hala ere, urte batzuk pasa dira eta, nahiz eta adimendun deitu sakelako berriei, adimen gutxi dute. Oraindik ere tresna mugatu bat dira, nahiz eta jende askok ‘beharrezko’ dituen. Horri lotuta, sakelakoa etxean utzi edo ezin erabiltzeagatik sortutako fobia (*nomofobia*) ere aipatzen dute zenbaitzuk.

Gailu mugikorrak eta sakelakoak bereziki hobetuz joango dira, baina beste tresna batzuk ere agertuz doaz, gurekin integratuagoak. Horien txanda izango da orain?

Google saiatu zen Google Glass betaurrekoekin, baina argi gelditu zen jendartearen oraindik ez zegoela prest. Erloju adimendunak ere etorri ziren ondoren, eta horiek ere ez dute arrakasta zabalik lortu, nahiz eta zenbaitzuk erabiltzen dituzten. Oraindik ere jantzigarri horiek ez dira hedatu, baina bidea markatuta dagoela dirudi. Osasunarekin edota kirolarekin lotutako erabilerekin dirudite lehen erabilpen esparrua oraingoz.

Horregatik, oraindik sakelako telefonoa da nagusi, eta gailu horiek guztion garuna izatera pasako dira, adimen



edo 'inteligentzia' gehiago eskuratzeaz gain. Gero eta gailu gehiago konektatu eta jantziko ditugu, eta horietako askok mugikorra erabiliko dute datuak eskuratu, analizatu eta erabakiak hartzeko.

Mugikorren mugak gaintzeko, beharbada Google Glass moduko teknologiek arrakasta izan dezakete, beren informatika partea –tamaian handiago egiten dituen– mugikorrarekin bateratzen badute.

Makinekin elkarreragiteko orain arteko ukipen bidezko teknologiak erabiltzeaz gain, gero eta gehiago mugimendu eta patroizkoak ere erabiliko ditugu. Zerbait itzali, piztu edo ekintza bat burutzeko, mugimendu batekin nahikoa izango da.

Ahotsak ere garapen handia izango du, eta, horrela, gailuekin hitz egitea gero eta ohikoagoa izango da. Horrek 'adimen artifizial' hobeagoarekin loturik egon beharko du, agindu sinple batek guk nahi duguna egitea lortu nahi badugu. Horregatik, arlo honetan ere garapen handia izango da hurrengo urteetan.

Mugikorra eta bertan ditugun sentsoreak ez ezik, kanpoan izango ditugun beste milaka sentsore, eskumuturreko, arropa, tresna... horien informazioa prozesatzeko tresna ere bada eta izango da mugikorra. Informazio horrekin zer egin erronka handia ere bada maila indibidualean eta kolektiboan. Inoizko datu kantitate eta jendarteari buruzko informazio handiena izango dugu, datuak anonimotu eta ikertzeko aukera paregabea; ongi erabilita, gizarte zientzietan eta jendartearen ongizatean eragin positiboa izan dezake.

Hortik aurrera, teknologia horien eta gizakion arteko komunikazio interfazeak etorriko dira. Zuzenean makinak erabiliz, gure gorputzean txertatutako tresnen bidezko komunikazioa. Gure arteko komunikazioa eta baita makinekin zuzenean elkarreragiteko modu berriak ere. Vernor Vinge zientzia-fikzio-ko idazlearen *Rainbows End* nobelan oso ondo irudikatzen da horrelako mundu baten etorkizun posibleetako bat.

Erronka berriak etorriko dira orduan; nagusia, teknologiak gure gorputzarekin bat egiten duenean, munduko ezagutza

guztia gurekin uneoro dugunean. Orduan, adimen artifiziala baino, gizakion adimenaren muga indibidualak eta aukera kolektiboak izango dira berriro erronkak.

## Asortatibitatea

Bada sare sozialen azterketan, ez Interneteko sare sozialetan soilik, baizik eta pertsonen arteko harremanak definitzen dituzten sareetan, propietate berezi bat: asortatibitatea. Sare sozialetan agertzen da bereziki; sare teknologiko edota biologikoetan, aldiz, ez da ohikoa.

Sare sozialen analisia askotariko diziplinek osatzen duten ikerketa eremu berrienetako bat da. Eremu horretan, sistematik aztertzeke sareak eta horien ezaugarriak aztertzen dira. Laburpen moduan oso interesgarria da, adibidez, José Ignacio García-Valdecasas-en 'La estructura compleja de las redes sociales' artikulua ([www.fes-sociologia.com/files/res/24/04.pdf](http://www.fes-sociologia.com/files/res/24/04.pdf)).

Artikulu horretan, asortatibitatea sare sozialetan gertatzen den berezko fenomeno bezala azaltzen du. Asortatibitateak nodoen artean ezaugarri antzekoen araberako bateratzea suposatzen du. Ezaugarri hori, normalean, nodo horrek – pertsona horrek– dituen lotura kopurua izan ohi da. Konexio asko dituen nodo batek konexio kopuru altua duten bestekin lotzeko joera izango du, eta alderantziz.

Hori ez da edozein saretan gertatzen den fenomeno; sare biologikoetan, adibidez, konexio kopuru altuko nodoek konexio gutxiago dituztenekin lotzeko joera ere egon ohi da.

Sare sozialen asortatibitatea ezagutzuz, gauza oso interesgarriak ondoriozta daitezke. Epidemiologia gaietan aplikatu daitezke, adibidez, eta informazio hori propagazio saiakerak mugatzeko erabili. Propagazioa ezaugarri antzekoak dituzten artean gertatuko bada, horiek mugatzearekin batera arazoa konpondu edo murriztu daitezke.

Zergatik gara ezberdinak? Zergatik dirudite ezberdinak pertsonen arteko harremanek osatutako sare egiturek? Sareek

eta horien egiturek gu egiten gaituzte edo guk erabakitzen ditugu gure sareen egiturak? Bizi garen jendarte ereduak markatzen du sare egitura edo naturalki gure izaeragatik definitzen da hori? Egitura horiek aldatzea erabaki dezakegu edo automatikoki agertzen diren egiturak dira?

Galdera asko, eta horien atzean, gure jendarteak behin eta berriz egiten dituen galdera askoren erantzuna ere. Jendartea sistematikoki aztertzea zaila da, lupa edo ikuspuntu batetik egiten baita. Kasu honetan, sare egituren begirada, askotarikoagoa bada ere, ereduak erabiltzen ditu konplexutasuna murrizteko. Hori ere mugatua da, baina behintzat tresna batzuk eskaintzen dizkigu gure harremanak –gure bizitza, azken finean– ulertzen laguntzeko; gizakia, azken buruan, izaki soziala delako. 🌱

GURE  
GATAZKARA  
DATORRENA...

# EUSKADI SOSIOUX

aurrera doan harria

...BERE  
GATAZKAN  
DAGO.



**Jakin**<sup>•eus</sup>  
herria kultura hizkuntza

Tolosa hiribidea, 103-1.C  
20018 DONOSTIA  
Tel. 943 21 80 92  
jakin@jakin.eus  
www.jakin.eus

